



LIZUN
Gaztandegia
Kalitate eta
erregulartasunaren
8. saria

→ 20

Mintza Eguna

Elizondon ekainaren 4an → 44

BERA/LESAKA → 11

Ibilaldi arautua Realzale eta Osasunazaleen eskutik

DONEZTEBE → 52

Udaberriko Erremonte Torneoaren finala

LEITZA → 36

Leitzaldeko eskolen eguna maiatzaren 14an

SARA → 50

Ondarea elkarteko kidearekin solasean



Sei herritan udala berriitu gabe geldituko da eta bertze hamarretan talde bakarra aurkeztu da

Aurkeztutako talde guztiek izanzen dute maiatzaren 22ko hauteskundeetan parte hartzeko aukera. Arano, Beintza-Labaien, Donamaria, Elgorriaga, Ituren eta Urrozen ez da talderik osatu eta Arantza, Areso, Eratsun, Ezkurra, Goizueta, Igantzi, Oiz, Saldias, Sunbilla eta Zugarramurdin ez da lehiarik egonen, talde bakarra aurkeztu baita. → 10



Hiru urtez amuarrain arrantzarako debekua egon ondotik, maiatzaren 1etik ekainaren 30era zabalik dago denboraldia. Nafarroako Gobernuak jarritako mugekin kexu dira arrantzaleak. ERREPORTAJEA → 4-5

Amuarrain arrantza Nafarroaren mendialdeko erreketan

Arrantzale bakoitzak gehienez 5 baimen eskatzen ahal ditu



Xagu Antzerki Taldea | Leitza

Agur Manhattan! antzezlanaren irri-terapiarako proposa

Maiatzaren 7an eskaini zuten Leitzako Zinemaren eta larunbat honetan, maiatzak 13, Lekunberrin eskainiko dute.

ELKARRIZKETA → 3



ARKUPEAK ELKARTEAREN GIMNASIA BESTA

Bera, Leitza, Goizueta, Elizondo, Sunbilla, Doneztebe eta Urdazubiko 72 kirolari elkartu ziren Berako Kiroldegian. → 32



ORDOKI
altzariak

ERAKUSKETA
Bittiria 26

SALTOKIA
Plaza Zaharra 27

LESAKA
Tel. 948 63 77 80

web orri berria | www.mueblesordoki.com



ARANTZA, BERA, ETXALAR ETA IGANTZIN:
uztailaren 4tik 29ra
LESAKAN:
uztailaren 11tik abuztuaren 5era
Informazioa:
Dindaia Fundazioa 948 26 62 40
uda@dindaia.com

UDALEKUAK 2011

SORMEN ETA GORPUTZ TAILERRAK
8-12 urte sukaldean olinpiadak
birziklapena tailerrak ura/natura

UDALEKU IREKIAK
3-7 urte bitarte jolasak txangoak antzerkiak
euskara aniztasuna eskulanak

Dindaia  **IZEN EMATEKO EPEA: MAIATZAREN 16TIK 27RA**

www.gaur.com

Orain hamar urte sortu zen Xagu antzerki taldea Leitzan. Hamar lagun hasi ziren, baina gaur egun hiru lagunek osatzen dute. Miel Mari Elosegi *Luze*, Juani Barriola eta

Sergio Merino dira taldeko kideak. *Agur Manhattan!* antzezlanaren emanaldiekin dabilta. Eurek sortutako komedia da eta estresa du ardatz. Muñagorri doktorea, psi-

kologo eta psikiatra, da pertsonaia nagusia. Bezero xeble asko izaten ditu kontsultan. Guk Sergiorekin hitz egin dugu antzezlanaren nondik norakoez.

Sergio MERINO | Xagu Antzerki Taldeko kidea

«Antzezlan hau terapia ona izan daiteke estresa gainditzen hasteko»

M. MARTIARENA | LEITZA

2004tik zabiltzate Xagu Antzerki taldean. Beti izan al duzu antzerkarako zaletasuna?

Talde kide guztiok dugu zaletasuna, neurri batean edo bestean. Juani Barriola adibidez, inauterizale eta komediante izugarria da, berez. Hainbat filmetan parte hartu izan du, *La Buena Nueva*, *Eutsi*, *Pilotari*, Goenkaleko atal batzutan ere atera izan da... Luzek, berriz, beti egin izan ditu antzerkiak, laburrak eta showak eta nik ere umore-rako eta inauteritarako zaletasuna dut.

Lau antzerki lan egin dituzue taldea sortu zenetik. Nolako izaten da ideiatik eszenatoki-arte iristeko lana?

Idea bat eta gidoi bat sortzen dugu. Lan hori Miel Mari Elosegi *Luzek* egiten du. Behin hori eginda, entsaiatzen hasten gara, baina gidioa bizirik egoten da, aldaketak onartzen ditu, eta inprobisazioari ere tarte bat uzten diogu beti. Hor antzezleena ezinbestekoa da, gidioa hiruron artean osatzen baita. Antzezlanaren menperatzen dugula ikusten dugunean, saio batzuk lotzen ditugu inguruko herrietan.

Talde txikia zarete, zein da zuen funtzionamendua?



Sergio Merino, Juani Barriola eta Miel Mari Elosegi *Luze*.

Boladaka funtzionatzen dugu, denboraldika. Lan bat prestatu eta saioak lotzean aritzen gara. Ez gara hontaz bizi eta ongi datorkigunean biltzen gara.

Euskal antzerkiaren egoera ez da oso ona. Zuek talde bezala zein funtzio bete nahi duzue herrian?

Herriari bizia ematea da gure asmoa. Gure antzezlanak ongi pasatzeko dira. Auzolanean egindakoak dira, baliabide gutxirekin eginak. Kalitate aldetik an-

IDEIAK

«Idea bat eta gidoi bat sortzen dugu. Lan hori *Luzek* egiten du. Behin hori eginda, entsaiatzen hasten gara, baina gidioa bizirik egoten da, aldaketak onartzen ditu eta inprobisazioari ere tarte bat uzten digogu beti. Hor aktoreen lana ezinbestekoa da, gidioa hiruron artean osatzen baita».

tzezlan hobeak pasatzen dira Leitzan, baina gureak xarma berezia izaten du eta giro aparta sortu izan dute.

laztik *Agur Manhattan!* lanarekin zabiltzate. Nondik sortu zen idei hori?

Aspaldi genuen gogo beste antzezlanen bat taularatzeko, baina agenda beterik genuen beti. *Luzek* gure buruei barre egitea pentsatu zuen, eta gaiak noski, estresa izan behar zuen. Egia esan, taldeko hiru kideok ezagutzen

genuen zer zen hori neurri batean edo bestean. Gero, umore puntu bat jarri genuen eta hori izan da emaitza.

Gure inguruko gizartea isladatzen du?

Estresa bizi duten pertsoniak dira. Dena dela, komedia da eta egoerak muturrera eramandakoak dira. Irakaspena ere badu, baina hori ikusle bakoitzaren araberakoa da.

Manhattanen edo Leitzan, non dago estres handiagoa?

Leitzan estresa zer den dakien jende asko dugu. Manhattanekoa oraindik aztertzen ari gara, baina han ere antzeko egoerak daudelakoa gaude. Antzezlan hau ikustea terapia ona izan daiteke gaitz hauek gainditzen hasteko, barre-terapia bat izatea nahi genuke.

Beste proiekturik baduzue eskuartean?

Oraingoz antzezlan honen ibiliko gara bolada batean. Leitzan maiatzaren 7an egin genuen eta 13an Lekunberrin bukatuko dugu. Horrekin eginen dugu gure udaberriko denboraldi txikia. Dena den, udazken-negu aldera saio gutxi batzuko gehiagorik lotuko ditugu eta ordurako norbaitek interesik baldin badu xergiome@hotmail.com helbidean kontaktuan jar daiteke gurekin.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA
Izokin arrantzarako denboraldi ona izanen dela uste dute arrantzaleek.

GIZARTEA → GEHIENEZ ERE 5 EGUNEZ IZANEN DUTE ARRANTZARAKO AUKERA

Hiru urteko debekuaren ondotik berriz ere libre da amuarrain arrantza

Ezarritako baldintzekin kexu dira arrantzaleak

Hiru urtez amuarrain arrantza debekatua egon ondotik, maiatzaren 1etik ekainaren 30era zabalik dago denboraldia. Halere,

Nafarroako Gobernuako Ingurumen Departamentuak jarritako mugekin kexu dira arrantzaleak, gehienez 5 egun baitituzte arrantzarako.

Aitor AROTZENA

Hiru urteko debekua eraginez, amuarrain kopurua bikoiztu egin dela jakinarazi du Nafarroako Gobernuak. 2007an Hektareako 1.635 amuarrain zenbatu zituzten eta 2010ean, Hektareako 3.347 amuarrain. Hain zuzen, maila «normala» kontsideratzen da, kopuru hori 2.000 eta 4.000 amuarrainen arte-

an dagoenean. Horregatik, maiatza eta ekainean 27.966 arrantza-pase emanen dituzte Nafarroako mendialdeko erreketan arrantza egiteko. Horietatik 9.732 Baztan-Bidasoalderako izanen dira eta horietatik 1.936, erreka bazterreko herrietako bizilagunentzat izanen dira. Urumea-Oria ibarretan, berriz, 4.667 baimen emanen dira.

Maiatzaren 1etik ekainaren 30era arrantzatzen ahal da, asteartetan izan ezik. Beraz, arrantzarako 52 egun izanen dira, baina arrantzale bakoitzak gehienez 5 baimen eskatzen ahal ditu telefonoz edo Internet bidez eta eguneko hiru amuarrain baino gehiago ezin izanen ditu eraman. 20 zentimetro baino guttiago edo 35 zentimetro baino

gehiago dituzten amuarrainak errekarara bueltatu behar dira.

HERIOTZ GABEKO ARRANTZAZ

Iruñetik bultzatu nahi den arrantza modua heriotz gabeko arrantza dela eta inguruko arrantzaleak ere ez daude sobera konforme. Berako Ehi-za eta Arrantza Elkarte-ko Juan Otamendiren ustez, «heriotz gabeko arrantzaren aldekoek egun osoan errekan ibili nahi dute, lepora bitarteko katuskekin erreka erdi-erditik joaten dira eta gibeletik datorrenak, noski, ez du deus ere arrantzatzen. Gainera, pasatzen diren tokitik xomorro eta intsektu guziak, amuarrainen janaria hiltzen dute. Gero errekararen salbatzaileak direla erranen dute. Lehen gehienez ere 5 metroko kainabera izaten ziren eta errekararen erditik zebilen amuarrainak bazuen salbatzeko aukera. Gaur egungo metodoekin ez

dute salbaziorik. Uso ehi-zara kainoiarekin joate bezala da». Elizondoko Elkarte-ko Joseba Morenoren ustez ere, heriotz gabeko arrantza ez da beti heriotz gabekoa izaten. «Zuk hartzen ahal duzu 20-30 amuarrain eta itzultzen direnetatik 10-15 igual hil eginen dira, zauriengatik. Denek ez dakite amuarrainari minik egin gabe nola atera, traketsagoak direlako nolahi botatzen dute errekarara. Teknikoek konprobatu dute abuztuan, adibidez, eskuetan ibiltzen den amuarraina ezkatak galtzen dituela eta berriz ere urera bueltatu eta biharamunean hil egiten direla» aipatu digu.

IZOKIN DENBORALDIA ONA IZANEN DELAKOAN

Izokin denboraldiari dagokionez, 2010ean errekan goiti joan diren izokinak kontuan hartuz (500 inguru), aurten 39 izokin arrantzatzeko baimena eman da (iaz 20 izokinekin itxi zen den-

ARRANTZA ELKARTEETAKO ORDEZKARIAK KEXU



Juan OTAMENDI | Bera

«Udan iturri eta erreka frexkoetako ura kentzen badiogu, Bidasoa ibaia hiltzen ari gara»

«Amuarrain arrantzari dagokionez, ezarri duten ereduak ez da batere egokia eta arrantzale gehienek ez dugu onartzen. Baimena eskatzeko modua ez da batere eroso, eta erreka bazterrean bizi den arrantzaleak Internet bidez egin behar izatea ez dago ongi. Gure belaunaldiko jendearentzat urrats handiegia da hori. Hiru urteko debekua ondotik, egunero arrantza egiteko aukera izan behar dela uste dugu, zizarearekin edo amuki naturalarekin, beti egin den bezalaxe. Orain, amuki artifizialarekin hasi da denboraldia eta maiatzeko azken igandetik aitzinera utziko dute amuki naturala erabiltzen. Gure aitzinakoak errekatik atera dituzte, bertze arrantza mota artifizialak inposatuta. Bertze soluzio aunitz proposatu ditugu arrantzaleok: Bidasoko zenbait zatitan debekualdia mantentzea, baina gainerako zatietan arrantzatze-ko aukera izatea, adibidez. 35 kilometroko erreka dugu eta laurden batean debekatu eta gero, hori kontrolatu, neurtu eta ikusiko litzateke nola errekuaperatzen den eremu horretan amuarraina. Eta arrantza gabe ere errekuaperatzen ez bada, bertze neurri batzuk aztertu beharko liriateke. Berez daukan aberastasuna kentzen ari gara errekari. Iturriak kentzen dizkiogu etxerako erabiltzeko, baina bertze neurri batzuk bilatu behar dira. Bidasoak baino 3-4 gradu guttiago izaten duten iturri eta erreka dira. Udan ur frexko hori kentzen badiozu, Bidasoa ibaia hiltzen ari zara. Errekaren temperatura 24 gradura igotzen bada arrain guziak hilko dira.



Joseba MORENO | Elizondo

«Hirugarren mundukotzat gaituzte arrantzatzen ditugun amuarrainak jan nahi izateagatik»

«Sistema hau arrunt gaizki ikusten dugu, ez da batere zuzena. Internetera konektatzeko ere, Arizkun, Erratzun eta Amaiurren Mega 1 jarri dute eta Iruñean 50 dituzte. Hemengo jendeak ez du hiriburukoa bezala Internet erabiltzen, haurrek eta adinekoek batez ere. Iruñean, azalpenak ematerakoan, erraten ziguten gaur egun zinerako sarrerak ere Internetez ematen direla eta nik erantzun nien Baztanen ez dagoela zinerik ere. Egun guttiago arrantzatzea izaten ahal da soluzio bat eta astean sei egunez egin beharrean hirutan izatea arrantzarako eskubidea, eta nahi duenak gan, bere lizentziarekin gatea. Internetek arazo ugari sortzen ditu, aunitzetan ttikieria bategatik ezin duzulako baimena atera. Hor barnean lanean nola ari den ikustea lotsagarria da. Baztanen debekua baino lehenagotik ere amuarrain aunitz baziren, suerte hori badugu, baina hemen bakarrik irekia utziz gero jende guzia honat etorriko zela aipatu zuten Ingurumen Departamentutik eta horregatik hemen ere itxi egin zen. Beraz, gure aitzinakok hemen lana ongi egin dute eta saritu orde, zigortu egiten zaie. Eta orain, ireki den moduan irekitzea... Iruñean ez dute ulertzen gu mendian bizi garela, erreka ondoan, ttikitatik ibili garela arrantzan eta hirugarren mundukotzat hartzen gaituzte erreka amuarrainak jan nahi ditugulako. Beraiek heriotz gabeko arrantzaren aldekoak dira eta hor dugu eztabaia. Gure ustez, heriotz gabeko arrantza ez da beti heriotz gabekoa, erreka itzultzen direnetatik aunitz hiltzen baitira».



Joxe Ramon JIMENEZ | Goizueta

«Hauteskundei begira hartutako neurria da eta heldu den urtean berriz ere debekatu egingo dute»

«Orain hauteskundeak datoz eta antolatuta duten sistema berri honekin zerbait egin dutela erakutsi nahi dute. Beraiek emandako datuen arabera erreken egoera hobetu egin da, baina azken finean ez da egia. Gure erreketan amuarrain kopuru berdintsua da, hor ez da amuarrain populazioa igo. Bost baimen emateko sistema ere ez da egokia. Horiek eskatzeko Internetez edo telefonoz ibili beharra, nahasteko bidea da, batez ere adinekoentzat eta gaztetxoentzat. Erdaraz igual ez dira moldatzen eta hasi zaitezte, telefonoz hitzegiten edo ordenagailuarekin borrokan. Gainera epeak izaten dira eskatzeko eta bost baimen horiek, bakoitza bere tenorean eskatzen ez bada, galdu egiten da ustekabean. Gero hor dute aitzakia esateko, beraiek aukera eman dutela bost eguneko baimena eskuratzeko eta arrantzaleak ez duela aprobetxatu. Heldu den urtean berriz ere debekatu egingo dutela iruditzen zait. Nere ustez erabat ireki beharko litzateke eta hobeki gestionatu, guarda gehiago jarritz, distantziak mantenduz, birpopulatu... Gogoekin hartu behar da arazoa eta moldatzeko bidea jarri, egiazko soluzioa bilatu. Hori tentsio altuarekin medikura joan eta honek ez jateko esatea bezalaxe da. Horretarako ez noa medikura! Hamabost egun bakarrik ireki behar bada, hamabost egun, baina horietan bada-kigu denentzat irekia dela. Baina aste honetatik honetara bi permiso eskatzen ahal dira, hemendik honara beste bi, asteburu bat bakarra... Denak trabak dira».

boraldia). Sasoi maia-tzaren 1ean ireki zen eta uztailaren 17ra arte izanen da, edo bertzenaz, 39garren izokina arrantzatzerakoan itxiko da. Juan Otamendi izokin

arrantzalea da batez ere eta baikortasunez begiratzen dio hasi berri den denboraldiari. «Joan den urtean 145 izokin sartu ziren Bidasoan eta 20ko muga jarri zuten, baina

aurten aisa gehiago sartu dira, 462 izokin zenbatu dituzte Funverako presan. Berako errekan dozena batek errun du, horiek guk kontatuak, gero hil direnak. Denboral-

di ona izanen dela uste dut, baina hau ez da matematika garbia. 500 izokin daudenean 80 arrantzatuta ere ez da deus gertatzen, arazoa dator hiru izokin izan eta hiru-

ak arrantzatzen direnean. 1982an ez zen izokin alerik atera eta hurrengo urtean 35 atera ziren. Natura horrela da, gu baino askoz jakintsuago» aipatu digu Otamendik.



Nire txanda
Koro IRAZOKI

Gure herri tiki hauek

Ni herri tiki batekoa naiz, 200 biztanleko herri pulit batekoa, eta herri hauek dituzten arazoei buruz mintzatu nahi dut. Bi arazo ikusten ditut nagusiki:

- Batto, edozein gisatako lantokietatik urrun diren herriek, aukera bakarra nekazaritzatik bizitzea dute, eta denek dakigu zein lan gogorra den nekazaritza, eta zoritxarrez ez duela traba eta arazoak baizik hartzen. Husteko eta biztanlerik gabe gelditzeko arriskua handia dute herri hauek. Laguntza behar dute.

- Bertze arazoa juxtu kontra-koa: batere neuririk gabe haunditzen gan diren herriak.

Hauek ere denek ezaguten ditugu: hortxe dago herri tikiaren muina, baina bere inguruan sekulako urbanizazioak eta etxe-blokeak egin dira, beren aparkaleku, semaforo, asfalto eta zimentaz inguratuz, lehengo herri tikiak zuen goxotasuna galduz. Ez genituzke galdu beharko gure herri tiki hauek, pulitak, goxoak, eta bizitzeko atseginak.

Lantokietatik urrun diren herriek, aukera bakarra nekazaritzatik bizitzea dute

Ezpala

Aitor AROTZENA

Carl Lewis ere inpugnaturik

Garai batean Munduko atletarik bizkorrena izan zen Carl Lewis ezin du New Jersey-ko senatari izan. Bildukoa edo inpugnaturiko zerrendaren batekoa ote da? Ez noski! Ez da New Jersey estatuan bizi, hori da arazoia. Hemen, berriz, batez ere PPK zenbait herrietan aurkeztu dituen zerrendatan, ez da herri horretako bizilagun bakar bat ere ageri. Eta alkate izan daitezke.

Nabarmentzekoak



Mikel PERNAUTE
Txarutako palista

Nafarroako buruz buruko paleta goma txapelketa irabazi du lehen mailan pilotari nartartearrak. Finalean 30-23 irabazi zion Amaya taldeko Jose Mari Erbururi.



Arkaitz VICENTE
Ordizian saritua berriz ere

Idiazabal Gaztaren Izen-dapenak ematen duen erregulatasunaren saria zortzigarren aldiz irabazi du Sunbillako Lizun gaztandegiak. Ordiziako XVII. Artzain Egunean jaso zuten saria.



Joxe Mari MITXELENA
Lehenbizikoaren arrantzalea

Maiatzaren 1ean, denboraldiko lehen egunean arrantzatu zuen 6,4 kilo eta 84 cmko izokina. Hirugarren aldia da Berako Zalaingo arrantzaleak *Lehenbizikoa* ateratzen duela.

Atzera begira → 1998.05.21 / TTIPI-TTAPA 230. zk



Euskaraz bizi diren herrien besta Arantzan

Arantzan zer? euskaraz leherizenburupean UEMA Eguna ospatzekoa zen 1998ko maiatzaren 24an Arantzan. Bi urte terdi pasatuak ziren Arantza Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartu zenetik. Joxe Ramon Amoros alkatearekin eta Xabier Zugarramurdi zinegotziarekin bildu zen TTIPI-TTAPA: «Azken finean gu euskaraz solasten gara beti, eta kontraesan bat zen paperak erdaraz izatea. Gu euskaldunak gara eta euskaraz egitea nahi dugu, ez dugu zertaz erdarazko paperik hartu beharrik» zioten elkarrizketan. TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN aurkezpen ofiziala ere UEMA Eguna hartan egin zen.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andueta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joanes Garcia...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2011ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leitza15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Maiatzaren lehena eta Amaren Eguna: Zaintzearen analisisa

Tere SAEZ (Berdintasunerako Teknikaria)

Maiatzaren 1ean inguruan gorderik dagoen errealitatea oroitarazi behar zaie sindikatuei eta gizarteari: enplegu prekarioa eta emakumeek egiten duten doaneko lana. «Mari, 64 urte. 40 urtez ezkutu ekonomiko langilea. Gizarte Segurantzara kotizatu gabe. Hiru seme-alaben hezkuntzaren eta bere eta senar-ohiaren familiartekoen zaintzaren arduradun, baita etxeko lanena ere. 32 urtez ezkondu egon ondotik berezia, tratu txarrak jasandakoa. Senar ohia 2008an hil zen. Erretiro pentsiorik gabe eta alargun pentsioa ukatua. Bere seme-alabek ematen diotenaz bizi da. Lehendakari izatea lortzen badugu, hil arteko pentsioa izatea lortuko dugu».

Lanaren Egunean, amarenarekin bat dela aprobetxatuz, enpleguarekin edo lan produktiboarekin ematen diren egoera ezberdinak salatzeaz gain (EREak, langabezia, prekaritatea, eskubide sozialen galera, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko politiken falta, etengabeko murrizketak, erretiroa adinaren gibelatzea, pentsio irriemangarriak, lanean hasi ezin duten gazteak, eskubiderik gabeko etxeko langileak...) garrantzitsua da zaintzeaz ere solastea, balore sozial eta ekonomiko gisara. Zaintza lanak historikoki emakumeek egin dituzte, eta batez ere amek. Beti gibelean egon diren amak, koltxoi emozional eta fisikoa emanez, itxaropena galdu gabe, batzuk bere seme-alaben bizitzatik bortizki desagertu direnak, genero biolentziaren ondorioz urtero hiltzen diren 80 emakume horiek bezala. Edo bere seme-alabek gatazka politikoak zergatik jasan behar dituzten ulertzen ez dutenak, beraiek ikusteko eta ondoan izateko eskubidea ukatuz. Konfliktu guztiak humanizatzen dituzten ama horiek, baldintza gabeko maitasunarekin eta maite dituztenen sufrimendua bukatzeko desioarekin. Garrantzitsua da mundu honetan amen paper soziala onartzea, zaintzaile funtzioari dagokionean. Eta hori amek egiten dute, ez bakarrik beraiek sortzen gaituztelako mundura. Horrela egiten dute gizarte honek hala pentsatzen duelako, hala erraten duelako eta hala bizi-razten duelako. Zaintzearen paper hori eman digute, eskusibotasunean, emakumea izateagatik zerbait naturala balitz bezala, baina errealitatean ikasi eta eraiki egiten den zerbait da, gizasemei erakusten ez zaiena eta egitea eskatzen ez zaiena.

Interesgarriena, ama eta aita izatea, bi sexuek elkarbanatutako zerbait izatea litzateke, eskema eta aurreiritziarik gabe. Sortze beretik eta eta bizitza osoan pertsona guztiak behar dugun maitasuna eta behar afektiboak bien artean betetzea bakarrik eskatzen dugu. Horretarako, ardurak banatzeko kanpainez gain, beharrezkoa da aitatasun baimena zabaltzea eta amatasunarenarekin parekatzea, horrela gizasemeek zaintzea normalagoa ikusteko. Eta noski, zaintzea duintasunez eta justiziaz hartzea, etxeko langileak Gizarte Segurantzako erregimen orokorrera pasatuz. Horregatik, «Berdintasuna oparitu, ez plantxak!, Berdintasuneko etorkizun baten eta ardura ekilibratuen aldeko apostua egin».

Moby Dick harrapatu dute Estatu Batuek

Mikel RODRIGUEZ LANDA (Lesaka)

Herman Melville idazlearen lumak sortutako Ahab kapitaina Moby Dick balea xuriaren gibeletik ibili zen gisan ibili dira Ameriketako Estatu Batuak Osama Bin Laden Al Kaedako buruzagiaren gibeletik, hamar urte luzez. Moby Dickek Ahabi hanka moztu zion bezala, Bin Ladenek New York eta Washington kolpatu zituen, eta horrek Washingtonen mendeku gosea piztu zuen. Horren ondotik gertatu dena soberan dakigu. Bi herrialde aitzinetik eraman dituzte, eta munduko bertze hainbat bazter nahasi, 'terrorismoaren kontrako gerra' dela eta. Ahabek ez bezala, ordea, Estatu Batuek bere Moby Dicka harrapatzea lortu dutela iduri du. Helburua bete dute eta kontent atera dira denak karraketara ospatzera. Mendebaldeko herrialdeek, demokraziaren asmatzaile eta nagusi omen direnek, guztiak zoriondu dute Barack Obama presidentea. Baina aldi berean, lezio kurioa eman digute. Gure belaunaldiak behinik behin, haurrak ginenetik aditu du oraingo 'demokrazia' hau dela historian egon den sistemarik bidezkoena, eta pertsona guztiak, deabruaren parekoak izanagatik ere, epaiketa justu bat merezi dutela. Justiziaren jardunetik kanpoko hilketek edo torturak ez omen dute kabidarik Mendebaldeko sistemetan. Ikusten dugu hori gezurra dela, eta hainbertzeko askatasunarekin hautatzen ditugun agintariak atzamarra zeinen gainean paratu, hura zanpatzen dutela. Integrista erlijioso bat izan da oraingoan 'biktima', XXI. mende hasieran gaizkiaren irudia hartu duena. Baina zein memoria eskasa dugun. Bushek eta Obamak justiziaren izenean jazarri duten pertsonaia hori berbera erabili baitzuen Ronald Reaganek bere garaian, komeni ziztaionean, Afganistanen komunismoaren aurka egiteko. Zein ezberdina izan zitekeen orain herrialde hori, 1978ko iraultzak boterea mantendu balu. Baina Estatu Batuek ez zuten hori nahi, eta Bin Laden erabili zuten hori saihesteko. Garai batean tipo ona zena, finantzatu eta entrenatu egin zutena, deabru bilakatu zitzaizen, Saddam Husseinekin gertatu gisan. Bin Laden ez zen tipo ona ez, ideia aurrerakoien etsaia zen, baina hura hiltzeko agindua eman duena, Bakearen Nobel Saria izanda ere, ez da aunitzez hobe.

«Justiziaren jardunetik kanpoko hilketek edo torturak ez omen dute kabidarik Mendebaldeko sistemetan. Ikusten dugu hori gezurra dela, eta hautatzen ditugun agintariak atzamarra zeinen gainean paratu, hura zanpatzen dutela»

Irakurleak mintzo

Dantxarinea egia

Santiago VILLARES
Urdazubiko alkatea

Urdazubi, herriak eta zazpi auzokosatzten dute: Hiribere, Leorlas, Landibar, Telleria, Larrainta, Alkerdi eta Dantxarinea. Denak ezberdinak baina garrantzi berekoak. Urte hauetan eta batez ere azken hilabete hauetan asko hitzegin da Dantxarinea auzoa eta bertatik igarotzen den zeharbideari buruz, hala eta guztiz ere, egi gutti erran dira. Guzti hau argitzeko asmoz lerro hauek idazten ditut. Lehenik eta behin, Urdazubiko ekonomiarentzat Dantxarinea oso garrantzitsua dela adierazi nahi dut, gune hau gure zergak ordaintzeko laguntzarik hoberena da; honetaz gain, energia gehien kontsumitzen duena da eta aberastasun eta lanpostu aunitz sortzen ditu. Azken aldi honetan, gune komertzial honek herriaren turismoarekiko promozioan laguntza handia eskaini digu. Erran daiteke, Dantxarinean egini-ko edozein garapenak aberastasun gehiago ekartzen duela eta honekin batera ongizatea eta herritarrentzako lanpostu berriak sortzen duela. Dantxarinea zeharkatzen duen zeharbidearen erakuntzak zer erran asko sortu ditu, hala eta guztiz ere, erakuntzaren zergaitiaren egia buruz oso gutti dakizue:

1- Dantxarineako mugatik egunero batz berze 5.000 ibilgailu igarotzen dira. Ibilgailu hauek %90a Dantxarinea bertan gelditzen dira, hemen eguna pasatzen dute erosketak eta abar egiten... Gainerako %10 Dantxarineara lanera etortzen dira edo komertzioetan beren merkantziak saldu edo entregatzen dituzte. Zati ttiki bat Dantxarineatik Zugarramurdi, Urdazubi eta Baztanera Otsondotik igarotzen dira. Guzti hau jakitea garrantzitsua da Dantxarinean egin den aldaketa ulertzeko. Aldaketa honekin, Dantxarineako sarrerak eta irteerak asko hobetu dira eta trafikokoaren antolamendu hobek seguritatea eta oinezkoentzako erosotasuna ekarri du, bai egunez eta bai gauez. Guzti hau adierazita, nere galdera da: Zertarako balioko liguke Dantxarinea alde batera uzten duen, trafikoa antolatuko ez lukeen eta trafiko hori gune komertzialek kanpo bidaliko lukeen saihasbide baten? Nire ustez ez luke gauza onik ekarriko, hain zuzen, trafikoa Dantxarinea berak sortzen du berarendako, eta hau ezabatu beharrean antolatu eta zuzendu behar da, zeren gu gure lurraldera bisitan etortzen den jendea esker bizi gara, hauek uzten baitute gure herriaren ekonomian zati garrantzitsu bat. Gaur egun sarrera onak dituen gune komertzial eroso eta moderno bat dugu, eta honek guzti-entzako aukerak sortzen ditu. Gainera etengabe-

ko hedapenean dago. 2- Askok hitz egin da obra honen finantziaketaz. Askok balio izan duela, ordaindu gabe dagoela, herritar bakoitzak diru kantitate bat ordaindu behar izan duela... Baez, ez da egia. Obra honek denetara 3.000.000 euroko gastua izan du, hauetatik 2.000.000 Nafarroko Gobernuak subentzionatu ditu, 150.000 euro Pirinio Atlantikoko Kontseilu Orokorrek eman ditu, 550.000 euro Dantxarineako komertzianteek eman dute beren borondatez, hala eta guztiz ere, Dantxarinean 5 komertzio dituzten hiru dendarik ez dute parte hartu nahi izan eta honen kausaz Urdazubiko udaletxeak gutti gorabehera 300.000 euro ordaindu behar izan ditu. Jakinarazi nahi dizuet azken ordainketa hau egina dagoela, azkenean obra guztia ordainduta gelditu da eta ez da finantziario berri baten beharrik izan, herritarrek

ez dute deus ordaindu behar izan. 3- Erran eta idatzi diren gainerako gauza guztiak demagogia hutsak dira. Horrelako ekintzek oso sinplea den zerbait nahasi eta faltsutu nahi izaten dute. Egin den obra arras ona izan da eta denei edo ia gehienei gustatu zaie. Honez gain eraginkorra da eta gune horretan lehen zeuden arazoak konpondu ditu. Zalantza hauek argitzea garrantzitsua dela uste dut eta behingoz gai hau argitua utzi nahiko nuke. Honela ez dira gaizki ulerturik izanen, errealitytetik urruti gelditzen diren iritziek dena aldrebesten baitute.

Josu Goiari erantzunez

Marisol TABERNA IRAZOKI
Aralarreko zinegotzia

Berriki idatzi duzun gutunari xehetasun batzuk gehitu beharrean gara.



Bota bertsoa

Maialen IANTZI (Elizondoko bertso eskola) • Doinua: Munduaren ilunabarra

Hauteskunde kanpainen murgilduak

Maiatza hauteskunde hila ideologia pila mitin ta kartelak mila denak garaipen bil politikiariek botua saltzeko mingain arin ta abila alderdi berrien, iraultza ideiek sortu dute iskanbila askatasunak hitza harturik hautsi du herri ixila herriek agintia eskuratzeko da aukera borobila bertintasuna ta demokrazia behingoz islatu dadila.

Iritsi da momentua eskutan dugu botua paper xuri tolestua bertan gure sekretua hauteskontziko, ideia-on denei atra zaiogun zukua atzendu gabe, erakutsiaz guztiei errespetua guregan dago herri honetxan etorkizun ta patua edozein dela ere egokia izan dadila hautua gobernuek herriei bizkarran orde man diezaiola eskua.

Ez diogu Berako alkateari meritorik kenduko, baina guztia aitortzen hasita, hurrengo hauek ere erran beharrean gara. Berako alkatearen taldea gutiengoan egonda ere, gainerako alderdi politikoez modu eraginkorrean parte hartu dugu lau urteotako kudeaketan. Herriaren hobekuntza beharrez jokatu dugu, alderdikeria alde batean utzita, ardurak hartu ditugu (talde guztiek izan dugu arduraren bat batzordeetan), esparru guztietan lan egin dugu eta egoera ez dugu erabili inoren kontra joateko, herriaren alde baiduz. Nafarroako Gobernuen finantziario politikak udalak diru laguntzen menpe uzten ditu, baliabide ekonomiko guti ematen digu eta gure jarduna erabat baldintzatu dago, itolarrian. Aipatu dituzun lan guztiak gauzatu badira, neurri batean suerteari esker izan dira, legegintza honetan ez ohiko diru

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

iturriak izan ditugulako, eta ahal izan dugun neurrian probestu ditugu, bereziki Espainako Gobernuak udaletara bideratu dituen xoxak baretetik; eta bertzetik, aitzineko legegintzan bideratuak gelditu ziren hainbat lan legegintza honetan gauzatu ahal izan direlako.

Udalaren lana ez da obretara mugatzen, agerikoagoak badira ere. Aipatu nahi ditut hemen behar bada "ikusit" ez dituzun bertze esparru batzuetan ere burubelarri aritu garela, herria egiteko funtsezkoak direnak gure taldearen us-tean. Azkeneko urtetan aldaera handia izan da gizarte gaietan, gizarte zerbitzuetako mankomunitatearekin batera Bortzirietan eta Beran landu ditugun gaietan: berdintasunaren alorrean; lana eta familia uztartzeko kontziliazioan; drogomenpekotasunen aurkako planean; aniztasunaren aitorztan... Bortzirietako euskara eta hiri hondakinen mankomunitatetan erantzunkizunez jokatu dugu. Kul-

tura eta kirol alorrean lan dinamikoa egiten segitu du udalak; mugikortasunaren gaia jorratu dugu; krisi egoera honetan Baztan-Bidasoko udal ordezkariekin elkarlana bultzatu dugu eta zonalde osoari eragiten dioten bertzelako kezkek plazaratu ditugu. Udalaren gastuak aztertu, neurtu eta ahal izan den neurrian murriztu ditugu.

Lau urteotan gauza anitz egin da. Baina ez da zilegia soilik alkatearengan uztea meritu guztia. Akatsak denon artean partekatu behar izaten ditugun bezala, meriturak ere hala egitea gutienekoa da.

Zer ari da pasatzen Urdazubin?

[Izaskun MIURA ARIZTIA](#)
[Urdazubiko talde baten izenean](#)

Etorkizun ziurgabe, langabezi eta krisi famatuaren garai honetan, buruan darabilgun

kezka bat zuenganatu nahi dugu. Zer ari da pasatzen gure herriko udaletxean?

Urdazubiko kasu berezia dirudi, azpiegitura lanak egin dira, eta ohikoa den moduan, aurreikusitakoa baino diru gehiago kosta dira, udaletxeak, horiek ordaintzeko aurrekontu nahikorik izan gabe; berriki moldatutako Dantxarri-neko zeharbideko pasatzea ekiditeko sahisbide bat egiteko obra garrantzitsu bat proiektatua dago, nahiz eta, gaur egungo trafiko kopuruarendako ez den beharrezkoa; azpiegitura hauetako batzuk (bukatua edo proiektuan daudenak), mantentzen diren gastu energetiko handia suposatzen dute, adibidez, gehiegizko argiteria; azken urteetan, udaletxea barne dagoen prozesu judizialak biderkatu egin dira, horrek dakarren gastuarekin: defentsa, aholkularitza, kostu judizialak...

Jarduera hauetako batzuk udaletxean dauden bi taldeen adostasuna-

rekin egin dira eta bertzeak gehiengo duen alkatearen taldeko bozkekin. Egiatzki beharrezkoa da Urdazubiren tamainako (360 biztanle) udaletxe batean gas-tu kopuru hau? Ondoriorik ekarriko al du?

Bertzalde, azken hilabeteetako udaletxeako bilkuretara, alkateak erran du Elektra Urdazubiren salmenta tramitatzen ari dela. Udalerrarena den aipaturiko konpainiak herria bertze konpainia batzuk baino merkeago hornitzen du argiz, eta aspaldiko urteetatik udaletxeari etekin ekonomikoa handiak dakarkio.

Badirudi energia legearen inguruan estatu mailan egindako lege moldaketek aldaketak egingera behartzen dutela, ondorioz, banaketa eta merkaturatzea ezin dira erakunde beraren jabe-gokoak izan. Badirudi, alkatea, udalarena den konpainia osoki saltzeko tratuan ari dela Elektra Valdizarberekin. Honen, diru sarrera handi eta azkarra ekarriko luke, lehendik hartutako

zor posible batzuk garbitzen ahalko zirelarik. Erranahiruak dioen bezala, *Gaurko jana bihar-ko gosea*.

Elektra Urdazubiren banaketa udalaren esku mantendu ahal izanen litzateke eta merkaturatzea bertze konpainia baten esku utzi (halakorik balego). Zertaz ez da bigarren aukera hau hautatu, Urdazubik epe luzerako diru sarrerak mantentzeko eta etorkizunerako segurtasun ekonomikoa gehiago izateko? Noiz egin da udal konpainia honen salmentarako enkantea? Zer asmo dituzte hurrengo udal hauteskundeetan aurkezten diren taldeek Elektra Urdazubiren inguruan?

Ondoko urteetan zerga berriak jarriko dituzte? Zergak berriz igoko dituzte, dagoeneko batzuekin egin bezala?

Bertzelako zerbitzuetan murrizketak egingen dira?...

Galdera hauek airean uzten ditugu, urdazubiarrok hausnarketak egin eta horien arabera joka dezagun.

PSIKOBIDE PSIKOLOGIA ZENTRUA

TERAPIAK: Bakarkakoa - Bikote artekoa - Familiarra
HELDUAK - HAURRAK - NERABEAK:

Era guztietako arazoak eta gaixotasunak tratatzen ditugu
IKASKETA TEKNIKAK eskolan arazoak dituzten haurrentzat
GURASOENTZAKO LAGUNTZA TALDEAK: Talde terapiak

Lehenengo kontsulta dohainik, deitu eta informa zaitez!!

Kolon Pasealekua, 64 behea • 20301 - IRUN
Tel. 689 639 543 • www.psikobide.com



HAUTESKUNDEAK

MAIATZAREN 22A → UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK

Bilduren helegitea onartuta, aurkeztutako talde guztiak hauteskundeetan izanen dira

Sei herritan ez da zerrendarik aurkeztu eta hamarretan talde bakarra

TTIPI-TTAPA

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak aintzat hartu du Bildu koalizioak aurkeztutako babes helegitea, eta beraz, maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskundeetan izanen da. Auzitegi Gorenak baliogabetu egin zituen Bilduren zerrendak, baina Konstituzionalak gibelera bota du Gorenaren ebazpena. Horrenbertez, eskualdean aurkeztu diren talde guztiak izanen dute hauteskundeetan parte hartzeko aukera. Aurkezten utzi izan ez balio, airean geldituko litzateke Arantzeta, Goizueta eta Sunbilla udala, horietan Bildu baino ez baita aurkeztu. Horietaz gain, Bera, Lesaka, Bertizarana, Leitza eta Baztanen aurkeztu da Bildu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bilduren legezkotasuna eskatzeko, elkarretaratzeak egin ziren joan den astean hainbat herritan.

TALDE BAKARRA

Eskualdeko hamar herritan hautagaitza bakarra izanen dute hauteskunde hauetan eta hori da Arantzeta, Areso, Goizueta, Eratsun, Ezkurra, Igantzi, Oiz, Saldias, Sunbilla eta Zugarramurdiren kasua. Hortaz, hauteskundeentz aitzinetik jakina da nola osatuko den udalbatza. Arantzan Jaime Iturria izanen da alkatea, Areson Ur Alguero, Goizuetan Pablo Miranda, Igantzin Lourdes Ibarlu-

zea eta Sunbilla Amets Inda. Eratsun, Ezkurra, Oiz, Saldias eta Zugarramurdin zerrendak irekiak dira eta maiatzaren 22an jakinen da.

ZERRENDARIK EZ

Sei herri dira zerrenda osatu ezinik gelditu direnak: Arano, Beintza Labaien, Donamaria, Elgorriaga, Ituren eta Urroz. Urri aldera eginen den bigarren deialdiaren esperoan egon beharko dute, beraz. Horrez gain, kontzejue-

tako hauteskundeak ere orain tokatzen dira, baina Bertizaranan, ez Oierregin, ez Narbarten eta ez Legasan ere ez da hautagairik aurkeztu.

BORTZ ZERRENDA

Zerrenda aukera zabalarekin ere badira udalerrriak eta horixe da Baztan, Bera eta Etxalarren gertatu dena. Bortz zerrenda baitituzte hautesleek. Laurekin daude Leitza eta Lesaka. Bi talde Bertizarana, Doneztebe, Urdazubi

eta Zubietan izanen dituzte. Zubietan 2007ko maiatzeko hauteskundeetan zerrendarik aurkeztu ez bazen ere, aldi honetan bi egin dira.

UPN-PPN-PSN

Hiru alderdiok lehen aldiz aurkeztu dute zerrenda herri batzuetan. Batzuetan herriko jendea badago ere, gehienetan kanpoko jendearekin osatu dituzte zerrenda osoak.

EPEAK

Maiatzaren 6an zabaldu zen hauteskundeetako propaganda egiteko epea eta hilaren 20ra arte izanen da aukera. Maiatzaren 22an 09:00etatik 20:00etara egonen dira hauteskundeak zabalik eta hortik aitzinera eginen dira zenbaketak. Postaz botoa eman nahi dutenek, berriz, maiatzaren 12a izanen dute eskaerak egiteko azken eguna eta 18rako bidalia izan beharko dute. Ekainaren 11n hartuko dute kargua alkate berriek.

BORTZIRI
UNSION ANIAK
Sukalderako altzariak

Berezu etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

José I. Gonzalez Enguita
DENTZARRAK
berriak eta fitzadak
tel. 666 235 466

ZOANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
Audi

MARKA GUZTIAK KONPONKETA
Banaria, 2 - Alkaiaga industrialdea
LESAKA (samera Beratik)
Tel. 948 625 555 - Fax: 948 625 505

KIROLA → FUTBOLZALEAK MENDIRA

Ibilaldi arautua antolatu dute osasunazale eta realzaleek ekainaren 5erako

Alkaiagatik abiatuko da eta Lesakan bukatu

TTIPI-TTAPA

Osasunako Bortzirietako Gorriak Peñak eta Realeko Genaro Taldeak, elkarlanean, ibilaldi arautua antolatu dute hurrengo ekainaren 5erako. Igande goizez egingen da proba eta bikoteka izanen da.

Ibilaldia Alkaiagako frontoian hasi eta Lesakan amaituko da. Lehenengo bikoteak irteera 08:30ean egingen du.

Bertzelako ibilaldiekin alderatuta, ibilaldi neurtuak bere berezitasunak ditu. Kasu honetan, ez du lehenbizikoa helmugaratzen edo inork baino lehenagotik amaitzen duenak irabaziko. Bikote guztien denborekin batz-bertzeko bat egingen da eta denbora horretara gehien hurbiltzen den bikoteak irabaziko du.

IZEN-EMATEA

Izena emateko sei euro ordaindu beharko dira bikoteko, eta horretarako aitzinetik Lesakako Koxkila eta Berako Xuga ostatueta izanen da aukera, beti ere ekainaren 4ko 16:00 arte. Hala ere, egunean bertan ere izena emateko aukera izanen da, 08:30etik proba hasi bitarte. Hori bai,

irteera ordena erabakitzerako orduan, lehen-tasuna izanen dute lehendik izen eman duten bikoteek.

Ibilbidean zehar indarrak berritzeko jan-edaneko bi postu izanen dira eta helmugan luntxa eskainiko zaie parte-hartzaileei.

Sariei dagokienean, irabazleek txapela eta oroigarriak etxeratuko dituzte. Eskualdeko bi taldeek elkarrekin antolatzen duten lehenbiziko ekintza izanen da.

Bera eta Lesakako nekazaritza bulegoak

Maiatzetik goiti Bera eta Lesakako nekazaritza bulegoak irekita daude. Berakoak Herriko Etxean du egoitza eta ortzegunetan egoten da zabalik, 12:15etik 13:30era. Lesakakoa, berriz, asteartetan zabalitzen dute, 12:15etik 13:30era.

Toki Onan AHTren aurka

Nafarroako LAB eta STEE-EILAS irakasleen sindikatuek bat egin zuten AHTri desobediencia zibileko Mugitu! Mugimenduak Euskal Herriko ikastetxeetan deituriko Mugitu Egunarekin. Hala, maiatzaren 5ean, Berako Toki Ona institutuko hainbat irakasle eta langilek AHTren aurka elkarretaratzea egin zuten.

mundu guziak ikusteko!

kontzertuak herriko bestak txapelketak komertzioak ...

100 KARTEL A3 KOLORETAN 93 €*

250 KARTEL A3 KOLORETAN 114 €*

* BEZ gabe (%18). Prezioan sartua dago diseinua, inprenta eta garraioa. Epea: 10 lan egun

ttipi-ttapa

ttipi-ttapa
kulturkari@ttipi.net
948 63 54 58

BERA

ARRANTZA → DENBORALDIKO LEHEN EGUNEAN

Zalaingo Jose Mari Mitxelenak atera du 'Lehenbizikoa'

6,400 kiloko izokin ar basatia arrantzatu zuen hilaren 1ean

Aitor AROTZENA

Bidasoko Lehenbiziko izokina ateratzeko ez da aunitzirik esperatu behar izan. Hondarribitarra sortzez, baina aspaldiko urteetan Berako Zalaingo auzoan bizi den Joxe Mari Mitxelena Urrestarazu arrantzaleak 6,400 kiloko pisua

eta 84 zentimetroko luzera zuen izokin arra eta basatia (errepoblaziorako izokinei egiten zaien markarik gabekoa) atera zuen arrantza denboraldia irekitzen zen egunean, maiatzaren 1ean, 09:30ean. Lehenbiziko trepan, presa eta Artxabal artean atera zuen ale ederra.

Mitxelenarentzat hirugarren *Lehenbizikoa* izan da aurtengoa. Lehen egunean arrantzale aunitz ikus zitezkeen Endarlatsa inguruan, bere txandaren espero-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Jose Mari Mitxelenak gustora erakutsi zuen sasoi honetako *Lehenbizikoa*.

an. Juan Otamendi eta Fermin Martinez Martiarena, Berako Ehiza eta Arrantza Elkarteko presidenteak eta idazkariak eman zioten *Lehenbizikoaren* garaiak Joxe Mari Mitxelenari. Gainera, izokinarentzako eroslea ere

topatu zuen. Igeldoko Rekondo jatetxeko Txomin Rekondo Endarlatsan zegoen, bera ere izokin arrantzalea baita eta saldu daitekeen izokin bakarra erosi zuen. Duela bi urte Iruñeko Hartza jatetxeak monopolizatzen zuen Bida-

soko lehenbiziko izokinaren erosketa, iaz Donostiako Urola jatetxeak eskuratu zuen eta aurten Igeldora joan da izokina. Izokina modu aunitzetara prestatzen ahal dela ere aipatu zizun Rekondok, «eta denak goxoak».

IREKI BIDEA EZKERRARI

Bozkatu aralar

BAKEARI EUSKARARI EUSKAL HERRIARI POLITIKARI

KULTURA → SAN ESTEBAN BESTAK PRESTATZEN

Berako Oihua aldizkarirako lanak aurkezten ahal dira

Ekainaren 3an bukatuko da bestetako programan idatziak sartzeko aukera

TTIPI-TTAPA

Urteroko moduan, Sanesteban besten programarekin batera, Berako Oihua aldizkaria banatuko da etxeetan. Bertan artikulatuak idaztera animatu dute Berako Kultur Batzordetik.

Lanak nahi den gai eta luzerakoak izaten ahal dira, eta irudi edo argazki lagundua josten ahal dira. Hauek aurkezteko epea ekainaren 3a (ortzirala) bitarte izanen da. Lanak, posta elektronikoz kultura@berakoudala.net edo kultura.bera@gmail.com helbidetara bidaltzen ahal dira edo, bertez naz, zuzenean Berako Kultur etxera eraman, ahal bada formatu digitaletan. Leku arazoengatik aurkeztutako testu guztiak sartzeko ezinezkoa baldin bada, euskaraz idatzitakoek izanen dute lehentasuna. Testuak euskaraz idaztera animatzen du Berako Udalak.

Testuaren bukaeran egilearen izen-abizenak eta nortasun agiria agertu beharko dira nahitaez. Ez da onartuko pertsona edo talderen pertsona edo irain dezakeen testurik.

Argazki Rallya

Ricardo Baroja ikastetxe publikoak antolatutako argazki rallya egin zen maiatzaren 7an, ikastetxeak berak Kultur Batzordearen laguntzarekin antolatuta. Lehen Hezkuntzako 2. eta 6. maila arteko ikasleak, lau lagunek taldeetan banatu eta argazkiak atera zituzten, gai librean. Orduan ateratako argazkiekin maiatzaren 18tik 20ra argazki erakusketa izanen da Berako Kultur Etxean, 18:00etatik 20:00etara. Maiatzaren 20an, erakusketa bukatzen denean, talde bakoitzak horma-irudia jasoko du eta bertan dauden partaideen artean opari zozketa egingen da.

Hauteskunde sindikalak Funveran

Funvera enpresan bederatzi ordezkari aukeratu zituzten apirilaren 27an eginiko hauteskunde sindikaletan. Bederatzi ordezkariak zazpi lortu zituen ELAK, 75 boto eskuratu. Bertze bi ordezkariak LABek lortu zituen, 26 botorekin.

Musika entzunaldiak

Isidoro Fagoaga udal musika eskolak antolatutako musika entzunaldiak izanen dira maiatzaren 7an piano teklatura, 24an trikitixa eta akordeoia, 25ean perkusioa, txistu eta biolina eta 26an gitarra.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mikel Telletxeak irabazi du azal lehiaketa

Mikel Telletxea Zabaleta beratarrak irabazi du bestetako egitarauaren azal lehiaketa. 9 partehartzailearen artean Telletxeak egindako lana aukeratu du epaimahaiak. Bigarren postua Bixente Tabernak lortu du eta kontrazalean agertuko da bere lana.

BORTZIRIAK

Begirale lan poltsa osatzeko deialdia irekia

TTIPI-TTAPA

Euskara Mankomunitateak aisialdiko begiraleen lan-poltsa osatzeko deialdia egin du. Bereziki, udaleku irekietarako begiraleak kontratatatzeko erabiliko da zerrenda eta eskaerak maiatzaren 20ko 12:00ak baino lehen aurkeztu behar dira Bortziritako Euskara Mankomunitatean (Herriko Plaza 7, 31790 Arantza) edo euskara@bortziriak.org helbide elektronikoa. Deialdia www.bortziriak.org webgunean dago ikusgai.

DIZKALU VOTA **EAI PNV**
KOKU VOTO VOTU
SOKUP VOTUPU

Santi Alzuguren

ONENA EMATEKO GARAIA
EL MOMENTO DE DAR LO MEJOR

BERA

KULTURA → LEHEN HEZKUNTZA ETA DBH-KO IKASLEEN ESKUTIK IZANEN DIRA EMANALDIAK

Mugaz Gain Antzerki Jaialdiak

17. edizioa beteko du aurten

Aizkolariak, bertsolariak eta trikitilariak ere izanen dira

TTIPI-TTAPA

Antzerkia eta Eskolak, Kultur Batzordearen laguntzaz antolatutako XVII. Mugaz Gain Antzerki jaialdiak abiatu dira Kultur Etxean. Aste honetan, maiatzaren 11 eta 12an, DBHko ikasleek txanda izanen da, Iruñeko Iturrama, Barañingo Alaiz, Pasaia-Lezo, Lodosako Pablo Sarasate eta Berako Toki-Ona institutuko emanaldiak izanen dira. Heldu den astean, maiatzaren 19 eta 20an, Berako Lehen Hezkuntzako ikasleek antzezlanak izanen dira ikusgai: ortzegun goizean Jesusen Bihotzako 2. mailakoak eta Rikardo Barojako 5. mailakoak ariko dira. Ortzi-raldean Labiaga ikastolako 5. mailakoak eta Rikardo Barojako 2.ekoak. Arratsaldetan atekak izanen dira.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Hauteskundeentarako zerrendak

Maiatzaren 22ko udal hauteskundeei begira, lantaldeak eta programak aurkezten hasi dira taldeak. Argazkietan Bildu Jose Mari Telletxea buru dela, Aralar Marisol Taberna zerrendaburu dela eta EAJ Santiago Altzugururen buru dela.

BORTZIRIAK

Hiri hondakinen bilketari dagozkion tasak ez dira igoko aurten

TTIPI-TTAPA

Hiri-hondakin solidoen bilketaren zerbitzuari dagozkion tasa aurten ez igotzea erabaki du Bortziritako Hiri Hondakinen Mankomunitateak. 2010eko urriaren 25ean hartu zuen erabakia Mankomunitatearen juntak, aho batez. Bertaldez, 2011ko lehen urte erdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak egun hauetan kobratzekoak dira eta horretarako epea hilaren 31n bukatuko da. Ordaintzen ez bada, ekainaren 30era luzatuko da eta hori pasatu ondotik, %20ko errekariguarekin kobratuko da. Erabiltzaileen eta tasen maila zehatzak, bilketakoak nahiz tratamendukoak, 15. orrialdeko iragarkian topatuko dituzue eta xehetasun gehiago 948 635254 telefonora deituz.

fitotecnia
www.fitotecnia.es

- Aholkularitza teknikoak
- Lore hari eta bulboak
- Luma
- Produktu fitosanitarioak
- Herbizidak
- Baratzeko landare eta haziak
- Sasoineko loreak
- Grow shop
- Fungizidak
- Akarizidak
- Abonoak

Bidasoa, 66 | Bera (Nafarroa)
(0034) 948 631 333 | fitotecnia@fitotecnia.es

BOZZ-AID
LUBOZKIDETZAN
948 630 756 • LEZAMA

JARRIE-GOZTEGIA
948 630 756
Altzale, 10 • BERA

FRUTUEN BARRIOA
FRUTUEN BARRIOA, S.L.
FRUTUEN BARRIOA BARRIOA
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
948 630 018
Tfno/Fax: 948 630 018
Kanttonberri 12 • BERA

ELKARTEA → HILABETERO ATERALDI BAT EGINEN DA

Santiago Bideko lau etapa eginen ditu Beti Gazteko mendi taldeak

Igande honetan Baiona eta Zuraide artean ibiliko dira

Aitor AROTZENA

Beti Gazte elkarteak mendi taldeak ekimen berezia antolatu du datorzen hilabetetarako: Donejakue edo Santiago Bidearen zati bat eginen dute, hilabetean etapa bat eginez. Lehenbizikoa igande honetan, maiatzaren 15ean eginen dute, Baiona eta Zuraide artean (24,75 km). Lehenbiziko ateraldi honetarako autobusa antolatu dute. 07:15ean abiatuko da Plaza Zaharretik eta 18:00 aldera itzuliko da. Hurrengo hilabetean Zuraide-Elizondo (29,70 km), Elizondo-Lantz (25,13 km) eta Lantz-Iruña (27,94 km) eginen dituzte. Lehenbiziko ateraldi honetan izaten den erantzunaren arabera erabakiko da hurrengoetan autobusa antolatu edo kotxetan joan.

San Ferminen ateraldia

Maiatzaren 19an ateraldia antolatu du San Fermin Elkarteak.

08:00etan abiatuko dira Lesakatik eta bideango saldu ondotik, Lizarra bixitatuko dute eta egun horretan azoka izaten dela ere aprobetxatuko dute. Handik Barindanora joko dute eta Urederraren sorbururaino txangoa eginen dute. Bazkal ondotik, Urbasa eta Altsasun barna Lesakara bueltatuko dira. Bidai honetarako eta egun horretako bazkarirako txartelak 20 eurotan salgai daude maiatzaren 15era bitarte. Dena den, aitzinetik autobuseko lekua betetzen badira, orduan itxiko da izen emate epea.

Bertze aldetik, maiatzaren 24 eta 25ean, elikadurari buruzko solasaldiak antolatu ditu San Ferminek, Sandra Legasa dietistaren eskutik. 17:00etatik 18:00etara eginen dira saioak egoitzan. Bertan parte hartzeko interesa dutenek lehenbailehen eman beharko diote izena ostutuko arduradunari.

Irakurketa Kluba

Irakurketa Kluba hilabete honetan 14an eta 28an bilduko da Udalak Koskonta Bideko 7.ean duen egoitzan, 19:00etan.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Bilduri babesa emateko elkarretaratzea

Eskubide guztien alde, ilegalizaziorik ez! izenburupean elkarretaratzea egin zen maiatzaren 3an Plaza Zaharrean. Bilduko zerrendakideek kontu zuten pankartaren gibelean ehun bat lagun elkartu ziren, tartean maiatzaren 22ko hauteskundeetara aurkeztuko ez diren Onin udal taldeko kideak eta hauteskunde horietarako PSNko zerrendaburu izanen den Carlos Aitor Yuste ere. Hauteskundeetan aukera guzietan parte hartzeko eskubidea aldarrikatu zuten.

DOZKATU VOTA EAJ PNV
ZUKU ETA GURE ZERBITZUAK
José Luis Etxegarai
Lesaka Lesaka
ONENA EMATEKO GARAIA
EL MOMENTO DE DAR LO MEJOR

XATURETXEA
JATETXEA
T. 948 637 260 - LESAKA

IRU BIDE
Tel. 948 637 127

ETXALAR

ARTE MARTZIALAK → NAFARROAKO TXAPELKETA

Emaitza onak lortuz fin ibili dira herritarrak Kenpo Kai txapelketan

Lehen, bigarren eta hirugarren postuak eskuratu dituzte

Iruñe eta Itsaso

Kenpo kai gure artean indar handia hartzen ari den arte marziala du. Gure inguruan borts klub ditugu: Berakoa, Urdazubikoa, Etxalarkoa, Elizondokoa eta Doneztebekoa. Apirilaren 3an Beran egin zen Nafarroako Kenpo Federatu 2011 txapelketa eta bertze herritakoekin batera Etxalarko hainbat haur, gazte eta gurasok parte hartu zuten. Nafarroa guztiatik 120 parte-hartzaile eta 15-20 arbitro izan ziren.

Banaka modalitate hauetan aritu ziren: *Kata* (esku hutsik), *Kobudo* (armak erabiliz), *Goshin waza* (babes pertsonaleko teknika), *combate al punto* eta *combate semicontacto continuo*. Txa-

pelketa honek Espainiako Kenpo Kai federatu txapelketarako sailkatzeko balio izan zuen.

Hauek izan ziren Berako emaitzak: **kata benjaminetan**: 1. Unai Arburua, 2. Niko Garcia eta 3. Mikel iturria. **Kata infantiletan**: 2. Goiatz Jaurregi. **Kata helduetan**: 2. Mikel Lekuona. **Benjaminetan armekin**: 1. Nico Garcia eta 3. Unai Arburua. **Armekin alebitan**: 3. Ainhoa Telle-



ARGAZKIA: IRUÑE ELIZAGOIEN

Modesto irakaslearekin kenpo kain aritzen diren herritarrak ez dira gutti.

txea. **Emakume helduetan**: Minerva Martin garraile. **Armak erabiliz gizon helduetan**: 2. Edorta Iturria. **Gizon helduen dentsa pertsonalean**: 2. Edorta. **Punto borrokan kadeteetan**: 1. Goiatz. **Gerriko marroi eta beltzen arteko punto borrokan**: 2. Edorta. **Gerriko marroi eta bel-**

tzen arteko combate semicontacto continuo Edorta garraile.

Lurritiederrako bestak

Maiatzaren 1ean Lurritiederra auzoan urteko besta ospatu zen. 70 lagun inguru bildu ziren bazkaltzera eta ondotik Miren eta Izaro trikitila-

riek bazkalondoa alaitu zuten.

Igerilekuko lanak

Udal igerilekuen funtzionamendu, garbiketa eta mantenimendu lanak egiteko bi langile kontratatzeko deia egin du Udalak. Hilaren 13an, 14:00-etan bukatuko da eskaintzak aurkezteko epea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Talde abertzale, euskaldun eta ezkertiarra

Izen berriarekin baina esperientziadun jendea bildu direla erranez aurkeztu dute Etxalar Aintzinerat taldea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Independeteen lantaldea

Arantxa Zubieta buru dutela, Etxalarko Independenteek ere euren lantaldea aurkeztu dute.

Bozkatu!



etxalaraintzinerat





Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatea

Jakinarazten da

2011ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

2011ko TASAK

ERABILTZAILEEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	€/urteko
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez	76,40 €	44,50 €
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak	65,00 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak	53,50 €	
1. Merkataritza eta zerbitzuak. Elikagaien eta etxetresna sektorekoak ez direnak: Mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ileapaindegia, lan bulegoak	76,40 €	NAFARROAKO HIRI HONDAKINEN TRATAMENDU-RAKO PARTZUERGOA 2011ko tarifen zenbatekoak eta aplikatutako irizpideak 2010eko abenduaren 13ko 151. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ikus daitezke. Dena den, erabiltzaile bakoitzak jasoko du horien zehaztasuna bere etxean.
2. Merkataritza. Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari dendak), etxetresna dendak eta farmaziak	150,00 €	
3. Merkataritza. Autozerbitzuak	228,80 €	
1. Ostatua. Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m ² ko edo gutxiagoko azalera dutenak	152,50 €	
2. Ostatua. 30m ² baino azalera handiagoko ostatuak eta janari denda daukaten ostatuak	305,30 €	
3. Ostatua. Pub eta diskotekak	381,30 €	
1. Jatetxea. Modu iraunkorrean irekiak dauden Elkarte gastronomikoak, eta 5 mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak	381,30 €	
2. Jatetxea. Bortz mahai baino gehiago dituzten jatetxeak	686,60 €	

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	€/urteko
Landetxeak.	153,00 €	NAFARROAKO HIRI HONDAKINEN TRATAMENDU-RAKO PARTZUERGOA 2011ko tarifen zenbatekoak eta aplikatutako irizpideak 2010eko abenduaren 13ko 151. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ikus daitezke. Dena den, erabiltzaile bakoitzak jasoko du horien zehaztasuna bere etxean.
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	130,10 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak	107,10 €	
1. Hostala. 10 logela edo gutxiagokoak	533,70 €	
2. Hostala. 10 logela baino gehiagoak	762,60 €	
Merkataritzako saltokiak, opariak bakarrik saltzeko	380,80 €	
Merkataritzako saltokiak, janaridenda edota ostatudunak	762,60 €	
Merkataritzako saltokiak, jatxedunak	1.143,90 €	
Lantegiak, lau langile bitarte	76,40 €	
Lantegiak, 5-10 langile bitarte	152,50 €	
Lantegiak, 11-30 langile bitarte	381,30 €	
Lantegiak, 31-60 langile bitarte	762,60 €	
Lantegiak, 60-150 langile bitarte	1.143,90 €	
Lantegiak, 150-300 langile bitarte	2.167,60 €	
Lantegiak, 300 langile baino gehiago	3.195,00 €	
Norberaren erabilerarako edukiontzia	741,10 €	

ORDAINTZEKO ERA

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

ORDAINTZEKO EPEA

- 2011ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2011ko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekarguarekin kobratuko da.

Bortzirietan, 2011ko apirilaren 1ean

Presidentea,

Patxiku Irisarri Elizagoien

IGANTZI

MENDIA → DEIALDI BERRIA

Igerilekuko lanak esleitzeko hirugarren deialdia egin du Udalak

Orain arte ez da inolako eskaintzarik aurkeztu Herriko Etxean

DATUA

2.000

EURO

Prezio hori finkatu du Udalak igerilekuko lanak esleitzeko hirugarren deialdian. Prezioa igo egin behar izan du.

deialdi honetan 2.000 euro tara igotzea erabaki duela.

Mendi irteera

Aitzineko aldizkarian aipatu bezala, larunbat honetarako, maiatzak 14, Igantzitik Etxeberzekobordara joateko mendi ateraldia antolatu du Biltoki elkarteak. Bozpasei orduko itzulia izanen da eta 07:00etan abiatuko dira herritik. Behin harat ailegatuta, denek elkarrekin bazkalduko dute.

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 11n hasi eta irailaren 11n bukatuko den igerilekuko denboraldiari begira segitzen du Udalak. Igerilekuko mantenimendu, garbiketa eta funtzionamendu lanak egiteko bi deialdi egin zituen bere garaian, baina eskaintzarik aurkeztu ez zelako, hirugarren deialdi bat egin behar izan du.

Eskaintzak aurkezteko azken eguna ortziral hau, maiatzak 13, izanen da. Udaletxera eraman beharko dira proposamenak.

Aipatzekoa da, bertalde, Udalak hasierako prezioa 1.750 eurotan zuela jarria (BEZ-a barne), baina hirugarren



ARGAZKIA: IGANTZIKO ESKOLA

Herri Kirol Jolasak

Nafarroako Herri Kirol Jolasetan, Unanu taldea txapeldun izan da, eta dominak soinean eta txapela eta oroigarria aitzinean dituztela ageri dira argazkian, kirol jolasetan parte hartu duten herriko bertze taldekoekin batera, Abelu taldekoekin.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Igantzitik Otsagabiarako bidea egin dute 18 lagunek bizikletaz

Apirilaren 30ean egin zuten Biltoki Elkarteko bizikleta taldekoek urteko irtenaldirik nagusienetako bat. Iaz Inurrietak Faltzesen duen upategira egin zuten txangoa eta aurten bidaia pixka bat gogortu zuten, Otsagabiara joanez. 07:00etan abiatu ziren Elkartetik eta Artesiagan barrena egin zuten lehenbiziko zatia. Gero Zubiritik Auzperrira joan ziren Errotik pasatuz, eta, handik Abaurrean barrena Otsagabiara. Indartsuenen taldetxoak, berriz, Urepeletik luzatu zuen itzulia Sorogainera ateraz, ibilbidea gehiago gogortuz. Autobusa joan zitzaien gibeletik bertze 17 lagunekin eta bertako sagardotegian bazkaldu zuten denek elkarrekin. Eguraldi bikainarekin ibili ziren denak, ibilbidea eskaintzen duen ikuskizunaz gozatuz. Heldu den urtean berriz Erribera aldera joateko asmoz itzuli ziren herrira, iazko ibilbidea aldatuz akaso.

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

BAR Botxo OSTATUA
Zalain • BERA • 948 630 052

TATANKA MOTOS

UDABERRIKO ESKAINTZA
Factory Bike
%35eko deskontua azkeneko unitateak

Salmenta | Konponketa | Osagarriak
T. 948 638 299

F. LANCHAS

Akudialorea eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzaila
Jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

carbo
geologia olindegi

Pl. de Estegana 25 bajo
31700 Berastain
1.948.630.999
www.carbo.net

MENDIA → UDABERRIKO IBILALDIA

Maiatzaren 28rako Goizuetara mendi ibilaldia antolatu du Ekaitza Elkarteak

Oinez joan ondotik bertakoek prestatutako bazkaria izaten da elkartearen

Nerea ALTZURI

Iaz, herriko mendi ibilaldia izan zen eta aurtengo Goizuetara ateraldia tokatu da. Aspalditik goizuetarrek harreman estua dago herrian eta bi urtetik behin, bertara oinez joateko ateraldia antolatzen da udaberrian.

Aldi honetan, maiatzaren 28an izanen da eta ohi bezala, goizean goiz abiatu eta bazkal tenorerako bertan izanen dira animatzen direnak. Umore Ona elkartearen bazkaldu eta arratsaldean autobusa hartu eta etxeruntz itzuliko dira. Eguraldia ez dago

antolatzaileen esku, baina ziur urtero bezala umore eta giro ederrak ez duela hutsik egiten aranztar eta goizuetarren topaketa honetan.

Parrokiko berendua eta bidaia

Eliza garbitzen ibiltzen direnentzat berendua eta bidaia antolatu ditu parrokiak. Berendua Zahar Txokon egitekoa zuten maiatzaren 10ean. Eta biharamunean, Lizarraldera egitekoak ziren bidaia igantziarrek. Done Jakue bidearen xehetasunak ezagutu eta Abarzuzako Azanza patxaran fabrikara bisitan joatekoak ziren.

Hauteskunde mahaia

Hilaren 22ko hauteskundeetan hauek izanen dira mahaian egonen direnak: mahaibu-



UTZITAKO ARGAZKIA

Bilduren lantaldea

Jaime Iturria zerrendaburu duela hau da Bilduren izenean osatu den taldea.



ARGAZKIA: PATXI ITURRIA

Hasi da onddo denboraldia

Larrainkordako familiak onddo eder hauek bildu zituen maiatzaren 4an. Irudian Karnele, Aiora eta Oihan ageri dira etxean bildutako onddoak eskuan dituztela.

rua Maite Goñi Otxoteko izanen da, lehen mahaikidea Maribi Apeztexea Aizpurua eta bigarrena Oskar De Rueda Leiza.

Ordezkoen zerrenda hauek osatuko dute:

mahaiburuaren lehenbiziko ordezkoa Iñaki Alustiza Navarro izanen da eta bigarren ordezkoa Igor Oskoz Errandonea. Lehen mahaikidearen lehenbiziko ordezkoa Jose Inazio Fagoaga Ber-

gara izanen da eta bigarren ordezkoa Idoia Alkorta Gorostidi. Bigarren mahaikidearen lehenbiziko ordezkoa Ines Gonzalez Burgete izanen da eta bigarrena Pili Etxeberria Madariaga.

aterpe
Altegiak | Jantziak | Baserriak

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

Martiko
Poi Zorain, s/n.
31170 Bera, Nafarroa
Tel. 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com

Altegiak dituzten eta onddoak

Martikorekin
zu zeu
sukaldari.

DENDA
ORDUTEGIA
ASTELEHENETIK
ORTZIALERA
08:00etatik
17:00etara

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanoak desde
1940

Alzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

SUNBILLA

IDIAZABAL GAZTA → ZAZPIGARRENA SEGIDAN

Kalitate eta erregulartasun saria eskuratu du Lizun gaztandegiak zortzigarren aldiz

Azken zazpi urteotan segidan irabazi du saria

Maider PETRIRENA

Ez behin eta ez bi aldiz. Dagoeneko zortzi aldiz eskuratu du Lizun gaztandegiak Idiazabal Gaztaren kalitate eta erregulartasun saria: azken zazpi urteotan jarraian ekarri du etxera diploma eta horiez gain, 1997an lortu zuen lehenbizikoa.

Apirilaren 28an egin zen Ordiziako XVII. Artzain Eguna eta orduan zabaldu zen Euskal Autonomia Erkidegoan Idiazabal Gaztaren denboraldi berria. Han jaso zuen Arkaitz Vicentek saria. Maiatzaren 4an, berriaz, Nafarroako denboraldia abiatu zen Lizun gaztandegikoek eta han ere hartu zuten saria.

Erregulartasunaren saria emateko urte guztiko gaztak emandako maila hartzen da kontuan. Horretarako, urtean zehar hainbat probaketa egiten dira.

20.000 KILO GAZTA

Urtean 20.000 kilo gazta produzitzen ditu Lizun gaztandegiak eta inguruko artzainek emandako esnearekin egiten dute. Baserrian 100 ardi paratu berriak

dituzte eta etorkizuneari artaldea haunditze-ko asmoa ere badute.

200 bazkide Ulibeltzak elkartearen

Ohiko bilkura egin zuen Ulibeltzak Elkarteak apirilaren 30ean eta hainbat puntu izan ziren aipagai. Alde batek, lau bazkide berri sartu dira: Aitor Altzuri Aioroa, Imanol Apeztegia Larroque, Xabier Arretxea Migelena eta Jon Juankorena Iparragirre. Eta horiekin 200 bazkideetara ailegatu da Ulibeltzak Elkartea. Dena den, lerro hauen bidez, jendea animatu nahi da, bazkide gehiago sar daitezten.

Bertzalde, aurten juntu aldaketa egitea tokatzen zen, baina aurreko juntuak urte bat gehiago uzteko eskatu zuen. Denek baietza eman zute-



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

Artzain amerikanoen besta

Urtero bezala, Ameriketako artzain ibilitako kuadrilla ederra elkartu zen maiatzaren 1ean Ariztigain kanpinean. Hildako lagunen aldeko mezaren ondotik, bazkaria izan zuten kanpinean eta lurrarpian egositako ogia jateko aukera ere izan zuten.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Aste Santuko prozesioa

Aste Santuko ortziralarekin, apirilaren 22an, prozesioa egin zen herrian barna.

nez, aurreko juntuak segituko dute bertze urtebetez. Lehendakaria Raket Urtxegi Gelbenzu izanen da; lehendakariordea Edurne Urroz Agesta; idazkaria Miren Hernandorena Ibarra; di-

ruzaina Maider Petrirena Gorosterrazu eta gaitontzeko lauak bokalak Edurne Zubieta Almanoz, Maria Jesus Iriarte Irueta, Maria Jesus Rerkarte Elizondo eta Josune Anzizar Elizondo.

Elkarteko obrak ere izan ziren hizpide. Proiektua bi fasetan egingen da eta erabakitakoaren arabera, lehenbiziko fasean insonorizatu eta sukaldia eta saneamendua berrituko dira.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

elika

Dietetika eta elikadura

- Ahulkerantz dietetika eta nutriazioa
- Dieta periferikoak
- Gaiturazko konposizioaren azterketa
- Elikadura fisioterapia

Osatu osurik ez! Ezkerreko eguraldi arazoak, traxadura orokorak eta infektzioak, hipertentsioa, arazoak...

Iciar Andueza Larra
Itza, 6 beheko - BERA - Tel. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

ZUBIONDO

Jatetxea

Agardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Tel. 948 631 474

DIRULAGUNTZAK → NAFARROAKO GOBERNUAK

Langabeak kontratatzeko 400.000 euro inguru banatuko Gobernuak

Interes orokorra eta soziala duten obra eta zerbitzuetarako izanen da

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Lan Zerbitzuaren bitartez, 403.178,98 euro bideratuko ditu Nafarroako Gobernuak, udalen, mankomunitateen eta kontzejuen hainbat proiektuetara. Langabeak kontratatzeko izanen da dirulaguntza hori, eta Baztan, Bertziarana, Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldean zehazki 27 proiektu onartu dira. Ere mu horietarako izanen da aipatutako dirua.

Langabeak kontratatu ondotik, herriz herri eginen diren obra gehienak karrika, lorategi eta eraikin publikoen egoera hobetzeko edo mantentzeko izanen dira.

Nafarroa osoan, 232 proiektu izan dira diruz lagunduak eta horietarako 4,5 milioi euro banatuko ditu Gobernuak.

DIRULAGUNTZAK HERRIZ HERRI

HERRIA	OBRA EDO ZERBITZUA	DIRULAGUNTZA
ARANTZA	Udal eraikinetan, herriko karrketan eta bideetan lanak	14.292,52 €
ARESO	Zehaztu gabe	11.423,50 €
BAZTAN	Erabilera anitzetarako bi langile kontratatu	29.126,08 €
B. LABAIEN	Hormigoizko pareta, bidean hormigoia bota, biltegiari estalkia aldatu...	17.225,00 €
BERA	Ondarea birbaloratzeko lanak	25.271,94 €
	Informazio eta turismo bulego zerbitzua	12.241,54 €
BERTZIARANA	Erabilera anitzetarako langilea	8.484,00 €
DONAMARIA	Udal igerilekurako soroalea	4.441,54 €
	Golbai ehiza postuen eta Herriko Etxearen aitzinaldea egokitu	15.233,46 €
DONEZTEBE	Oztopo arkitektonikoak kendu, hezkuntza zentroetan udako lanak	35.075,00 €
ETXALAR	Eraikin eta instalazioetan egokitze lanak, lorategietako lanak	21.775,00 €
	eta bideak kontserbatu	9.616,18 €
IGANTZI	Igerilekuko soroaleak	11.283,82 €
	Herriko eraikinen mantenimendu lanak	
ITUREN	Bideak moldatu eta garbitu eta hainbat zaharberritze eta margotze lan	13.756,06 €
LEITZA	Eraikinak txukundu, seinalizazio bertikalak, galtzadarriak zaharberritu, arketak, eremu berdeak...	31.425,16 €
LESAKA	Erabilera anitzetarako langile bat kontratatu	13.868,44 €
OIZ	Herriguneko karrika berreskuratu, autobus geltokia eraiki, bide eta pisten mantenimendu lanak eta bertzelako mantenimendu lanak	17.750,00 €
SUNBILLA	Eskolako jantokia	13.333,44 €
URDAZUBI	Erabilera anitzetarako langile bat kontratatu	11.189,98 €
URROZ	Herriko Etxeko leihoak eta ateak egokitu, karriketako zola moldatu, bideak hobetu eta ezpondak babestu	16.629,80 €
ZUBIETA	Jarduera sozio-kulturaletarako langabeak kontratatu	17.662,56 €
ZUGARRAMURDI	Erabilera anitzetarako langile bat kontratatu	15.985,64 €
LEGASA	Kontzejuarenak diren ondasunetan mantenimendu lanak egin	13.808,00 €
NARBARTE	Eskolako jantokirako langilegoa hartu	2.374,98 €
MALERREKAKO MANK.	Euskara teknikaria kontratatu	3.923,30 €
	Administrari laguntzailea kontratatu	6.920,06 €
BORTZIRIETAKO MANK.	Urteko plangintzaren hainbat lan egin eta bulegoa lekuz aldatzeko lanak	9.061,98 €
GUZTIRA		403.178,98 €

SUKALDEKO OLIOARENTZAT EDUKIONTZI

- Gaikako bilketa zerbitzua zabaldu eta hobetzeko, erabilitako sukaldeko olio biltzeko edukiontzi berriak jamko ditugu kalean.
- **Kokapena:** Elizondoko Salvador eta Aldudes kaleetan. Inurita: Berueta-Ziga errepidean. Arizkun: Herriko plazan. Doneztebe: Merkabako plazan eta Aparan industrialdean. Sunbilla: Ramon Latasa plazan. Narbarte: Frontoian-trinketean. Bera: Agerra auzoan, Iturlandeta auzoan eta Ezdegara kalean (institutoa). Lesaka: Eitzeta kalean (Alprox) eta Arretxea kalea, 6. Igantzi: Aparkalekua-bus geltokian. Arantza: Herri sarrerako aparkalekuan. Etxalar: Herri sarrerako aparkalekuan.

BERRIA!

BAZTAN, MALERREKA eta BORTZIRIAK



- Sukaldeko olio bakarrik utzi. EZ kotxeakoa, ezin baitira nahastu!
- Olio ondo itxitako ontzietan utzi behar da edukiontzi barruan.
- Olio hau biodiesel bihurtuko da birziklatu ondoren.



HOSTALARITZA ZERBITZUA
Informazioa
902 366 251
www.ecogras.es

Lehen eta azken koloreko berrak: E2104004
Hortan erabiltzen gaituzten koloreko berrak: E2113100



DONEZTEBE

MENDIA → ERREKA KIROL ELKARTEAREN ESKUTIK

Buzoi berritua hilabete honetan paratuko du Errekak Bonozorrotzen

Juanjo
Larunbek doan
egin ditu
konponketak

runbek egin ditu konponketak eta batere kobratu gabe, gainera. Lerro hauekidazterakoan eguna zehaztua gabea bazen ere, ondoko asteetan paratuko da bere tokian.

Ikastaroak dohainik

Enpresei eguneroko gestioan laguntzeko eta sare sozialen bidez Interneten zabaltzeko, ikastaroak antolatatu ditu CedernaGa-

TTIPI-TTAPA

2000tik Erreka Kirol Elkarteak Bonozorrotzen gainean zuen buzoia hautsita aurkitu zuten iazko urri aldera. Penaz hartu zuen berria elkarteak, baina dagoeneko konpondu egin du. Elkarte-kide den Juanjo La-

Ba al zenekien...

www.erreka.org Erreka Kirol Elkartearen blogak 130.000 bisita baino gehiago izan dituela?



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Xabier Maiari agurra

Azken hiru denboraldi hauetan, Doneztebe Futbol Taldeko entrenatzaile izan den Xabier Maiak atsedena hartzea erabaki du. Bere agurra zela eta, apirilaren 30ean afaria egin zuten argazkian ageri diren lagunek.

ralur elkarteak. Lehenbizikoa maiatzaren 10, 12, 17 eta 19an izanen da, *enpresa marketina eta blogak sortu* izenburupean (09:30-12:30).

Bigarrena enpresa tiki eta ertainetan kosteak kudeatzen ikasteko izanen da, hilaren 11n eta 13an (09:30-12:30). Hirugarrena *marketin turistikoa eta blogak sortu* izanen da eta hilaren 16an, 18an eta 20an eskainiko da, (09:00-13:00). Bertze ikastaro bat fakturazio eta kobrantzen kudeaketari buruzkoa

izanen da, maiatzaren 18an eta 20an emanen da (09:30-12:30). Azkena enpresa marketinaren eta sare sozialen ingurukoa izanen da. Hilaren 24an eta 26an eskainiko da, (09:30-12:30).

Denak ere dohainik izanen dira, Nafarroako Mendialdeko PDRK finantzatuak baitira.

Izena emateko deitu 948 206697ra edo idatzi info@cederna.es-era.

Merkatariak pozik

Lehenengo urtean baino jende guttiago ibili

bazen ere, Doneztebarrak Merkatarien Elkarteak «balorazio ona» egin du apirilaren 30eko Merkatariek Karrikan ekimenaz eta egindako salmentarekin kontent gelditu dira.

Eguraldi ederra izan zuten bildutakoek, eta horrez gain, postu batzuk Santa Luzia plazan egon zirenez, jende elkartuagoa egon zen eta horrek giroan lagundu zuen. Haurrek, berri, jokoetan ongi partatzeko aukera eduki zuten.



ARGAZKIA: MIREN MARTIN

Hiru adarreko azenarioa

Ez dira egunero horrelakoak ikusten, ez horixe. Baina Etxegorri baserriko baratzean, hiru adarreko azenarioa aterata da. Platera gehiago beteko du honek.

Muebles 
Telletxea

Rosa Seminario, 12 • DONEZTEBE
T. 948 450 258 • 948 451 811
info@mueblestelletxea.com
www.mueblestelletxea.com

**OUTLET
LIKIDAZIOAK**

GANBARA

ALTZARI MODERNOAK

2. SOLAIRUA

ALTZARI RUSTIKOAK

1. SOLAIRUA

Denda berrantolatu dugu

ITUREN

IRAKASKUNTZA → IKASBIDAIA

Eskola ibiltariak egitasmoan parte hartuko dute herriko eta inguruko ikasleek

Gran Canaria irlan izanen dira maiatzaren 22tik 28ra

Arkaitz MINDEGIA

Ituren, Saldias, Eratsun eta Beintza-Labaiengo Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako hamabortz ikasleak eta bi irakasle laguntzailek Gran Canaria irlan joanen dira maiatzaren 22tik 28ra, Eskola Ibiltariak egitasmoaren barrenean.

Iturengo eskolako bederatzikasle (Hodei, Ane, Zuriñe, Duba, Gurutze, Iratxe, Andoni, William eta Mikele), Saldiasko bi (Julen eta Ibai), Beintza-Labaiengo hiru (Aintzane, Mireia eta Javier) eta Eratsungo Jasone joanen dira, irakasle laguntzaile Sal-

diasko Koldo eta Iturengo Mixel dituztela.

Maiatzaren 22an abiatuko dira hegazkinenez Bilbotik Gran Canariako Las Palmas hiriburura. Han, Madril eta Cuencako bi ikastetxetako bertze 30 ikaslerekin eta lau irakaslerekin elkartu eta 45 ikaslez osaturiko talde bakar bat izanen da astebe- tez.

Bidaia hau Escuelas viajeras-Eskola Ibiltariak egitasmoaren barrenean dago. Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak eta erkidego autonomoetako Hezkuntza Departamentuek antolatzen dute, Espainiako komunitate bat ezagutu eta, modu berean, bidaia lagunak izanen diren bertze bi erkidegoetako ikasleekin harremanak sustatzea eta esperien-



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskola bidaiarietan parte hartuko duten ikasleak eta bi irakasle laguntzaileak.

tziak elkartrukatzea dira helburu nagusiak, Mixel Gereka irakasleak aipatu digunez. Eskolako curriculumetako gaiekin loturik doaz bertan jorratuko dituzten edukiak, baina bidaia bat denez, ezaugarri ludikoak eta aisialdikoak ere ez dituzte bazterrean utziko, noski. Beraz, ikasleak hasiak dira atzerako kontua eginez eta egunak kontatzen hasi dira dagoeneko, ilusioz beteak eta poza- rren pozez.

Herriko Ostaturia berriz zabalik

Inauteriak pasata itxi zen Herriko Ostaturia eta geroztik Udaletxeak herriaren deialdia zabaldu zuen eta bai Nafarroako Aldizkari ofizialean iragarkia jarri. Oraingo nagusi berriak Urko Villaba Galan eta Eloisa Castro izanen dira. Erreforma tiki batzuk egiten ari dira (pintatzen, garbitzen...) eta hilabete honetan irekiztea espero dute.

Osasun Kontsultarako dirulaguntza

Osasun kontsulta akitzeko Nafarroako Gobernuak azken fasea egiteko dirulaguntza eman dio Udalari. Orain arte bi diru partida jaso eta inbertitu dira eskola zaharrean, denetara 135.577,4 euro (bat 51.187,40 eurokoa eta bertzea 84.390 eurokoa). Eta azken fasarako 90.405 euro jaso ditu Udalak.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESACA: Simitria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

KATEA-BIKE

KULTURA → PLAZAN EDO ESTALPEAN

Doneztebeko Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute

Hilabete bukaeran edo ekain hasieran egingen dute

Fermin ETXEKOLONEA

Musika eskolatik atera eta ikasturte osoan ikasitakoa jendaurrean erakusteko asmoz, Doneztebeko Agorreta Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute gure herrian. Lerro hauek idazterakoan oraindik eguna erabaki gabea zen, baina azken orduko aldaketarik ez bada, hilabete bukaeran edo ekain hasieran egingen da, arratsalde batez. Dena den, hori aurrerago zehaztuko dugu. Eguraldi ona egingen badu, plazan egingen da eta txarrarekin estalpean.

Herriko Ostatua zabalik

Azken aldia zurrumuruak zabaldu dira Gorka Fuentesek Herri-

ko Ostatua itxi duela edo ixteko asmoa duela esanez. Baina jendearen esanak baino ez dira, Herriko Ostatua zaba-

lik dagoelako. Gainera, Gorkak argitu digunez, ez du ixteko asmorik eta jendea lasai ederrean joan daiteke ostatura.



ARGAZKIA: FERMIN ETXEKOLONEA

Aingeru-itturri estalkiarekin

Urte askotan estalkirik gabe egon ondotik, teiltua paratu diote herritarrek Aingeru-itturiri. Garai batean estalkia izaten zuenez, auzolanean berriz ere jartzea erabaki zen eta halaxe egin zen apirilaren 16an. Materiala Udalak jarri zuen eta herritarrek eskulana egin zuten.

Aingeruak maiatzean

Ohiturari segituz, aurten ere maiatzeko igandeetako mezetan loreak eskaintzen ari dira herriko sei neska. Bittori Erasun laguntzaile dutela, Karmele Santesteban, Mikele Etxekolonea, Naroa Santesteban, Naiara Anso, Garaiz Santesteban eta Ixone Elizalde ari dira.

Joaldunak harat honatean

Herritik atera eta Euskal Herriko txokoak bisitatzen hasiak dira berriz joaldunak. Biarritzen eta Itziarren izan dira berriki eta uda hurbiltzen doan heinean, gehiago egingen dituzte, joare soinuekin batera herriaren izena han eta hemen hedatzen.

- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda andueza

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

BEINTZA-LABAIEN

MENDIA → HIRU KATEGORIATAN EGIN DA IRTEERA

Taldetan banatuta 40 bat lagunek egin dute Urradirako bidea

Maila bakoitzean lehenbiziko helmugaratuek sariak jaso dituzte

Amaia MINDEGIA

Mendi ateraldia egin zen apirilaren 23an. Urradi mendira goratu ginen herritar batzuk bertze batzuen artean.

Hiru taldetan banatuta abiatu ginen Urradi aldera: emakumezkoak alde batetik, 40 urtetik gorakoak bigarren taldean eta 40 urtez azpiko gizonetzkoak azken multzoan. Multzo bakoitzetik lehenbiziko ailegatu zirenek sariak eskuratu zituzten. Kategoría bakoitzeko irabazleak hauetxe izan ziren:

Emakumezkoetan, Eurne Huizi eta Arantxa Etxeberria elkarre-

kin ailegatu ziren. 40 urtetik gorakoetan, Javi Escalada ailegatu zen lehena eta 40 urte azpitiko gizonetzkoetan, Iñaki Telletxea.

Garaileek urdaiazpikoa, bina txorizo eta egun horretako Ittur-On do elkartearen ginen genuen bazkaria eraman zuten sari moduan. Mena hainbesteko fama duten herriko eltzari gorriak, bildotsa txilindron erara eta kostillak izan zen. Postreko mazedonia eta herriko gazta.

Arratsaldean mus txapelketa izan zen; hainbat bikotek hartu zuen parte eta horien artean irabazleak Jacinto Etxekolanea eta Jose Luis Lekunberri izan ziren.

Eguraldi paregabea izan genuen eta 40 bat lagun juntatu ginen. Egun arrunt polita, bai horixe! Ea heldu den urtean horrelako zerbait antolatzen den berriz!



ARGAZKIAK: TXOMIN KARRIKIRI ETA ARANTXA ETXEBERRIA

Lagun talde ederra elkartu zen apirilaren 23an Urradira joateko. Beheitiko argazkia, berriz, arratsaldean egin zen mus txapelketakoa da.



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Giro eta eguraldi ederrarekin haurrak gaztain ximaletan

Ez da oraingo kontua Aste Santuko ortzegunarekin Beintzan gaztain ximaletan ibiltzeko dagoen ohitura. Eta aurten ere halaxe egin dute neska-mutikoek: meza ondok karrakak eskuetan hartu eta etxez etxe ibili baitziren apirilaren 21ean. Karrakekin ibiltzeaz gain, eskea abesti batek lagunduta egin zuten: *gaztain, gaztain ximalak, andreak elizera, gizonak tabernera, apeza txokoltea hartzea ta haurrak haurtar!* kantatuz. Abestiaren ordainetan, bizilagunek goxokiak, globoak, dirua, intxaurrak, urrak... eman zizkieten haurrei.

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

Lizun
GAZTANDEGIA
Sunbilla - Tel: 948 450 862

KULTURA → BERTSO AFARIA

Erregea eta bufoia bertso saio berezia izanen da hilaren 21ean

Antzerkia eta bertsoa uztartzen dituen saioa da

Itziaki TELLETXEA

Herriko gazteek antola-

tuta, maiatzaren 21ean, larunbatarekin, bertso-antzerki afaria izanen da. Bertan Sustrai Colina bertsolari urruñarra eta Ander Lipus aktorea ariko dira. Gai jartzaileran lanetan Unai Elizasu aitzarra izanen da.

Bertso saio berezia izanen da. Erregea eta bufoiaren arteko norgehiagoka izaten baita. Errege papera bertsolariak hartzen du, bera baita hitzen erregea, Ander Lipus aktorea, berriz, hainbat pertsona-

iarren paperean sartuko da, hala nola Juan Junda, Ignatius, Manex Dominixine, Euxebio Egaña, Jerry Always...

Sustrai Colina bertsolariak ofizio lagun desberdin horiekin abesten asmatu behar du Unai Elizasuk jarritako gaiekin. Tokian tokiko gaiak jartzen ditu Elizasuk. Beraz, seguru Donamaria eta inguruko gaiak eta pertsonaiak ere izanen direla tartean.

Bertsolariarentzat lan bikoitza izaten da. Antzerkia bera inprobisatua izaten baita eta ez baitu kantulagunik izaten saioan zehar. Giro bikain eta umoretsua paratzen saiatuko dira Erregea, Bufoia eta Zalduen gai jartzailea.

GAUPASA

Saioaren ondotik, gaupasa izanen da Ageralde akordeoilariarekin. Afarirako txartelak Herriko Ostatuan egon dira salgai, 30 eurotan. Maiatzaren 10a zen erosteko azken eguna.

MALERREKA

Hizkuntza eskubideei buruzko tailerra hilaren 28an Donezteben

TTIPI-TTAPA

Hizkuntza eskubideei buruzko tailerra antolatu du Malerrekako Euskara Batzordeak hilabete bukaerarako. Hizkuntza Eskubideen Behatokiko arduraduna den Garbiñe Petriati etorriko da eta berak gidatuko du tailerra. Maiatzaren 28an, larunbatarekin, izanen da Doneztebeko liburategian. 11:00etan egin dute hitzordua.

Bestetako bilera

Uda gainean dugu eta oharu gabe herriko bestak ere heldu zaizkigu. Bestak antolatzeko, ortziralearan, maiatzak 13, eginen den bilerara deialdia luzatu zaio nahi duen guztiari. Ahalik eta jende gehiena hurbiltzea komenigarria izanen litzateke ideia gehiago izateko eta lanak banatzen joateko.



ARGAZKIA: INIGO EZKURRA

Donamariari itzulia sei ordutan

Apirilaren 30eko egun ederra aprobetxatuz Donamariari itzulia eman zion hongoi bat laguneko taldeak. Sei orduz ibili ondotik, Herriko Ostatuan bildu ziren ongi irabazitako bazkariak gozatzeko. Itzuli hau aprobetxatuz mendi talde hau lbargoia izenarekin bataiatu dute eta hemendik aitzinera itzuli gehiago aurrerikusi dituzte. Ekainaren 25ean Irati aldera eginen dute ateraldia eta irailaren 10ean Pirinioetako Petretxemara. Ea jendea animatzen den.


ABACDEL
Analisi klinikoak
FIATC LACRIN AND
Aresa

Hematologia
Odol biokimika
Erreuma probak
Diabetes
GIB serologia
Tiroide
Hormona-probak
Tumore markatzaileak
Germu-analisiak
Elikagaien intolerantzia

Ramón González-Vallinas
ANALISI KLINIKOETAN ESPEZIALISTA

Istingorra, 1 - behea • 20008 DONOSTIA
T. 943 210 872 • abacdel@yahoo.es
www.abacdel.com

Eskalerak igotzea... ez da oztopo!
plataformak
igogailu bereziak
auki bereziak...

behetik

Aforgo-bak. 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888
www.behetik.com

zalain
JATEZEA - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
T. 948 631 106
w. www.zalain.com

zalain

EZKURRA

ATZERA BEGIRA → 1936KO GERRA

Herriko 73 gaztek parte hartu zuten Gerra Zibilean

Udal artxiboan 36ko gerrako datuak aztertu dira

Fernando ETXEBERRIA

Udal artxiboan dokumentazio zabala dago Ezkurrak Gerra Zibilean izan zuen parte hartzeari buruz.

1936ko uztailaren 21ean, altxamendu militarretik hiru egunera, Udala bildu egin zen eta mendian eta herri sarrean zaintzaileak paratzea erabaki zuen, «Gipuzkoatik gorriak etortzen baziren badaezpada ere». Arma eta munizioekin kamioi bat zuten. Susmagarririk ikusiz gero, tiro egin behar zuten, herritarrei abisua emanez.

29an bisita izan zen herrian: guardia zibil bat, erreketek bat eta falangista bat etorri ziren eta errepublikar bandera bi kolorekoarekin ordezkatu zuten.

Abuztuaren 2an Udala bere osotasunean eskolara joan zen eta Errepublikara garaian kenduak izan ziren gurutze ikurrak berriz paratu zituen.

Abenduaren 31n alkateak oharra bidali zion agintariei, hiru hilabete baino gehiagoz

frentean egon ziren boluntarioek domina jasotzeko eskubidea zutela esanez.

22 boluntario izan ziren, horietako 21 erreketek eta bat falangista. Datu pertsonalak eta borroka egin zuten konpainia ere ageri dira. Gero 51 gazte gehiago mobilizatu ziren.

Artxiboan dauden datuen arabera, hementzei zauritu izan ziren, hiru elbarriak eta zortzi hilak.

560 biztanleko herritik 73 lagun joan ziren gerrara, ia gazteria guztia, eta horrez gain, armadak, ospitaleak eta elkartasun kanpainak

mantentzeko kopuru handiei egin behar izan ziren aurre herriak. Etxe gehienentzako sarraski handiak izan ziren. Hala, 1936ko abuztuaren, armadarentzako lehenengo dohainak bidali ziren, eta horien artean, Udalaren 500 eta apaizaren 100 pezetak.

Beranduago, diruaz gain, bestelako ondasunak ere igorri ziren, Lekaroz eta Iruñeko ospitaleetan zauden erreketentzat: oilaskoak, gazta, arkuak, untxiak, arraultzak... Ekarpen hauek ez dira batera konparatuak 1936ko azarotik 1939ko maiatzera mantendu zi-

ren plater bakarrek egun eta postrerik gabeko asteko egun ospetsuekin.

Gobernu zibilaren zirkular baten arabera, pertsona guztiek astero diru kopuru bat eman behar zuten, janari plater bat eta postrearen baliokidea. Propagandaren arduradunek kaudimen moral ezagunekoak izan behar zuten, eta herritar guztiek emandako diru kopurua apuntatu behar zuten, eta norbaitek laguntzarik ematen ez bazuten edo laguntza murriztuz gero, eta ez justifikatzekotan, isuna jartzeko ardura zuen.

Denborarekin, gainera, bilketak behera egin zuten eta horrek protesta ofiziala eragin zuen, eta horren arrazoiak zein ziren argitzeko eskatu zuten.

1939ko martxoaren 30ean, gerra bukatzen ari zela jakitun, Udalak biharamunean meza ospatzea erabaki zuen eta Udala, osotasunean, banderarekin joan zen. Arratsaldean, txistu eta danbolin soinuekin mokadua eskaini zitzaizkien herritarrei.

Azkenik, maiatzean udaletxeko pleno aretoan banketea eman zuten gerran parte hartu zuten guztientzat. Menua ere aipagarria da, gosea eta miseria handiko garaia baitziren: haragi zopa, eltzekaria, legatza, arkumea txilindron erara, krema, kafea, kopa eta Cadenas anisa.

BITXIKERIAK

Bada Udalak gerran ibilitakoekin eduki zuen aipatzeko detaile bat ere. Alejandro Etxeberriaren kasua da. Herri lurretatik egurra hartu zuen eta 50 pezetako isuna jarri zioten. Baina aberria salbatzeko borroka egindakoa zela, eta, isuna murrizteko eskatu zion Udalari. 10 pezetatara jaitsi zioten.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Egur loteak

Bere garaian adierazi bezala, Udalak egurra bota eta etxeraino ekartzeko edo bidera ateratzeko aukera eskaini zuen. Gehienek lehenengo aukeraren alde egin zuten eta dagoeneko etxeetan izanen da egurra.



SOULE

hileta artea

Tfnoa. 948 453 444

Mug.: 629 659 583

ARIZKUN



Lentona
Barruak
Mertze
Jantzak
Pulitak



Behoko plaza 10 31770 Lezoa
T. 948 627 514

HAUTESKUNDEAK → MAIATZAREN 22AN

Herriko Etxea eta parlamentua

Bost lagunek eman dute izena udaletxerako

Markel LIZASOAIN

Bost laguneko talde bat formatu da Herriko Etxerako, beren ordezkoekin; hamar-hamaika lagun, denetara. Bost horietan boto gehien bitzen dituen izanen da alkate. Orain arteko alkatea, Pedro Urrutia, ez da presentatu; urte sail bat egin du Koskorrengo Perikok alkate, 32 bai. Hala, oraingo aldi, beste alkate bat izanen dugu; honako hauetakoren bat, hain zuzen: Matxingo Julian, Mantxengo Jazinto, Apezengo Joxeluix, Arretxeko Mikel edo Olasoko Xabier. Lehen biak aurretik izanak dira zinegotzi. Orduan, aldi honetan, eskarmentua duen jendea eta jende gaztea nahasian aurkeztu da. Ondoko koadroan, don Tomas zenak Artzai Deia-rako egindako zerrenda bat dago, XX. gizaldian izandako alkateena (azken bi agintaldiak aparte gehituak daude).

PARLAMENTURAKOAK

Labur esanda, legeak egiteko balio du parlamentuak. Orain dela 1.000 urte inguru (pentsa ezazue, ordurako) bazuen parlamentu gisako bat Nafarroak: Gorteak. Garai hartan

eratu zen Nafarroako Estatuak, Europako lehenetakoa. Duela ia 500 urte, mendean hartu zuten Gaztelak; lurrak galduz joan zen urtez urte, baita Malerrekan ere; Mendaurko ondoan, Makilipurdin izaten zen dorreaz jabetu ziren kastillanoak, 1522ko martxoaren 14an; hala heldu da agiri zaharretan. Gerora, Espainia formatu zen Gaztelaren konkista haietatik.

Herri bat, ordea, ezin da kolpetik erabat mendean hartu, eta, gerostik, gure lege sistema moldatuz joan dira, gure herri eskubideak eta izatea kenduz-kenduz (legeak, zergak, foruak, hizkuntza...). Gaur den egunean, parlamentu edo legebiltzar bat dauka Nafarroa Garaiak, eta beste bat daukate Araba, Bizkai eta Gipuzkoak. Frantziaren mende gelditu baitziren Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa, beste sistema bat daukate haiak. Orduan, esan daiteke, labur eta simple, batez ere bi aukera daukela botoa emateko orduan parlamentuan: Espainiaren aldeko alderdiak eta Euskal Herriaren aldekoak, edo, beste modu batera esanda, Nafarroa erabat bereganatzearen aldekoak eta Nafarroa bere buruaren jabe egitearen aldekoak. Eta beste gainerako zurrumbiloba bi indar horien barrenean gertatzen da.



SALDIASKO ESKOLA

Eskolako ikasleak ere euskararen alde Korrika

Korrikarekin bat egiteko asmoz, Julen, Ibai, Ugaitz, Unai eta Ainara autoz joan ziren Saldiaetik Doneztebera apirilaren 11n. Eta handik oinez egin zuten Legasarako bidea. Legasako eskolako haurrekin elkartu ziren eta Korrika ailegatu zenean, laisterka ibili ziren euskararen alde.

ALKATEAK URTEZ URTE

ALKATEA	ETXEA	URTEA
Martin Jose Mitxeko Erasun	Olasoa	1899-1902
Joan Ezkurra Hernandorena	Txalbateko borda	1902-1906
Sebastian Etxekolenea Otxandorena	Jurdanea	1906-1909
Migel Mitxeko Erbiti	Etxezarreko borda	1909-1912
Joan Jose Mitxeko Erasun	Mikelenea	1912-1914
Ramon Mutuberria Elizalde	Txunbilenea	1914-1916
Jose Manuel Otxandorena Baleztena	Otxantrenea	1916-1920
Joan Bautista Mutuberria Elizalde	Mikelenea	1920-1923
Roman Ezkurra Biurrarena	Txalbateko borda	1923-1928
Martin Jose Aizega Otxandorena	Zurginenea	1928-1934
Plazido Mutuberria Hernandorena	Martinea	1934-1944
Jose Martin Aizega Otxandorena	Musarrenea	1944-1951
Migel Etxekolenea Mitxeko	Jurdanea	1951-1958
Marzelino Urroz Saldias	Zurginenea	1958-1971
Pedro Urrutia Gragirena	Arginenea	1971-1979
Jesus Mariezkurrena Saldias	Arretxea	1979-1983
Pedro Urrutia Gragirena	Arginenea	1983-1987
Pedro Urrutia Gragirena	Arginenea	1987-1991
Pedro Urrutia Gragirena	Arginenea	1991-1995
Joan Jose Otxandorena Aizega	Joaneko borda	1995-1999
Pedro Urrutia Gragirena	Arginenea	1999-2003
Pedro Urrutia Gragirena	Arginenea	2003-2007
Pedro Urrutia Gragirena	Arginenea	2007-2011

APARAN, S.A.

BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarniak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Zure etorkizuna, gure erronka

Etorkizunerako inbertsiorik hoberena, prestakuntza ona izatea da. **BIDASOA Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak** hori eskaintzen dio bide hau hautatzen duen ikasleari. Profesional kualifikatuak, eta esperientzia egiaztatua; ekipamendurik hoberenak eta teknologiarik aurreratuenak. Lan munduan sartzeko aukerarik gabe inor gera ez dadin, ikasketak amaituta ikasleen jarraipena egiten du Institutuak.



Telekomunikabide elektronikoa



Zurgintza eta altzarigintza



Elektronika mikroprogramablea



Eraikuntza eta topografia

HASIERAKO PRESTAKUNTZA

Erdi eta Goi Mailako Prestakuntza-zikloak eskaintzen dira industriaren sektoreko lanbide-arloan: Mekanizazio Ekoizpena, Elektrizitatea-Elektronika, Zurgintza eta Altzarigintza, Eraikuntza eta Obra Zibila. Hizkuntza ereduak: A (gaztelania), D (euskara), B (mistoa) eta zenbait kasutan eleanitza (moduluak ingelesez eta frantsesez). Hiru modalitate daude:

Erregimen arrunta (goizez)

Bigarren Hezkuntzako (DBH) edo Batxilergoko ikasketak bukatu ondotik goizez eta bi kurtsotan Erdi edo Goi Mailako Zikloa egin nahi duten ikasleentzat ohiko bidea da.

Eskaintza Partziala (arratsaldez)

Bide honek Zikloetako moduluak era independente batez ziurtatzeko aukera ematen du. Orduetgia ikasle goaren beharretara egokitzen da, hartara, lana eta bestelako beharrak ikasketarekin tartekatu ahal izanen ditu ikasleak hiru urteko epean dagokion titulazioa eskuratuz.

Eleaniztasuna

Ikasturte honetan eleaniztasun eskaintza zabaldu egin da eta frantsesez edo ingelesez moduloak dituzten zikloak egin daitezke. Fabrikazio mekanikoa (ingelesez) eta arotzeria eta altzarigintza (frantsesez), Instalazio Elektroteknikoak (ingelesez) eta Topografia (ingelesez).

Ikasle-trukeak eta praktikak Europako enpreetan

Leonardo da Vinci (Erdi Mailakoentzat) eta *Erasmus* (Goi Mailakoentzat) programen bitartez, ikasleek Europar Batasuneko enpreetan praktikak egiteko aukera dute martxotik ekainera bitarte. Urtean 20 beka izaten dira batezbeste eta, hala, Bidasoa Institutuko ikasleek aukera dute nazioartean barneratu, atzerriko hizkuntza hobetu eta Europako industria ezagutzeko.



Mekanika



Elektrizitatea



Elizatxo, 10
20303 IRUN (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 666 010
Faxa: 943 615 380
secretaria@fpbidasoa.org



www.fpbidasoa.org

Kokapena:
Elizatxo, 10
Irungo erdigunetik
300 metrora,
Elizatxo etorbidea
eta Aduana kalearen
bidegurutzean.



ATE IREKIEN ASTEA

ERDI MAILA:

Maiatzak 23, astelehena, 18:30ean

GOI MAILA:

Maiatzak 24, asteartea, 18:30ean

ARRETA PERTSONALIZATUA:

Maiatzak 25, 26 eta 27, 17:00 - 20:00

IKASTETXEAK ESKAINTZEN DITUEN BESTE ZERBITZU BATZUK

Lan-Poltsa

Espesializazioa edozein dela ere, ikasketak bukatzen dituzten ikasleen enplegatze-indize altua bermatua dago. Gainera, ikastetxeak segimendu-lana egiten du eta enpresen eskaeraren arabera egituratutako lan-poltsaren bitartez, gure ikasleek lanpostu berriak eskuratzeko edo beren lan egoera hobetzeko aukera dute.

Lan-munduan sartzea, norbere enpresa sortzea eta autoenplegua

Ekintzailetzaren eta autopenpleguaren kultura sustatzeko esfortzu berezia egiten du Institutuak. Hezkuntza Sailburuordetzaren Urratsbat programari esker, Bidasoa Institutuak ikasketak bukatu dituzten ikasleei enpresa propioak sortzen laguntzen die. 2001ean ekimena abiatu zenetik hamalau enpresa baino gehiago eratu dituzte ikastetxeko ikasleek.

Prestakuntza ikastaroak dohainik langile eta langabeentzat

Enpresen prestakuntza-beharren diagnostikoa

2011 / 2012 IKASTURTEA

Ziklo-eskaintza osoa goizez

Hizkuntza eskaintza A, D eta eleanitza *

* **Gaztelania, euskara, ingelera, frantsesa**

GOI MAILA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA (Eleanitza ingelera)

FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA

AROTZERIAKO ETA ALTZARIGINTZAKO PRODUKTUEN GARAPENA (Eleanitza frantsesa)

HIRIGINTZA PROIEKTUEN GARAPENA ETA TOPOGRAFIA-LANEN GARAPENA (Eleanitza ingelera)

SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK ETA AUTOMATIZATUAK (Eleanitza ingelera)

PRODUKTU ELEKTRONIKOEN GARAPENA

TELEKOMUNIKABIDE ETA INFORMATIKA SISTEMAK

ERDI MAILA

MEKANIZAZIOA

AROTZ-LANAK ETA ALTZARIAK NEURRIRA EGIN ETA INSTALATZEA (Eleanitza frantsesa)

INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK

TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK

INSKRIPZIO EPEA
Ekainaren 1etik 10era
biak barne

MATRIKULA EPEA
Uztailaren 4tik 8ra
biak barne

GIZARTEA



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Gimnasia bestan parte hartu zuten 72 kideak, tartean Nerea Varela eta Patxi Chocarro monitorea.

URTEROKO BESTA → ARKUPEAK ELKARTEAREN GIMNASIA BESTA

Sasoï betean daudela erakutsi dute

Arkupeak-eko 72 kideak

Guztira 250 lagun elkartu dira bazkaltzeko

TTIPI-TTAPA | BERA

Arkupeak elkarteak urteroko gimnasia besta egin zuen apirilaren

28an Berako Toki Ona kiroldegian. Guztira 72 kirolari bildu ziren, Bera, Leitza, Goizueta, Elizondo, Sunbilla, Doneztebe eta Urdazubitik etorritakoak.

Jabier eta Patxi Larralde Arizkungo atzatsame txistulariak aitzinean zituztela aurkez-

pen kalejira egin zuten hasteko, eta ondotik etorri ziren taldeen kirol saioak banan-bana, Berakoak Nerea Varela monitoreaekin eta gainetakoak Patxi Chocarroekin. Egunari segida emateko, 250 lagunek Zubiondo jatetxean bazkaldu zuten.

PARTE-HARTZAILEAK

BERA (11)

Maritxu Martikorena
Pepita Agirre
Angela Corral
Maddi Mikelperizena
M^a Jesus Zubieta
Begoña Gomez
Maria Jesus San Juan
Malen Barandiaran
Carmen Jimenez
Pakita Urtizberrea
Rosa Telletxea

LEITZA (18)

Maritxu Alduntzin
Pilar Alkoz
Tere Perurena
Pakita Aierdi
Serafina Ezkurra
Pilar Martinez
Amparo Azpiroz
Carmen Petrirena
Inaxi Lujanbio
Pilar Urkiola
Tere Arraiago
Pakita Lusarreta
Milagros Olano
Isabel Huarte
Eusebio Maritorea
Juanita Eskudero
Gloria Perurena
Gloria Irurtia

GOIZUETA (17)

Jose Ramon Arozena
Maite Zabala
Pakita Goizueta
Conchita Altamira
Gregori Etxegia
Maria Pilar Arratibel
Milagros Goizueta
Mari Satur Salaberria
Rita Narbarte

Mañoli Loiarte

Felisa Salaberria
Luis Elizegi
Mari Asun Apezetxea
Merche Huizi
Monica Perurena
Merche Perurena
Isabel Etxeberria

URDAZUBI (3)

Miguel Migeltorena
Francisco Menta
Teresita Bidart

ELIZONDO (15)

Maria Dolores Etxegarai
Juanita Dendarrieta
Asun Alti
Carmen de la Flor
Asuncion Jaurena
Maritxu Oharriz
Milagros Zelaïeta
Maria Jesus Etxandi
Rosa Mendiburu
Milagros Gamio
Juli Irigoien
Maria Angeles Narbarte
Ana Mari Etulain
Ines Oskoz
Maria Josefa Arrijuria

DONEZTEBE (6)

Maria Josefa Arretxea
Maritxu Mutuberria
Esther Garro
Clotilde Iñigo
Maria Jesus Perurena
Maria Isabel Mitxelorena

SUNBILLA (2)

Maria Teresa Agirre
Ana Maria Agirre

Karsuk[®]
Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaldeko aitziariak

K

Karlos Pombar Sainz

C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

TTIPI-TTAPAk ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

Zure laguntza eskertzeko
DOKUMENTU-POLTSA
bat izanen duzu opari

can
proiektu
zenbakia
15.996

Poltsa, identifikazio kartela eta mugikorrak barne hartzen ditu.

TTIPI-TTAPA

TTIPI-TTAPA



Guztion Nafarroa



Irabaz dezakegu
Irabazi nahi dugu



Nafarroa Bai 2011
Zure botoa/Vota

BERTIZARANA

KIROLA → BURUZ BURUKO LEHIA

Nafarroako paleta goma txapelketa irabazi du Mikel Pernaute narbartearrak

Zazpi tantoko aldeagatik izan da garaile Pernaute

TTIPI-TTAPA

Txaruta taldeko Mikel Pernaute pilotari narbartearrak irabazi du Nafarroako lehen mailako buruz buruko paleta goma txapelketa.

Apirilaren 20an Iruñeko Lopez pilotalekuan jokatutako finalean 30-

23 irabazi zion Amaya taldeko Jose Mari Erbururi. Lehia ikusgarria eskaini zuten bi pilotariek. Erburu hasi zen dominatzen, baina bere abantaila murriztu zuen Pernautek eta hainbat berdinketa egin zituzten. Pernautek tanto pare bateko abantaila hartuz joan zen eta hortik aitzinera, Txarutako pilotaria gehiago izan zen eta 29-21eraino joan zen markagailuan. Azkenean txapela Narbartera.



UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako paleta goma txapelketaren finalean parte hartu zuten pilotariak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bilduri elkartasuna

Joan den maiatzaren 3an, Bilduko ilegalizazioa dela eta, kontzentrazioa egin zen Narbarten. 60 pertsona inguru bertaratu ziren hautagaiei beren elkartasuna adierazteko eta bide batez, erabaki hau irmoki salatuzko



UTZITAKO ARGAZKIA

Hauteskundeetarako lantaldea

Bilduk bere lantaldea aurkeztu du maiatzaren 22ko hauteskundeei begira, Antonio Erregerena zerrendaburu dutela.

BIDASOA
TURKIAK - PERTSIKAK
KOTXERAK - AUTOMATIZAKIAK
MOBILITATERAK - KONTZERNETAK
T.F. 659 971 442
BERA

Gure Haragia
Nuestra Carne

TTIPI-TTAPA ZURE LAGUNTZA BEHAR DU
Zure laguntza eskertzeko
DOKUMENTU-POLTSA
bat leheni duzu opari!

15.996

1000

EZKONTZARAKO ESKAINTZA BEREZIA
Andregaiaren erramua +
elizako loreak +
detalleak eginez gero
KOTXEKO LOREAK OPARI

ESTHER
NARBARTE
T. 948 59 22 00

Serpentina kanvoiak bedituga

Martxoaren 30etik, Martxoaren 31era eta martxoaren 1.etik, Martxoaren 2.era bitartean, zabalduko ditugu, patata salgai, berriroko landareekin aukera zabalduko.

TURISMOA → PLAZAOLA PARTZUERGO TURISTIKOA

300 lagun bildu ditu Plazaolako Natur Bideen Egunak

Uitziko tunelak garrantzi berezia izan du aurtengoan

TTIPI-TTAPA

Giro ezin hobean joan zen apirilaren 30ean Leitzan egindako Natur Bideen Eguna. Arrakastatsua ere izan zen, 300 bat lagunek parte hartu baitzuten Plazaola Partzuergo Turistikoak, Leitza, Lekunberri eta Larraungo udalen laguntzaz antolatutako ekitaldian.

Lekunberri eta Leitzako geltokietan hasi ziren ibilbideak eta Uitziko tunelaren hegoaldean elkartu. Tunela gurutzatuz tren txutxua ere ibili zen Plazaolako Natur Bidean barna. Tti-



ARGAZKIA: HITZA

Natur Bideen Eguna arrakastatsua izan da.

kientzat hirugarren irteera bat ere izan zen, Kitarranbueltan, eta paitziko konpainarekin Leitzako plazarainoko bidea egin zuten. Behin plazarara ailegatuta, globoglexia eta hainbat

jokotan parte hartzeko aukera eduki zuten.

Parte-hartzaile guztiak plazan bildu zirenean, pintxoak eta edariak banatu ziren eta musika eskolatik etorritako trikitilariak ere jaia

alaitu zuten. Aurretik tren txutxura igo ez zirenek herritik buelta batzuk emateko aukera ere izan zuten.

Bukatzeko, Mendukilorako lau sarrera, Beigorri parkerako beste

lau sarrera, Plazaolako lau kamiseta eta Nafarroako Gobernuako produktuen lau lote zozketatu ziren.

UITZIKO TUNELA

Aurtengo edizioan, garrantzi berezia eman nahi izan zaio Uitziko tunelari. Gainera, Natur Bideen Eguneko zenbait jarduera puntu horretan egin ziren jendeak tunelaz disfrutatzeko. Gisa berean, familiarizazio prestaturaren hegoaldeko partean ospatu ziren, partehartzaileentzako edariak banatuz. Puntu horretatik atera zen tunela zeharkatu eta natur bidea gurutzatu zuen tren txutxua. Bidaia hori egiteko aukera aurretik izena emandako 60 lagunek izan zuten.

OPORRIK HOBERENAK NAHI DITUZU? AURRERATU ETA AURREZTU.

Utzia, Europa, Afrika, Karibe eta Brasil

%22 arteko Dto.

Itzala bidaiak

%50 arteko Dto.

Sareko itzala

%60 arteko Dto.

IRLAK	424€ <small>6000€ / 1450€</small>
PUERTO DE LA CRUZ <small>Agost. - Park Plaza ***</small>	40 424 €
<small>H. Laundry Service ****</small>	40 525 €
LANZAROTE <small>Agost. - San Domingo ****</small>	08 521 €
<small>Agst. W. Paradise Island ***</small>	08 547 €

KARIBE	1.077€ <small>1450€ / 1450€</small>
PUNTA CANA <small>H. Grand Paradise Beach ****</small>	08 1.077 €
<small>H. Catalina Royal Beach ****</small>	08 1.234 €
RIVIERA MAYA <small>Agost. - San Domingo ****</small>	08 1.112 €
<small>H. Catalina Royal Beach ****</small>	08 1.288 €
JAMAICA <small>H. Grand Paradise Beach ***</small>	08 1.227 €
<small>H. Paradise Royal Beach ****</small>	08 1.288 €

BRASIL	966€ <small>4000€ / 1500€</small>
SALVADOR DE BAHIA <small>H. San Bahia ****</small>	08 944 €
PRAIA DO FORTE <small>H. Salvador Bahia ****</small>	08 1.247 €

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:
Ezlagara 22, beheko, 31790 BERA Navarra
Tel. 948.031.308 - E-mail: bera.1258@viajesiberia.com

VIAJES IBERIA

LEITZALDEA

GIZARTEA → AURTEN HAMABIGARREN ALDIZ

Haur, guraso eta eskolen topaketa Leitzan egingen da larunbat honetan

Tailerrak,
jolasak,
otorduak,
dantzak eta
abar izanen dira

TTIPI-TTAPA

Azken urteetako hitzorduari hutsik egin gabe, Leitzako Erleta, Goizuetako Xalto eta Aresoko Nazabal eskolen eta Leitzaldeko lau herrietako haur eta gurasoentzako topaketa egingen da aurtun honetan. Larunbat honetan, maiatzak 14, izanen da, eta aldi honetan, Leitzak hartuko du lekukoa, joan den urtean Goizuetan eta duela bi urte Areson egin zelako topaketa. Erleta eskolan pasako dute eguna.

Hiru eskolekin eta Guraso Elkarteekin batera,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean Goizuetan egin zen eskolen eta gurasoentzako topaketa, eta aurrekoan Areson.

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea hasi zen egun hau antolatzen duela hamabi urte, eta oraindik ere hasierako helburu berdinei eusten diete: Arano, Areso, Goizueta eta

Leitzako haurrak, gurasoak eta irakasleak jai giroan elkartzea; aisialdirako alternatiba osasungarriak eskaintzea; herri bakoitzeko ohiturak eta berezitasunak ezagutzea eta elkarlana eta elkartasuna bul-

tzatzea, ikasleek eta taldeek egindako ekintzak gurasoari eta herritarrei erakutsi bidenabar.

3 eta 12 urte bitartean dituzten neska-mutikoei eta beraien senideei eta irakasleei dago zuzendua topaketa hau.

EGITARAUA

- 11:00etan eskulan tailerrak.
- 12:30ean jolasak adinaren arabera, hiru multzotan banatuta: Haur Hezkuntzakoentzat jausgailu edo parakaidasa, soka saltoa, txorro morro, karabin karaban... Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailakoak kokor biltzen, zakoeekin, token edota globoak lehertzen ariko dira. Eta Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailakoentzat altxorren bila jolasean.
- 14:00etan bazkaria.
- 16:30ean diaporama.
- 16:45ean eskoletan prestatutako bertsoak eta abestiak kantatuko dituzte.
- 17:30ean: merendua.
- 18:00etan: dantzak.
- 18:15etik 18:30era ospakizunaren bukaera.



ttipi-ttapa
egin zaitez harpidedun!

Bete txartel honetan zure datuak eta bidali gure helbidera: **TTIPI-TTAPA | Anduetzeta. 12 | 31760 ETXALAR**

<p>URTEKO HARPIDETZA:</p> <p>Baztan, Urdazubi eta Malerreka 31€</p> <p>Leitza 15€</p> <p>Hego Euskal Herria 37€</p> <p>Ipar Euskal Herria 55€</p> <p>Europa 55€</p> <p>Amerika eta Australia 123€</p>	<p>Izen-Deiturak.....</p> <p>Helbidea..... Herria.....</p> <p>Telefonoa..... e-posta.....</p> <p>Karneta <input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/></p> <p>Bankua <input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/><input type="checkbox"/></p>
--	--

Informazio gehiago: (0034) 948 63 54 58 - info@ttipi.net - www.ttipi.net

OSPAKIZUNA → SAN ISIDRO EGUNA

Bertsolariekin ospatuko da nekazarien eguna igande honetan

Xabier Legarreta eta Iker Osa gonbidatu dituzte

TTIPI-TTAPAK

Maiatzaren 15a, San Isidro Eguna, nekazarien eguna izaten da, eta hori ospatzeko asmoz, bazkaria egingen dute aurten ere herriko nekazariak igande honetan. 30 lagun inguru biltzen dituen otordua Zubi-Ondo tabernan egingen dute, eta aurten lehen aldiz, bertsolariak ere gonbidatu dituzte: Xabier Legarreta aranoarra eta Iker Osa hernaniarra.

Herrilurren transakzio akordioa

Apirilaren 26ko Udal Batzarrean eman zitzaion herrilurren erabilera onartzen duen hitzarmenari hasierako onepena. Helburua herrilurren transakzio eta erabilera akordioa lortzea

da. Herrilurren erabilera nola egingen den argitu eta eskriturak ere eguneratu nahi dira.

Hitzarmenari behin betiko onarpena eman aurretik, alegazioak aurkezteko 30 eguneko epea egonen da.

Bisita gidatuertarako proposamena

Herria hobeto ezagutzeko aukera eskainiz, bisita gidatuak egiteko proposamena luzatu die Joxe Jabier Etxeberriak herritarrei. Arkitektura eta historia lotuz herriko itzulia egitea edota megaliptoak eta mendi aldean ibiltzea dira buruan darabiltzan asmoak. Baina horretarako jendearen interesa nolakoa den ikusi nahi du. Jendea interesatua baldin badago egingen baitira bisitak. Momentuz, jendearen erantzuna jakiteko telefonoa eman du (649 548608) eta norbaitek bisita gidatuetan parte hartzeko gogo badu dei diezaioke.



Baialtzinikin...

Gorgori baserriko Josefa Ondarrola Arozenak 94 urte bete dituela apirilaren 30ean? 1917an jaio zen eta herriko zaharrena da. Zorionak!

gaztelu sol
iturgintza
kalefakzioa · saneamendua · gasa
Telefonoa: 948 510 086 · 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Beste txapel bat jantzi du Iker Salaberriak

Apirilaren 30ean jokatu zen Irurtzango XIX. pilota txapelketaren finala eta Iker Salaberria fin ibili zen, Ekain Etxeberria oiartzuarra lagun zuela. Sakean min handia egin zien Oberenako Cordon eta Mata aurkariei eta 18-7 irabazi zieten.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Hasi da onddo denboraldia

Hasi da denboraldia, eta ez nolanahiko onddoekin gainera! Manolo Loiarde Txispasek otordu ederra eginga izanen du dagoeneko joan den astean, Puñaleneko Gaztañerin topatu zituen ale eder hauekin. Batek 1,2 kilo zituen.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Alkatorako bidean eskoilera

Alkaso auzorako bidean egin beharreko lanak bukatu ditu Kintalko enpresak. Ertortza zegoenez, eskoilera edo harri-lubeta egin du.

LEITZA

GIZARTEA → KANPAINA BERRIA

Herrian lan egiteko emakumeen eskubidea exijituz curriculumak biltzen ari dira

Bilgune Feministaren eta LABen ekimena da

TTIPI-TTAPA

Leitzako emakumeok herrian lan egiteko eskubidea dugu! lemapean kanpaina berria jarri dute abian Leitzaldeko Bilgune Feministak eta LAB sindikatuak. Diotenez, Sarriopapel lantegiak «emakume langileen eskubideak sistematikoki 32 urteotan zapaldu ditu» eta horixe izan da ekimenaren abiapuntua.

Uda iristear dela, lantegiaren lan eskaera igo egiten dela gogoratu dute, batez ere eskulanerako. Baina salatu dutenez, «gizonak kontratatzen dituzte (nahiz eta azken urtean pare bat emakume kontratatu)». Hortaz diote «aurten ere itxaron zerrendetan jarrai ez dezagun, eta benetan, berezkeria egoera honekin amaitzeko, apustua egiteko ordua dela». LABek lan-akordioan emakumeen enplegua izateko eskubidea defendatu duela ere azaldu dute. Hala, Sarriopapelen edo 2. sektorean lan egin nahi duten emakumeen curriculumak biltzeari ekin diote, lantegiko kontratazioaz arduratzen direnei eta lantegiak kontratatzen dituen ETT enpresetan entregatzeko. Hilaren 22rako aurkeztu be-

hardira curriculumak (*leitzaldekobilgunefeminista@gmail.com*-era bidali edo Karrape irratian utzi).

Garagardoak eta pilota eskola

Pilota eskolak akordioa sinatu du San Miguel garagardo enpresarekin. Urtea bukatu arte Leitzan edaten den San Miguel bakoitzeko bost zentimo hartuko ditu pilota eskolak.

XXXIV. Kultur Aroa

Egitarau hau prestatu du ALKEK maiatzerako.

MAIATZAK 17, ASTEARTEA

• 20:00etan Aurreran: *Gazteriaren jarrera aisialdian* hitzaldia.

MAIATZAK 18, ASTEAZKENA

• 19:00etan liburutegian: *Segurtasunaren garrantzia Interneten* hitzaldia.

MAIATZAK 19, OSTEGUNA

• 20:00etan Aurreran: *Orreagako batailak* izenburupean hitzaldia.

MAIATZAK 20, OSTIRALA

• 17:00etan plazan kamiseta margotzeko tailerra.
• 18:30ean Gaztetxean, perkusio tailerra.
• 20:00etan Aurreran, *Hitano berria sortzen ari ote gara?* hitzaldia.
• 00:00etan Torrean: *La Jodedera*, kontzertua.

MAIATZAK 21, LARUNBATA

• Goizean mendi irteera.
• 20:00etan zineman: *Baginaren bakarrizketak* antzezlan.



ARGAZKIA: JON RODA

Mendi Bizikleta Taldekoen hurrengo hitzordua Igantzira joateko

Mendibil Mendi Bizikleta Taldeak irteerak eginez segitzen du. Apirilaren 16an, 17 lagunek Leitzatik Uzturre mendirako 43 kilometroak egin zituzten, 1.800 metroko desnibel positiboa duen ibilbidea. Hurrengo irteera Igantzira egiteko asmoa dute.



ARGAZKIAK: J. ZABALO

Harategi zaharra informazio puntu

Teilatua konpondu, barrua hustu eta moldatu, pintatu eta panel informatiboak jarri ondotik, herriko eta herriari buruzko informazio puntua hartuko duen plazako harategi zaharreko lanak bukatzeaz daude.

MAIATZAK 22, IGANDEA

• 12:00etan elizan: organo emanaldia.

MAIATZAK 23, ASTELEHENA

• 20:00etan Aurreran: Perurenataren dokumentalaren aurkezpena.

MAIATZAK 24, ASTEARTEA

• 20:00etan Aurreran: *Makrobiotika, jateko era bat baino gehiago* hitzaldia.

MAIATZAK 25, ASTEAZKENA

• 20:00etan Aurreran: *Urrezko millak* bidaia hitzaldia.

MAIATZAK 26, OSTEGUNA

• 20:00etan Aurreran: *Inauteriak Euskal Herrian: tradizioaren forma berriak* hitzaldia.

MAIATZAK 27, OSTIRALA

• 20:00etan Lopenean: elkarretaratzea.
• 23:00etan zineman: Kerobiaren kontzertua.

MAIATZAK 28, LARUNBATA

• Gazteen Eguna: bazkaria, kalejira, malabare ikuskizuna, batukada, luntxa eta kontzertuak (Hidro eta Vomito).

MAIATZAK 29, IGANDEA

• Plazan: diana gaiteroekin eta 11:00etan artisau azoka.

Aipatuaz gain, Miren Fagoaga eta Aldaia Argandoñaren lanen erakusketa izanen da udal-txean eta Aurreran.



BAT.BIRAL:4U

EUSKAL KULTURAREN NAFARROAKO ZIRKUITUA

BAGINAREN BAKARRIZKETAK



Leitzza

Maiatzaren 21 ean, larunbata 20:00etan
ZINEMAN

SORKUN

Etxarri Aranatz

Maiatzak 3, ostirala 22:00etan
KULTUR EDEAN



GOSE

Bera

Maiatzak 4, ostirala 22:00etan
KULTUR EDEAN



RUPER

ORDORIKA

Agoitx

Maiatzak 12, ostirala 19:00etan
KULTUR EDEAN



Antolatzaileak:



Babesleak:



Euzko Legea



Leizaola Kulturaren Kontseia



FEADER



Kulturaren Kontseia
Leizaola Kulturaren Kontseia
Euzko Legea

Noticias

Zer nabarmen hain orain

berria

Laguntzaileak:

nabarrerria.com

euskalerria.irratia

BELEXE

cuaixe.net

ttipi-ttapa

Karrape

kalodatebista



ARESO

ERLIJIOA → SANTA KRUZeko PROZESIOA

159 urte pasatu dira Uliko Santa Kruz ermita egin zenetik

Herriko jendeak borondatezko lan asko egin du baseliza mantentzeko

Juana Mari SAIZAR

Aspalditik Areson baseliza izan da: Uliko Santa Kruz eta Amabirjinaren Subsidioa izenokoa. Egun askotan prozesioan joaten ziren herritarak bertara. 1752an Pablo Etxeberriari 80 erreal ordaindu zitzaizkion santokristoren irudia urrez margotzeagatik. Baina eguraldi txarrraren eta haizeteen ondorioz erori egin zen.

1838ko abuztuaren 1ean, baimena eman zuten Santa Kruz egunez prozesioak egiteko eta



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Urtero egiten da prozesioa Uliko Santa Kruz eta Amabirjinaren baselizara.

urte horretako apiriletik maiatzera konponketa batzuk egin zituzten joaten zen jendearentzat arriskurik ez egoteko.

1849ko maiatzaren 13an betirako desa-

gertu zen baseliza eta urte berean Santa Kruz eguneko meza herriko elizan egin zen.

Urte bereko ekainaren 1ean, Udalak gotzaitegira gutuna idatzi zu-

en: «Aresoko bailaran bazen Santa Kruz eta Amabirjinaren Subsidioa ermita, non meza- ren otordu Santua ospatzen den. Baina orain urak eta haizeteak hon-

datu dute eta ezin dugu altxatu duen kokaleguagatik. Oso toki altuan baitago eta ahaleginak egin arren alferrrikakoa izanen litzateke bere horretan mantentzea. Horregatik beste bat eraikitzeke baimena eskatzen dugu, izen berarekin Arinbeko parajejan». Severo Adrian gotzainak baimena eman zuten ermita eraikitzeke. Bi urte iraun zuten obrek eta 1852ko apirilaren 20an, Udalak ermita bedeinkatzeko baimena eskatu zuten eta Santa Kruz egunez bedeinkatu zuten.

159 urte pasatu dira herritarak bertara joateko ohitura mantentzen dutenetik. Egun horretarako herriko jendeak txukundu eta apaintzen du ermita prozesioan joateko.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN
948581959 | 948 637404

LEKUNBERRI
BERA | SAN JOSE
ELIZONDO | BAZTAN

LEITZA | 948 61 09 64 (SALAKO TELEFONOA)
LESACA | 948 62 75 77 (SALAKO TELEFONOA)
BETELU | 948 51 34 67 (SALAKO TELEFONOA)

DONEZTEBE | SAN PEDRO | 948 45 19 14 (SALAKO TELEFONOA)
ELIZONDO | BAZTANDARRA | 948 58 02 50 (SALAKO TELEFONOA)

| TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTI ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
| LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

ZURI ESKERRAK

HOBEKI BIZIKO GARA DENOK



ERRENTA AITORPENA 2010

2011KO APIRILAREN 15etik EKAINAREN 24ra



**Nafarroako
Gobernua**

BAZTAN

LEHIAKETA → AURTEN BIGARREN ALDIZ

Santiago bestetako kartel lehiaketako lanak ekainaren 5erako aurkeztu behar dira

Elizondoko Herriko Etxean aurkeztu beharko dira

TIPI-TTAPA

Martxan da Elizondoko bestetako II. kartel lehiaketa. Lehiaketa irekia da eta parte hartzaileek nahi hainbertze lan aurkeztu ahal izanen dituzte. Irabazleak 300 euro eta zikirojaterako bi txartel hartuko ditu.

Oinarrietan aipatzen denez, kartel guztietan *Santioak 2011* agertu beharko da. Kartelaren neurria 50x70 zentimetrokoa izan da, eta edozein teknika erabiliz egina izan daiteke. Lanak saritu eta publikatu gabeak izan beharko dira. Euskarri digitalen aurkezteaz gain inprimatutako orri bat ere aurkeztu beharko da guttienez A4 neurrian inprimatua.

Lanak bidaltzeko epea ekainaren 5eko 12:00etan akituko da. Ordurako Elizondoko

Herriko Etxeko buzoian egon beharko dute. Posta arruntez bidaltzekotan, ekainaren 1a baino lehen igorri beharko dira *Herriko Etxea, Jaime Urrutia 4 31700 Elizondo* helbidera.

Museoaren Nazioarteko Eguna

Maiatzaren 21a Museoaren Nazioarteko Eguna denez, hainbat ekitaldi izanen dira Baztan Etnografia museoan. 12:00etan *Eguzkia lainopean* ikusentzunezkoa eskainiko da, adineko batzuen bizikizunak kontatzen dituen emankizuna, hain zuzen. 18:00etan, berriz, *Cigaren obra, Baztango memoria bizi*a bisita gidatua egingen da, Pello Fernandezek eskutik. Izen ematea Arizkunenean egin beharko da, eta parte-hartzaileen kopurua mugatua da.

Aipatu, bertzalde, museo sarrera dohainik izanen dela hilaren 21ean eta 22an.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Olaztiko Leire Aiestaranek irabazi du Bakarlarrien Lehiaketa

Apirilaren 30ean, Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean egin zen Baztango Bakarlarrien Lehiaketa eta lehendabiziko saria Leire Aiestaranek eraman zuen Olaztira. Esku soinuaren laguntzaz egin zuen bere emanaldia. Bigarren saria Manuel Eskauriazak irabazi zuen, tronparekin egin zuen erakustaldiagatik. Sari berezia Laura Garcia Itarteri eman zioten klarinetearekin egin zuen lanagatik. 13 eta 16 urte arteko 16 gazte aritu ziren egun osoan euren kantuak eskaintzen. Epaimahaia Jose Luis Ocon (tronboi irakaslea), Erike Borgo (piano irakaslea), Manuel de la Riva (piano irakaslea) eta Pilar Alonsok (Fidah-eko lehendakaria) osatu zuten.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Jesus Gaztanbide eta Santiago Larre txapelkun museoan

Lekarozko Gartxitonekobordako Jesus Gaztanbide eta Azpilkuetako Marimotzeneko Santiago Larre izan dira Elizondoko zahar-etxeko muslari finenak. 22 bikotek hartu dute parte mus txapelketan eta irabazleak 41 punturekin nagusitu dira. Bi puntuko aldea atera diote Elizondoko Agapito Morante eta zahar-etxeko zuzendari-kudeatzailea den David Baranguani. Hirugarren bikotea Gazteluko Pedro Lizasoian eta Azpilkuetako Juanito Larrek osatutakoa izan da, laugarren Jesus Mari Eskudero eta Pedro Aleman iruritarrek gelditu dira. Seiko Urrearen Txapelketan, berriz, Juan Jose Durruti nagusitu da, Conchita Elizetxe bigarren izan da, Felipa Mindegia hirugarren eta Inocencia Arriada laugarren. Partxisean, Felisa Santaceliak irabazi du, Pilar Matxin bigarren sailkatu da, Sor Carmen Oartzabal hirugarren eta Marcelina Gamio laugarren.

Ba al zenekien...

Baztan Errugbi Taldea Mallorkan izan dela Mallorca Rugby Beach hondartzako txapelketan parte hartzen? Joan den urtean ere han izan ziren jokalaria, eta B taldeko txapelkun gelditu ziren.

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

Gierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Burriztezu sarrera · Tfn: 948 582 043
ORDINOZ · MUGAIRI

KIROLA → MAIATZAREN 29AN

Zabalik dago mendi martxan izena emateko epea

Internet bidez egiten ahalko da maiatzaren 27ra arte

TTIPI-TTAPA

Baztango Mendigoizaleak aurtengo mendi martxa prestatzen ari dira burubelarri. Maiatzaren 29an eginen da ibilaldiaren XVIII. edizioa eta Elizondon hasi eta akituko da.

Bataz bertze zortzi orduko itzulia izanen da eta gainerako xehetasunak hurrengo alean emanen ditugu. Halere, norbaitek aitzinetik izena eman nahi baldin bada, www.mendizmendi.com web orrian egin dezake. 10 euro ordaindu beharko du izena ematerakoan.

Internet ikastaroa dohanik

Enpresari egunero-ko gestioan laguntzeko

eta Interneten hedatzeko asmoz, Cederna Galarur elkartearen ekimenez, Internet ikastaroa izanen da maiatzaren 23an, 25ean eta 27an Elizondon. *Marketin turistikoa eta blogak sortu* izenburupean emanen da tailerra, eta hiru egunez 09:00etatik 13:00etara izanen da.

Dohainik izanen da, Nafarroako Mendialdeko PDRK finantzatu delako. Izena emateko deitu 948 206697 telefono-ra edo idatzi info@cederna.es-era.

Akats zuzenketa

Aitzineko aldizkarian, hauteskundeetako zerrendak kaleratu zirenean, Baztango NaBai 2011ren zerrendaburuen izenean akats bat egon zen. Zerrendaburuen izena Pello Iriarte Zelaieta da. Lerro hauen bidez, barkamenak sortu ahal izan diren eragozpenengatik.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Udal hauteskundeetara begira

Maiatzaren 22ko hauteskundeetan izanen diren taldeak programak eta lantaldeak aurkezten ari dira. Horixe egin dute argazkietan ageri diren Bildu, NaBai, UPN eta Ezkerrak, erraterako.

Okindegia *Jatetxea*

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean errea, goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea
Tfnoa: 948 453 403
31713 ARIZKUN

ANTXITONEA
Txikito

24 ingela bitartekoan - Apartaketa
Aste gutxiago gela guztietan - Hart musikala eta TD
Gela berria sukaldar eta hostal zerbitzuetan

Braulio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

BAZTAN

EUSKARA → EUSKAL HERRI MAILAKO BESTA

Euskal Herri osoan mintza praktikan ari direnen Mintza Eguna Elizondon eginen da

Ekainaren 4an, larunbatarekin, eginen da

TTIPI-TTAPA/Maite OTEIZA

Mingaina dantzari lelopean, Mintzapraktika egitasmoen bidez euskaraz solasteko biltzen diren taldeek Elizondon egin dute hitzordua aurtan. Hemen eginen baita seigarren edizioa, Euskal Herri osoko jendea bilduko duen Mintza Eguna, ekainaren 4an, larunbatarekin. Topagunea Euskara Elkarleen Federazioak eta Solaslaguna ekimenak antolatu dute, Eusko Jaurlaritzaren eta Baztango Udalaren babesarekin eta AEK eta IKA euskaltegien, TTIPI-TTAPAren, Xorroxin irriaren eta Xaloe telebistaren laguntzarekin. Euskal Herri osotik 300 lagun inguru etorriko direla espero da.

EGITARAUA

- 11:00etan: ongi-etorria eta hamaiketako Merkaturko Plazan.
- 12:00etan: ibilaldi gidatua.
- 13:30ean: mintza bermuta.
- 14:30ean: Bazkaria Merkaturko Plazan edo Baztan Frontoian.
- 16:00etan: sari bana-keta.

- 16:30ean: euskal erro-meria.

Merkatarien kanpaina

Bertan elkarteko merkatariek bertze kanpaina bat paratu dute martxan hilabete honetan eta saria ez da nolana izanen, 2.000 euroko erosketa balea zozketatuko baitute.

Ekainaren 9ra bitarte Bertan elkarteko kide diren dendetan erosketak egiteagatik zigiluak eskuratuko dituzte bezeroek: 20 euro baino gastu tikiagoa egiteagatik zigilu bat eta 20 eurotik goitiko erosketa eginez gero, bi zigilu. Zigiluekin txartelak osatzean Bertaneko edozein dendetan utzi beharko dira. Eta biltzen diren txartel horien artean zozketa eginen da ekainaren 10ean, ortziralararekin, 20:30ean Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Orduan jakinen da 2.000 euroko erosketa balearen irabazlea zein den.

Pedro Esarteren liburu berria

Breve historia de la invasión de Navarra (1515-1530) liburu argitaratu du Pedro Esartere elizondarrak Nafarroaren konkistaren 500. Apirilaren 28an aurkeztu



ARGAZKIA: ONDIKOL

Arraiozko Xuntoneko burugorriak eta Almandozko Etxotoko burubeltzak irabazi dute Udaberriko Feriako ahari lehiaketa

Apirilaren 29an egin zen Elizondoko Udaberriko Feria, giro ederrean. Merkaturko Plaza inguruan, behiak, zaldiak, behorrak eta asto batzuk ikusi ziren eta ahari lehiaketara bi dozena buru aurkeztu ziren. Horrez gain, eskulangileen lanak eta etxean egindako produktuak ere plazaratu ziren. Ahari lehiaketari dagokionez, burugorrien atalean, Arraiozko Xuntonea baserriko Sagrario Urrozen aurkeztutako aharia izan zen onena epaimahaiaren arabera eta honen senarrak, Juan Irigoienek hartu zuen lehen sariko kaikua. Bigarren saria, Gartaingo Etxezuriko Feliciano Etxartek eskuratu zuen eta hirugarrena Arraiozko Indakoa baserriko Felisa Ugartek. Burubeltzen atalean, lehenbiziko saria Almandozko Etxotoa baserriko Norberto Agerekek eskuratu zuen eta bigarrena Iruritako Gernuxarreko Miguel Angel Maritorenak. Hirugarren saria, Almandozko Etxetoako Begoña Etxalarrek eraman zuen.



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Udaberriko Erremonte Txapelketako finalerdia Iruritan

Erremonteko Udaberriko Torneoaren finalerdi bat Iruritako frontoian jokatu zen maiatzaren 1ean. Herriko semea den Gorka Urtasunek Etxeberria III.a izan zuen lagun eta 40-35 irabazi zieten Matxin III.a eta Urtuari. Galarretako partidari, aldiz, Urtasunek eta Etxeberria III.ak irabazi zuten (40-33) finalerako txartela lortuz.

zuen Pamiela argitaletxearekin argitaratutako liburua. Liburu berri honekin, Esartere 2001. urtean argitaratu zuen *Navarra, 1512-1530 conquista, ocupación y sometimiento militar, civil y eclesiástico* lana eguneratu du. Aitzinekoaren egitura eta oinarri berari segitu dio, baina laburbildutako la-

na da eta horretan, Aitor Pescador historiagilearen laguntza izan du.

Aste Kulturala Iruritan

Apirilaren 26tik 29ra, haurren Aste kulturala egin zen Iruritan Guraso Elkarleak antolatuta: Bertizera bisita, Kulki taldearekin herri

kiroletan, Donostiako Aquariumera bisita, musika klasikoaren kontzertua... Denetarik egin zuten.

Korua Gartzainen

Elizondoko Abesbatza kontzertua eskainiko du larunbat honetan, hilak 14, Gartaingo elizan. 20:00etan hasiko da emanaldia.

KIROLA → SALBATORE BESTAK

Haurren eta helduen herri lasterketak egingen dira erearoaren 5ean Iruritan

Izen ematea dohainik da

Maite OTEIZA

Iruritako bestetako igandean, erearoak 5, haurren laugarren eta helduen hirugarren herri lasterketak egingen dira.

10:30ean haurrak abiatuko dira herriko plazatik eta erreboteko pla-

zaren artean ibiliko dira. 11:30ean helduen txanda izanen da. Plazatik hasita Apote, Artzeko borda eta Iperburun (bi itzuli) barna ibiliko dira, gero berriz plazan akitzeko. Akabailan, plazan, parte hartzaileendako luntxa, sari banaketa eta sarienezozketa izanen dira. Izen-ematea dohainik da.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Herritarrek Bilduren legalizazioaren alde

Maiatzaren 3an Bilduren aldeko elkarretaratzea egin zen Elizondoko plazan eta 180 lagun inguru elkartu ziren Bilduren legalizazioaren alde. Bilduren Baztango zerrenda osatzen duten kideek erakutsi zuten pankarta, *Demokrazia eta parte-hartzearen alde* lelopean. Eta ondoan dozenaka pertsonak euren elkartasuna adierazi zuten. Gainerako alderdi politikoen zerrendaburuak ere gonbidatuak izan ziren -UPNkoekin harremanetan jartzea ezinezkoa izan zen, nahiz eta saiatu- eta hurbildu ziren, bertze herritar anonimoen artean. Aipatu, Baztango Ezkerra eta NaBai alderdiek Auzitegi Gorenaren erabakia gaitzetsi dutela eta Bilduri atxikimendua adierazi nahi izan diotela, prentsara bidalitako oharrean.

Berna
Dinetakoak

Egun gutti barru irekitzen dugu!!!

Nafar Mendi Hiper Merkatuan ARRAIOTZ

ADN

BAZTAN

KIROLA → BAZTANGO TXAPELKETA

Oronozko Mapik eta Iruritako Edurnek irabazi dute Emakumezkoen Frontenis Txapelketa

Edurne Argainek Euskal Herriko Pala Txapelketa ere irabazi du

Maite OTEIZA/TTIPI-TTAPA

Zenbait herritako frontoitan Baztango Emakumezkoen Frontenis Txapelketa ikusteko aukera izan dugu. Oronoz, Irurita, Arizkun eta Erratzuko frontoietan txandaka, partidak laurbete-ro izan dira. Otsailen hasi eta apirilko hondar egunean akitu zen txapelketa, Iruritako Arania frontoian jostatu zen finalarekin.

Hirugarren eta laugarren posturako lehian, Iruritako M^a Jose Salaburuk eta Begoñak 30-25 irabazi zieten Oronozko Gurutze Aizpurua eta Iruritako Begoña Argaini. Finalean, Oronozko Mapi eta Iruritako Edurne Argain nagusitu ziren. 30-22 irabazi zieten Iruritako Amaia Iñarreari eta Arizkongo Maitane Etxeberriari. Sari banaketa egin ondotik, Elizondoko Eskisaroi jatetxean bazkaria izan zuten.

EUSKAL HERRIKO PALA TXAPELKETA

Apirilaren 16an jokatu

ziren Euskal Herriko Pala Txapelketa irekiko finalak Oiartzunen (Gipuzkoa), bertako Giritia Elkarteak antolatuta. Gizonezkoetan hiru kategoriatan aritu ziren eta emakumezkoetan bi mailatan. Hain zuzen, emakumezkoetan, lehendabiziko mailan, Estitxu Pierola donostiarra eta Edurne Argain iruritarra izan ziren garaile. 14-25eko emaitzarekin nagusitu ziren Agirre eta Otegiren kontra.

Lapurreta aldia

Hondar hilabete honetan, Baztanen ebasleak dantzan dabiltza: Elizondoko La Baztanesan eta Mendi eta Lekuberria ostatueta, gau batez sartu ziren eta dirua, tabakoa eta edaria eraman zituzten. Hortik bi astetarat, berriz, itzuli egin ziren eta bertze bueltaxkan, Elizondoko Lekuberrian-laugarren aldiz-, Ilargi ostatuan eta Zigako Etxezurian sartu ziren. Azken honetan, dendako leiho bateko burdinezko barroteen artetik pasatu eta dendako produktuak eta sosa eraman zituzten. Deigarria da landa-etxe hau turistaz betea zegoela, eta inork ez zuela deus ere somatu.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Euskal Herriko Pala Txapelketan garaile izan da Edurne Argain iruritarra, Estitxu Pierola donostiarra lagun duela.



ARGAZKIAK: M. CARMEN ARRETXEAA

Mexikoko Baztan Eguna arrakastatsua

Bertze urte batez, Mexikon bizi diren baztandarrek Baztango Eguna ospatu zuten maiatzaren 1ean, hiriburuko Euskal Etxean. 150 lagun baino gehiago bildu ziren bazkarian eta ondotik izan ziren ospakizunetan. Jatorriz baztandarra den Mari Carmen Arretxea lehendakariaren hitzetan, «ttikiek eta helduek Baztango menu tipikoa dastatu ahal izan zuten: baztanzopak, piperrada, bildotsa txilindron erara, azpixon zainzuri saltsan eta postrerako, betiko sagar tarta eta bainilla izozkia, bestaren antolaketa batzordeko kideek prestatua». Urtero bezala, giro ederrean joan zen eguna eta bazkalondoan, Euskal Etxeko lagunek eta senideek hainbat ekitaldi izan zituzten. Ohiturak agintzen duenez, mus txapelketa antolatu zen eta hamasei bikotek hartu zuten parte. Gau partean, indarrak berreskuratzeko ogitartekoak jan ondotik, batzuk patxangarekin segitu zuten eta bertze batzuk atseden hartzera erretiratu ziren.

Iñaki Alzuyet margoak

Pinura dekoratiboa eta industriala • Fatxadak • Barnesideak
Dekorazioak: estukoak, belakurak
Lakutua eta berriztatzeak kabinan • Padura
Haini eta eguna arendatzearekin garbitzen da

Ibur-ttiti etxea - Landibar Auzoa - 31711 URDAZUBI
Tel: 659 862 417 - pinturasalzuyet@yahoo.es

HERRIKO ETXEN
EDXNTEGIX
CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0559542519
Mozzen eta Warrapue

SARA

TURISMOA → BISITARI AUNITZ

4.782 lagunek bisitatu dituzte leizeak Aste Santuko oporraldian

Sorginen Museotik 1.529 lagun pasatu dira

Margari eta Koro

Pastu zaigu Aste Saindua. Batzuentzat otoitz eta prozesio egunak izan dira, eta berzteentzat, berriz, firinfaran gustura ibiltzeko egunak.

Aurten ere jende azkarki ikusi dugu gure karriketan, ez gan den urtean bezainbat, baina bai aitzinekoan baino gehiago. Ideia bat egiteko, hortxe ditugu leizerat eta Sorginen Museorat egun horietan sartu ziren jende kopuru orokorrak: leizerat 4.782 lagun sartu dira eta museorat 1.529.

Sorginaren Eguneko prestaketak

Martxan dago aurten ere Sorginaren Eguna. Ekainaren 18an, larunbatarekin, eginen da, aitzineko urteetako gisan eta egitarau zabala izanen du: merkatuak eta animazioa karriketan, hitzaldiak, bisita gidatuak, errituak eta antzerkia... Aitzinerago emanen ditugu xehetasun gehiago.

Ipuin lehiaketa bigarren aldiz

Udalak eta Sorginen Museoa antolatuz, bigarren ipuin lehiaketa ireki da. Gaia *Zure herrian sorginik izan al da?* izanen da. Bidenarkoan, hausnarketa bat izateko intentzioa da, eta



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Bataioetako usadioa

Lehenengo usadio xaharrari segituz, hainbat haur juntatu ziren elizako eskailera azpian, Malastako bordako Argitxuren bataio ondotik purra-purra bota ziren goxoki eta xoxak biltzera.

horregatik gai hauekin erlazionatua izatea nahia da: Sorginak eta arbasoak; mitologia; belagileen jakinduria; sor-

gin ehiztariak, tolerantzia...

Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara arteko ikasleentzat da, eta

saria liburu sorta eta eskola materiala izanen da. Aurkezteko epea maiatzaren 27an akituko da.

60 aniversario
Casa Cambra
Zure erosketarengatik urteurreneko oparia

- edredoi fundak
- albornoak
- edredoi nordikoak
- ohe estalkiak
- maindireak
- mantelak
- kuxinak
- toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA 948 230 634

URDAZUBI

UDALA → AZPIEGITURA BERRIAK

Garai bateko aroztegian haur parkea eginen du Udalak

Ahobatez onartu du Udalak haur parkea egiteko asmoa

neska-mutikoentzako parkea eginen da etorkizunean. Horrelaxe erabaki zuen Udalak apirilako udalbatzarrean, eta aho batez adostu zuten.

Lur eremu hori joan den urtean bereganatu zuen Udalak, ordu-ra arte Artzapezpitzarena baitzen.

TTIPI-TTAPA

Bere garaian aroztegia izan zen tokian, hau da, elizaren ondoan,



UTZITAKO ARGAZKIA

Toki honetan eginen da haurtzako parkea.



UTZITAKO ARGAZKIAK

RNE herrian

Apirilaren 9an eta 10ean, Radio Nacional de Españako (RNE) *No es un día cualquiera* irratsaioa plazan paratutako karpantik emititu zen zuzenean. Hainbat gonbidatu pasatu ziren elkarriketatuen aulkitik eta saioa ikustera animatu ziren herritarrek ugari izan ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

Urtxume taldea

Maiatzaren 22ko udal hauteskunderi begira, Urtxume taldeak bere lantaldea aurkeztu du.

MONTXO OSTATUA

Dantxarinetik 2 km-tara

**ТАБАКО-ДЕНДА
АНЗАН-БОРДА • УРДАЗУБИ**

Egunero irekia 10:30etik 02:30era.

VENTA PEIO

T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Besa (Administratiboa) 20700 BERRA | Dantxarinetik 20712 URDAGI | Dantxarinetik 20700 BERRA | Lantxarinetik 20700 BERRA

GIZARTEA → HERIOTZA

Ur Xuri kantuarekin agurtu du herriak Mikelungo Auger zena

Herrian hutsune handia utzi du biziki maitatua zen herriko semeak

Franck DOLOSOR

Senperen boz eder bat isildu da eta zeruan izar bat gehiago piztu da berriki Auger Ibarra Mikelungo nagusia zendu baita 79 urtetan.

Auger biziki ezaguna zen herrian *Mikeluna*, Hergaraiko, eta bai Senpereko ere etxalderik ederrenetako baten semea eta jabea baitzen. Kantuz aritzea biziki gustatzen baitzitziaion, azken urteetan Senpereko kantu xaharren bazkariak alaitzen zituen giro ona sortuz beti bere inguruan. Errexa zen harekin adiskide izatea. Oxtikenekoak elkartek atera duen diskan entzun daiteke oraino bere boza, *Ur Xuri* kantuarekin konparazioe.

Bere oroitzapenak ere ez dira galduko *Senperetik Senpererat* bilduman agertzen direlako. Auger Ibarra untsa merezi zuen liburu hortan agertzea jendakina baitzen eta ongi ezagutu baizituen hogoigarren mendearen erditsuan Senperek bizitu



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Berriketarien zoriona: Auger Ibarra bezalako lagun atsegineri hitza ematea. Umore oneko gizonak giro ona sortzen zuen fite bere inguruan. Ez adiorik.

zituen aldaketa handiak.

Auger 13 urte arte ibili zen eskolan eta gogozan zuen Arretxean zelarik preseski aditu zute la Miarritzeko bonbardaketa 1944ko martxoan. Bonben dardara entzun eta hegazkinak pasatzen ikusi zituzten senpertar gazteek, horien artean zirelarik Auger eta Saint Boire orduko eskola emailea.

Herriko gazte frango bezala, 13 urtetan sartu zen klikan, musikari taldean, eta horzobait urtez trebatu zen lagun-garri izanzen zitzaion dohaian. 1952an soldaduska egin zuen, lehenik Tolosan, gero Paulen eta azkenik Baionan.

Lapurdirat itzuli ahal izan zen kleronajotzen zuen norbait behar baizuten etxe ondorat itzultzeko aski ongi etorri zitzaion beraz *Emak-Hor* Senpereko musikari taldekoa izatea. Bere adineko lagun guziek Aljeriako gerlan parte hartu behar izan zuten baina Auger-ek ez, urtarrilean sortua baitzen. Doi doietarik libratu zen, beraz. Beharrik, Mikelunango goan baizituen oraino Auger-en aitak munduko lehen gerlan parte hartu zuela eta maiz eritu zela Sirian barna itsasontziz ibili zelarik.

Laboraria eta musikaria izateaz gain, sei urtez herriko hautesia ere izan zen Auger 1971tik 1977ra. Lapurdin ez zuen gustuko andrerik atxeman eta Nafarroarat gan zen mai-tearen bilat. Baztanen bere adina zuen andre-gaia atxeman zuen gure hergaraitarrak: Teresa Iekaroztarra.

1957an, ezkondu ziren eta beraz, berriki ospatu zituzten Urrezko Ezteiak. Bere azken agurrean, ehorzketetako betiko kantuen ondotik, familiak eta lagunek *Ur Xuri* kantatu zioten. Larrekoren kantu hau izigarri gustatzen zitzaion Auger-i eta ederki ematen zuen noiznahi. Orain penan galditu den Ibarra familiari dolumin suharrenak.

Lizardia II prest

Ibarrungo lan zelaia haundituko da ondoko egunetan EPFL ondasunen erakunde publikoak sei hektara pasa erosi baititu Herriko Etxeak eta Hego Lapurdiko Herri Elkargoak galdeturik. Ibarrun eta Azkaine arteko bide nafusiaren bazterrean den 62 119 metra karratuko eremua 640 190 eurotan erosi dute, bi jabeekin eta hor lanean ari zen laborariarekin akort

ITSASU

Arrokagarai ikastolaren aldeko besta egingen da maiatzaren 21ean

TTIPI-TTAPA

Itsasuko (Lapurdi) Arrokagarai ikastolan diru biltze kanpaina bat hasi dute, ama ikastola berriak sortzen dituen gastuei aurre egiteko. Eta horren harira, bertzeak bertze, besta antolatu dute maiatzaren 21erako, larunbata. Atharrin Itsasuko ezker partean izanen dira ekitaldiak: 10:00etan xiba herri kiroletan aritzeko aukera izanen da eta ondotik, aperitifa animatua egingen da. 13:00etan zikiro jatea izanen da eta zikiro-jatera joan nahi duenak 16 euro ordaindu beharko ditu. Erreserbatzeko, berriz, 615 737360ra deitu beharko du. Egunari behar bezalako segida emateko, 17:00etan dantzaldia izanen da Kantuz taldearekin. Ikastolatik bestan parte hartzeko deialdia luzatu diete Euskal Herri osoko jendeari.

emanez. 2012an, lan zelaia berria prest izanen da ehun bat enpresa aterpetzeko eta 300 lanpostu inguru sortzeko. Gaurko egunean, 43 enpresa daude Lizardia eremuan eta ez da gehiago tokirik lantegi berriak idekitzeko. Etxegintza sustatu eta, orain hautetsiek ekonomiari oldar berria eman nahi diote herrian bizi eta lan egin ahal izateko.

ttipi-ttapa
etxera bidatzea nahi baduzu,
deitu telefono honetara:
(0034) 948 63 54 58
www.ttipi.net

SARA

Henri ERRANDONEA | Sarako Ondarea

«Salbatu, atxiki eta garatu da gure lema nagusia»

Bi urte daramatza Sarako Ondarea Elkarteak lanean

Joanes GARCIA

Sarako Ondarea Elkarteak da Henri Errandonea eta elkarrekin galdetu diogu.

Zer da Sarako Ondarea?

Saran 2009an osatu ginuen elkarte bat, helburua, ondarea, izanez hizkuntza bere mintzatzeko moduarekin, Sarako etxe zaharrak, saratarren lekukotasuna, herriaren historia, kontrabanda, laborantza edo Sarako kultur aberastasuna eta beste ehunka gai desberdin garatzea, mententzea edo salbatzea eta zabalzea. Salbatu, atxiki eta zabaldu. Hori da elkartearen lema.

Zergatik sortu duzue?

Elkarrekin solas egitearekin konturatu ginen Sarak, beste herri askok bezala, historia aberatsa zuela. Barandiaran, Webster eta beste aintz ikertzaile aspaldian interesatu ziren eta beren ikerlanetan argitaratu Sararen aberastasun hori. Guk ere, saratar bezala nahi dugu urrats bat egin ahal dena salbatzeko eta argitaratzeko.

Nork osatzen du taldea?

Hastapenean talde txiki bat ginen, 2-3 lagunekoa, proiektua presentatu ginuen Herriko Etxeari eta segidoan Battit Laborde auzapeza eta Mixel Urbistondo Kultur Ardulariarengandik sustengua izan ginuen. Gero bi bilkura egin genituen elkarteak informatzeko 40 lagun bilduz. Ondotik interesatua zirenak parte hartu zuten elkartearen sortzean eta geroztik pixkanaka ari gira saratarrek interesarazten.

Edonork parte harlezake?

Saratarra izanez edo Sara ezagutzen duen edonor etor daiteke guregana bai. Kanpotik etorri zaizkigujende batzuk eta gai batzuk gu baino askoz gehiago ezagutzen dituzte. Guk hori biziki eskertzen dugu.

Zer egin duzue orain arte?

Lehenik 100 bat postal zahar erakutsi ditugu pantaila handi batean Beti Gazte adineko jendeen biltzar nagusian, oroitzapenak pixtuarazteko eta horren bidez lekukotasunak grabatzeko. Gero bi mintzaldi antolatu ditugu, lehenik Mikel Duvert eta Nelly Audenorekin Sarako etxeen gainean. Esprikatu daukute nola eraikitzen ziren lehenago etxeak, lehenik mai-husturuekin eta gero arginekin nola etxe bat haunditzen zen familiarekin batean. Gero Claude Labat, Laburu Elkar-



Sarako ondarearen alde lan handia egiten ari da 2009an sortu zen elkarteak.

tekoa, etorri zaigu duela zonbeit mendeko sorigin mundu horren istorioa kontatzea. Eta azkenik, antolatu dugu kantaldi bat Bazko Igandez. Eskertu nahi ginuke jaun erretora, modu hortan ezer galdetu gabe sos pixka bat irabazi dugu, materiala erosteko. Gure berri jakin nahi duenak: www.sarakoondarea.com helbidean gaitu.

Geroari begira zer egitasmo duzue?

Milaka proiektu! Belar bilduma bat egiten hasi gira, Sarako belarrak beren euskarazko izenekin. Mahastiak egiten diren etxe arno edo sagarnoari buruz argazki sorta. Urrirako usategiei buruzko erakusketa bat antolatuko dugu (10 usategie gainean, Lannes Baretousetik Etxalarreraino) eta beste argazki xaharrak, eskoletakoak, etxeetakoak, mintzaldi bat dugu ere uztailaren 1ean, Eugenia enperatrizak Saran eginiko bisitari buruz, baita Sarako euskarari buruz ere, Joxemiel Barandiarani buruz, Erresoinka kantari eta dantzari taldeari buruz, Sarako etxeeri buruz lan bat beharbada Herriko Etxearekin. Nahi duena ongi etorria izanen da, ez da gaia eskasik!

Cecile AYEZ Xaxi | Altzari berritzailea

Artisau berria Omordiko lokalean

Xaxi izen goitiarekin hobe ezagutzen dugun Cecile Ayez saratar gazteak Gansaberri etxean zuen atelierra utzi du plazara hurbiltzeko. Oraindik Omordian duen gelan aulki zaharrak berritzen ditu eta etxe muelleak egokitzen ditu horrela nahi duen guziarentzat.

Azpimarratzekoa da Bixente Garcia eta Georges Labrosse saratar tintatzaileen margolanak ikusgai direla lokalean. Interesatuak direnek 0612781261 zenbakira deitzen ahal dute ikustera joateko eta margolanez gozatzeko.



Xebe MATXIÑENA IRIBARREN

Urroren, 2010eko maiatzaren 24an

I. URTEURRENA

Beti irrifarrea zenuen lagunmin gauza denen gainetik aitzinerat ekin bizitzari helduaz gogo guziakin indar hau utzi duzu betiko gurekin maite izan zaitugun familiarekin.

ZURE FAMILIA

EZKONTZAK

Fran Urkiola Etxegia eta **Judith Mariezkurrena Balda**, Leitzakoak, apirilaren 30ean Leitzan.
Juantxo Pikabea Zozaia eta **Txus Hidalgo Hidalgo**, Lesakakoak, apirilaren 30ean Lesakan.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Oier Txoperena Saldias, Igantzikoa, apirilaren 15ean.
Urko Telletxea Sein, Igantzikoa, apirilaren 30ean.
Olaia Sarrias Telletxea, Arantzakoa, maiatzaren 3an
Elaia Hernandorena Arretxea, Legasakoa, apirilaren 23an.
Markel Moran Santana, Lesakakoa, apirilaren 23an.
Sara Gartzia Sanzberro, Sunbillakoa, apirilaren 17an.
Amaia Belarra Arrieta, Donamariakoa, apirilaren 28an.
Joseba Zestau Ugalde, Saldiaskoa, apirilaren 10ean.
Junkal Otermin Gurutzarri, Aresokoa, maiatzaren 3an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Pilar Agerre, Sarakoa, apirilaren 17an, 95 urte.
Meliton Almandoz Hernandorena, Elizondokoa, apirilaren 18an, 95 urte.
Felipa Saldias Arozamena, Donamariakoa, apirilaren 19an 84, urte.
M^a Rosa Elizondo Bazterrika, Sunbillakoa, apirilaren 21ean, 85 urte.
M^a Milagros Ruiz Astiz, Doneztebekoa, apirilaren 21ean, 79 urte.
Josefina Halti Goienetxe, Zugarramurdikoa, apirilaren 24an, 64 urte.
Mercedes Galarregi Etxenike, Elizondokoa, apirilaren 21ean, 92 urte.
Martin Belarra Arozemana, Donamariakoa, apirilaren 21ean, 71 urte.
Juana Iribar Etxeberria, Elizondokoa, apirilaren 25ean, 98 urte.
Elvira Andiarena Etxekolanea, Doneztebekoa, apirilaren 27an, 94 urte.
Maritxu Iturriria Goñi, Lekarozkoa, apirilaren 30ean, 85 urte.
Lorentxo Zelaieta Ariztegi, Oizkoa, apirilaren 30ean, 45 urte.
Angeles Bertiz Adot, Berakoa, maiatzaren 1ean, 84 urte.
Jose Joaquin Sestorain Larrea, Leitzakoa, maiatzaren 1ean, 74 urte.



Martintxo BELARRA AROZAMENA

Zure familiak bertso hau eskaintzen dizu (HABANERA)

Zure bigarren etxetik ongi dakizu bidea zingarrak eta txistorrak eman dizute adorea. Mediku guzti-guztiak harrirituta zure aurrean esperantza bageneukan zu ikusteko etxean.

Txerriak eta makilak ta erramu-gurutzeak aizkora eta pilota afizio dotoreak. Zure salako txokoan hamaika puro errea Mantis dabilen tokian ez da faltako umorea.

BETI GURE BIHOTZETAN



Jose Antonio GOÑI TAPIA

Igantziko Bentak, 2011ko martxoaren 26an, 89 urte zituela

Umorez eta alaitsu egoten ginen elkarrekin, eta oroitzapen ahaztezin horiek beti geldituko dira gurekin.

ZURE EMATZEA ETA FAMILIA



Jaione MUTUBERRIA MENDIKOA

Narbartan, 2006ko maiatzaren 6an
V. URTEURRENA

Duela bost urte telefono dei batek aldatu zigun bizitza. Ordutik aurrera xoko guztietan nabaritzen dugu zure hutsa. Bizitza aurrera doa baina momentu guztietan oroitzen gara zutaz. Inongo erririk gabe goizegi eraman baitzintuen gure ondok bizitzak.

ZURE FAMILIA

PILOTA → IGANDEAN, MAIATZAK 15

Udaberriko Erremonte Torneoaren frontoi motzeko finala Donezteben

Frontoi motzeko finala izanen da eta igandean jokatu da

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Euskal Jai Berri Fundazioak antolatuta, Udaberriko Erremonte Txapelketa Mistoa jokatzeko ari dira azken asteetan erremontistak, Babolat Sari Nagusia deitua. Guztira sei bikote aritu

dira lehen: Matxin III.a-Urrutia, Juaristi-Lizaso, Uterga-San Migel, Zeberio II.a-Ion, Urriza-Olazar eta Urtasun-Etxeberria III.a. Txapelketaren berezitasuna partidak frontoi luzean eta motzean jokatzeko ari dira da.

LIGAXKA

Final laurdenak Aste Santuan jokatu zituzten, eta hortik Juaristi-Lizaso eta Urriza-Olazar bikoteak kanpoan gelditu ziren. Gainerakoek fina-



UTZITAKO ARGAZKIA

Frontoi motzeko finalerdiak eta finala apirilaren 28an aurkeztu zituzten Doneztebeko Herriko Etxean. Argazkian ezkerretik eskuinera, Oskar Mindegia (Doneztebeko Udaleko kirol zinegotzia), Etxeberria III.a, Arantxa Ezkurra (Big Mat-Mendi Txuri txapelketaren babeslea), Miguel San Miguel (Doneztebeko alkatea), Jaime Agirre (Euskal Jai Berri Erremonte Fundaziokoa) eta Julen San Miguel. Makurtuak Migel Mari Urrutia eta Gorka Urtasun.

lerdietarako txartela eskuratu zuten.

Lehen finalerdiak Hernaniko Galarretan eta Iruritan jokatu ziren, frontoi luzean Hernanin eta motzean Iruritan. Galarretako partidari Matxin III.ak eta Urrutiak 40-33 irabazi zieten Urtasun eta Etxeberria III.a. Iruritan, Urtasun eta Etxeberria III.a izan ziren garaile, 40-

35. Finalera pasatzeko joan etorriko partidetan egindako tanto kopurua hartzen denez kontuan, Matxin III.ak eta Urrutiak lortu zuten finalerako txartela.

Joan den asteburuan, berriz, bigarren finalerdiak jokatzekoak ziren Galarretan eta Lekunberrin, Zeberio II-Ion eta Uterga-San Miguel.

Orduan jakin zen asteburu honetan finalen zein izanen dituzten kontrario Matxin III.ak eta Urrutiak. Modalitate motzean finala igande honetan, maiatzak 15, izanen da Doneztebeko frontoian, 17:00etan. Frontoi luzean, berriz, Galarretan egingen da finala, hilaren 21ean, 16:00etatik aitzinera.

ESKUBALOIA ETA FUTBOLA → DENBORALDI BUKAERA

Denboraldiko azken partida irabazi arren, maila galduko dute BKT eta Aurrerak

BKTK Ohorezko Maila galdu du eta Aurrerak preferente maila

TTIPI-TTAPA | BAZTAN/LEITZA

Bere partida irabazi ez ezik, bertze partida batzuen emaitzaren es-

peroan egon behar izan zuten BKT eskubaloi taldeko emakumeek maila mantentzeko. Berelana ongi bete zuten Tenerifen irabaziz, baina Ixakok eta Zarautzek ez zuten hutsik egin eta honenbertzez, Baztango eskubaloi taldeak Ohorezko Maila galduko du.



ARGAZKIA: HITZA

Baztango seniorren eskubaloi taldeak Ohorezko Maila galdu du eta Leitzako Aurrerakoek Preferente maila.

Bertze horrenbertze gertatu zaio Leitzako Aurrera futbol taldeari Nafarroako Preferente

mailan. Azkeneko partida 6-1 irabazi zuen etxean, baina alferrik, kategoria galdu eta hel-

du den denboraldian Erregionaleko lehen mailan jokatu beharko duelako.

LASTERKETA → EKAINAREN 4AN

Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketa ohi baino luzeagoa izanen da aurten

Orain arte 10 kilometrokoa bazen, honek 15,8 kilometro izanen ditu

TTIPI-TTAPA | URDAZUBI

Berrikuntza nabarmekin etorriko da aurten go Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketa. Horietako bat ibilbidearen luzeran egin den aldaketa da. Izan ere, orain arte lasterketa ho-

nek 10 kilometro eduki ditu, baina aurten 15,8 kilometro egin beharko dituzte lasterkariak: 10,2 kilometro bidexkatan barna, 2,4 kilometro lurrezko bidetatik eta 3,2 kilometro errepidean.

Herriko besten barne, ekainaren 4an egingen den mendi lasterketa, eta plazatik abiatuko da, 10:00etan. Errepidean goiti eginez, Elixondoko bordarantz (250 metro) bidexka hartu beharko dute; hemendik Azkarko lepora igo (411



ARGAZKIA: WWW.URDAZUBIKONTRABANDISTAS.UEUO.COM

Kontrabandisten Lasterketaren hasierako metroak zakua bizkarrean egin behar izaten dira.

metro) eta Argaingoita mendiaren atzetik Axular etxera jautsiko dira. Iribere auzoari itzulia emanez, tarteko helmugara ailegatuko dira, Irigoienea aterpean (100 metro). Fraileen iturritik iragan ondotik, Elorgako bordaraino (390 metro) igoko dira Otsondottiki mendiari itzulia emanez eta ondotik berriz plaza bueltatuko dira Gai nekola bordan barna.

Ibilbidearen gehiengo malda 326 metrokoa

izanen da. Sei kontrol puntu izanen ditu eta hiru hornidura puntu. Ibilbideko punturik altuena 411 metrotan egonen da eta tikiena 84 metrotan, irteera eta helmuga puntuan, hain zuzen.

Hainbat sari banatuko dira: lehendabizikoak 500 euro eskuratuko ditu (Mon ostatuak emanak); bigarrenak 250 euro; hirugarrenak 150 euro; laugarrenak 100 euro eta bosgarrenak 50 euro. Tarteko helmuga

7,8 kilometroan kokatu dute eta hemen Irigoienek emanen du saria.

IZEN-EMATEA

Izena emateko epea maiatzaren 31n akituko da eta web orri bidez bakarrik egiten ahalko da: www.urdazubikontrabandistas.ueuo.com. Erregistroa egiterakoan 10 euro ordaindu beharko dira. Dortsalak, berriz, lasterketaren egunean 08:30etik 09:45era bitartean banatuko dira.

SOKATIRA → GOMA GAINEAN

Nafarroako Sokatira Txapelketako bi saio Zugarramurdin eta Amaiurren jokatu dira

Emakumeen lehiarik ez da izanen talde eskasiagatik

TTIPI-TTAPA

Aurten seigarren aldiz Nafarroako Goma Gaineko Lauko Sokatira Txapelketa jokutzen

ari da. Guztira lau jardunaldi jokatu dira hiru kategoriatan: gizonezkoen 320 eta 300 kilokoak eta kadete mailakoak 290 kilokoak. Azken maila honetan talde mistoak izanen dira. Aldiz, emakumezkoen txapelketa ezin izan da antolatu, bi taldek bakarrik eman baitute izena.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Amaiurkoak sokatiran.

Liga sisteman jokatu beharko dute lau kanporaketetan.

Parte hartzaileen artean, Amaiurkoak dauka, 320 eta 300 kiloko kategorietan hiruna talde aurkeztu dituzte eta kadeteetan Baztango Basaburua aterako da.

Maiatzaren 7an hasitako zen lehia Latasan,

eta bigarren saioa Zugarramurdiko frontoian jokatu da larunbat honetan, maiatzak 14, 17:00etan. Gizonezkoen 320 kategoriako bigarren jardunaldia izanen da.

Maiatzaren 21ean, Amaiurko frontoian, gizonezkoen 300 kiloko eta kadeteen lehen jardunal-

diak jokatu dira 17:00etatik aitzinera.

Azken saioak Berriozarren jokatu dira hilaren 28an. Eguraldi onarekin plazan, eta euria egingez gero, frontoi berrian. 17:00etan hasiko da eta gizonezkoak 300 (2. jardunaldia) eta kadeteak 290 kilokoetan (2. jardunaldia) jokatu dute.

maiatzak 12-25

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Antzerkiak



BERA | 2011.05.11-12-19-20

Antzele gaztetxoak lanean Mugaz Gain Antzerki Jaialdian

Mugaz Gain Antzerki Jaialdiak hamazazpigarren edizioa bete-ko du Beran. DBH eta LHko ikasleen antzezlana ikusgai izanen dira Kultur Etxean.

Ospakizunak



ELIZONDO | 2011.05.21

Museoen Nazioarteko Egunean bisita gidatua eta filma

Museoen Nazioarteko Eguna dela-eta sarrera doan izanen da maiatzaren 21 eta 22an Museo Etnografikoan. Bisita gidatua eta film emanaldia ere egingen dira.

Ospakizunak



LEITZA | 2011.05.14

Leitzaldeko eskoletako ikasle eta gurasoen topaketa

Hamabigarren urtez bilduko dira Areso, Goizueta eta Leitza-ko eskoletako ikasle, irakasle eta gurasoak. Aurten Leitza izanen dute egun osoko festa.

Maiatzaren 11 eta 13-an ETEetako kostuen kudeaketa ikastaroa.

Maiatzaren 16, 18 eta 20an Turismo marketina eta blogak sortzea ikastaroa.

Maiatzaren 18 eta 20an Fakturen eta kobrantzen kudeaketa ikastaroa.

Maiatzaren 24 eta 26an Enpresa marketina eta gizarte sareak ikastaroa.

ELIZONDO

Cederna-Garalur ikastaroak

Maiatzaren 23, 25 eta 27an Turismo marketina eta blogak sortzea ikastaroa.

Izen emateak info@cederna.es edo 948 206697 telefonoan.

Tailerrak

ARIZKUN

Baratzeko mamu tailerra

Maiatzaren 14an baratzeko mamu tailerra doan (10:30-13:30).

Antzerkiak

BERA

Mugaz Gain Antzerki jaialdia

Maiatzaren 11 eta 12an DBHko emanaldiak eta **maiatzaren 19 eta 20an** Lehen Hezkuntzakoe-
nak, Kultur Etxean.

ELIZONDO

Umetxoendako antzerkia

Maiatzaren 19an *Un paseo por el mar* antzezlana Los gorriones antzerki taldearekin Haur Eskolan.

Ospakizunak

ELIZONDO

Museoen Nazioarteko Eguna

Maiatzaren 21ean ospatuko da, *Museoa*

Kontzertuak

ELIZONDO

Vendetta taldea Lurren

Maiatzaren 14an Vendetta taldearen kontzertua, 00:30etik aitzinera.

Txarrena eta Calaña taldeak Lurren

Maiatzaren 21ean kontzertua Txarrena eta Calaña taldeekin, 23:30ean.

Piano entzunaldia

Maiatzaren 21ean Pablo Sarasate Kontserbatorioko piano ikasleen kontzertua 19:00etan Arizkunenean, Baztango Udal Musika Eskolak antolatua.

GARTZAIN

Ahots kontzertua elizan

Maiatzaren 14an ahots kontzertua eskainiko du Elizondoko abesbatzak Gartzaingo parrokiaren 20:00etan.

Erakusketak

ELIZONDO

Argazki erakusketa

Maiatzaren 4tik 30era *Compartir Na-*

varra GKE Adreiluz adreilu, euroz euro erakusketa Arizkuneko lehendabiziko solairuan.

Ehoziri eta brodatu erakusketa

Maiatzaren 9tik 14ra ehoziri eta brodatu lanen erakusketa antolatu du Baztango Ehoziri Taldeak.

BERA

Argazki erakusketa

Maiatzaren 18tik 20ra Ricardo Baroja

ikastetxeak antolatutako argazki rallyko argazkien erakusketa, 18:00etatik 20:00etara. Erakusketa ixteko, sari banaketa eta oparien zozketa.

BERTIZ

Margo erakusketa

Maiatzaren 1etik 29ra Santiago Jorge margo-lariaren erakusketa Bertizko Jauregian.

Hitzaldiak

ETXALAR

Bulling-a hizpide

PROPOSAMENA

ELIZONDO

Txarrena eta Calaña taldeak Lurren

Barricadako Enrique Villareal *Drogas* musikari ezagunak gidatzen duen Txarrena musika taldea izanen da maiatzaren 21ean Lur dantzalekuan, Calaña taldearekin batera, 23:30etik aitzinera. Sarrerak 16 eurotan erosten ahal dira aitzinetik eta 20 eurotan bertan. Astebete lehenago Vendetta taldeak eskainiko du kontzertua leku berean.



eta Memoria izenburupean. 12:00etan Eguzkia lainoepen ikusentzuneakoaren emanaldia eta 18:00etan bisita gidatua, *Cigaren obra, Baztango memoria bizia* izenburupean. Maiatzaren 21 eta 22an museoko sarrera doan.

LEITZA

Leitzaldeko eskolen topaketa

Maiatzaren 14an bilduko dira Areso, Goizueta eta Leitzako eskoletako ikasle, irakasle eta gurasoak.

Mendi irteerak

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleen ateraldiak

Maiatzaren 15ean Burkaitzea-Xaguxelai-Egurtegi-Artesiaga-Erregearen Bidea-Burkaitzea (08:00etan).

Maiatzaren 22an Elizondo-Irlintzi-Basabar-Urruxka mendi-Berdaitz-Askota-Elizondo (08:00etan).

LESAKA

Beti Gaztek Santiago Bideko lehen etapa

Maiatzaren 15ean Baiona-Zuraide etapa eginen du Beti Gazteko mendi taldeak.

Zinema

ELIZONDO


Buruko gaixotasunen inguruan

Maiatzaren 20an *Flores de papel* filma 18:00etan Museo Etnografikoan. Ondoren, filmearen eta buruko gaixotasunen inguruan mahaingurua, Ana-saps-Dizdira Elkarteak antolatua.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Igela benetan hiltzen dira

INAKI IRASIZABAL

Elkar, 2011

Kostako herri batean, zoritxar batek hautsi du ohiko patxada: neska gazte bat desagertu da; bahituta akaso, bortxatua eta eraila beharbada. Susmoak eta errezeloak pizten dira alde guztietan, eta ez dago arrasto garbirik. Poliziak emaitzarik lortzen ez duela ikusita, neskaren aita udaltzaina hasiko da bere kasa ikertzen, baita susmagarritzat jotzen dituenak xaxatzen ere. Bazterrak nahaste horretatik, baina, ustekabeko ondorioak etorriko dira.

Iñaki Irasizabalek ohikoa duen estilo berezi horrekin idatzi du misteriozko nobela bat, polizien ikerketa baino gehiago jende arruntaren egunerokotasuna erretratatzeko duena, pasarte laburretan pertsonaia batengandik beste batengana jauzi eginez, edonoren sukaldean egon litekeelako hildako bat... edo hiltzaile bat.

Musika




Itxaropenaren ertzean

JARE

Maldito Records
2011

Berriro ere, euskal rockaren emaitza paregabe batekin gatzokizue. Orain arte arakatu gabeko zokoak aurkitzeko argi distiratsua sumatzen da gure inguruan. Argi hori JARE da, euskaraz kantatutako rockaren patente berria, mota guztietako musikazaleentzat egokia; Hard rock, pop musika eta rock alternatiboaren artean kokatu beharko genuke talde hau. Esperientzia eta gaztetasuna biak daude proiektu honetan. Horren ideia 2010eko amaieran sortu zen Mikel eta Gorka Bizar (Idi Bihotz eta Fly'n'Freak ohiak) anaiei ekimenez. Zazpi disko eta seirehun baino kontzertu gehiagotan parte hartu izan dute. Horiekin batera belaunaldi berriko musikari paregabeak daude: Jagoba Ormaetxea eta Iñigo Benito (Autostereo), eta Kepa de Miguel.

Internet



Euskal Herriko musika zuzenean

MUSIKA ZUZENEAN

Euskal Herrian burutzen diren zuzeneko emanaldien ispilua eta bozgorailu izateko helburuz sortzen da www.musikazuzenean.com egitasmoa. Makina dira, kontaezinak, Euskal Herriko luze zabalean antolatzen diren kontzertuak eta zuzeneko emanaldiak. Lur eremu aberatsa da gurea zuzeneko musikaren alorrean. Asteburuetan metatzen dira emanaldi gehienak, baina, edozein egunetan bada aukera zuzeneko emanaldi bat bizi bizian dastatzeko. Web orriaren helburua ez da emanaldien Agenda soil bat izatea. Informazio egunerotua eta zehatza emateaz gain, gertatu denaren isla izan nahi du baita ere, igarotako emanaldien hartzaile eta dokumentazio gune. Horretarako, pasa diren emanaldien argazki eta bideo galeriak biltzen dira, bai eta idatzizko kronika eta kontzertu biren zuzeneko aipuak ere.

Nire aukera



Alicia DEL CASTILLO
Doneztebeko kazetaria

«Irakurtzea eta natura gustoko ditut, baita argazkilaritza ere»

Berriemaile lanak asitia uzten dio, «baina ez dakit noiz izanen dudan libre eta horrek aitzinetik planak egiteko baldintzatzen nau». Halere, libre duen une bakoitza aprobeztatzen duela aipatu digu Aliciak. Bere afizioei dago kienez, «batez ere irakurtzea eta natura, baita argazkilaritza ere» maite dituela aipatu digu. Eta familiarekin eta lagunekin egotea, «baina hori beharra da, afizioa baino gehiago». Astebururik ederrena, «despertadorerik gabe hasten dena, mendi ibilaldi bat, lagunekin bazkaria eta arratsaldean itsasondoan paseotxo bat». Oporretan berdin dio lekua, «garrantzitsuen bidaia bera eta konpainia da» dio. «Galizia gustatzen zait, Cies iriak batez ere. 1993an Errusiara egindako bidaiak ere inpaktatu ninduen, Mosku-San Petesburgo izan nintzen aldaketa sozial eta politikoa garaian...». Etor-kizunean gehiago bidaiatu nahi luke, «hurbilean Toledora edo urrunago Kanadara. Irlandara ere itzuliko nintzateke».

ETXEBIZITZAK
salgai

DONEZTEBE. Pisua salgai. Sukaldea, komuna, 2 logela, egongela handia eta despentsa. 15 m²ko trastelekua. ☎630 160353.

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

LESKA. 110 m²ko etxe erreformatu berria salgai. Bista onak. Bi aldetara irteerarekin. Oso prezio ona. Aukera paregabea. ☎667 605233/629 682121.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisua, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ETXALAR. Lizaietako paraje zaharberritzeko den borda salgai. ☎661 121540.

DONEZTEBE. Ogiberri gainean pisua salgai. 2 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, 26 m²ko terraza eta trastelekua. Dena hegoaldera. ☎656 770373.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

ELIZONDO. Braulio Iriarte karrikan pisua errentan emateko. Mobleztatua eta berogailuarekin. ☎676 707620.

BERA. Eztegara pasealekuan pisua errentan emateko. Mobleztatua eta berogailuarekin. ☎626

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttiipi.net edo www.ttiipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

774582.

ELIZONDO. Pisua errentan emateko. ☎676 707620.

LESKA. Pisua errentan emateko. 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Gela guztiek kanpora ematen dute, argitsua. Mobleztatua. ☎686 378154.

IRUÑA. Milagrosa auzoan ikasleentzako pisua errentan emateko. 3 logela ditu eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ondoan dago. 680 euro hilabetean. ☎626 938312.

ETXEBIZITZAK
errentan hartu

LEITZA. Bikote batek pisua edo baserria errentan hartuko luke. ☎661 829359.

BERA. Bikote batek pisua edo estudioa errentan hartu nahi du, Bera-

ko zonaldean. ☎688 680982.

ELIZONDO edo **ELBETE.** Bikote batek pisu tiki bat errentan hartu nahi du, logela bat edo bikoa bada hobe. ☎696 110929.

ZERBITZUAK
denetarik**GARAJEAK/LOKALAK**
salgai

BERA. 86 m²ko lokal komertziala salgai edo errentan emateko. Ekipatua. Eskaparatea. ☎948 630552.

LURRAK
salgai

BERA. Alkaiagan 964 m²ko lur eremu urbanizatu salgai. ☎948 630546.

**LANA**
eskaintzak

LESKA. Ekaitza hostalean, sukaldean, barran edo garbiketa lanetan aritzeko esperientzia duen emakumea behar da. Ahal bada Lesaka edo Bortzirietakoa. ☎948 637559.

URDAZUBI. Jatetxe batean igande eta jaiegu-

netan eta uztail eta abuztu osoan eguerditan lanean aritzeko zerbitzaria behar da. Eta bertze pertsona bat igande eta jaiegunetan eta uztail eta abuztu osoan eguerditan fregaderan aritzeko. ☎948 599222.

LESKA. Iturbena kafetegian asteburuetan lanean aritzeko zerbitzaria behar da. ☎679 828780.

DONEZTEBE. Neska edo mutil gaztea behar da, ahal dela Doneztebekoa edo ingurukoa, noizean behin ostatuan musika paratzen eta zerbitzari lanetan aritzeko. Esperientzia ez da nahitaezkoa. ☎948 450028.

LESKA. Tantirumairu ikastolak 2011/12 ikasturterako bi langile behar ditu: 1. Lehen Hezkuntzako irakaslea errelebu kontratu baterako. Magisteritzan Lehen Hezkuntzako titulazioa eta EGA edo baliokidea den euskara titulua ezinbertzekoak izan behar dira. Ingelerako espezialitatea izatea baliokidea da. 2. Bi urtekoen gelarako irakaslea. Haur Hezkuntzako titulazioa edo goi mailako lanbide heziketa (Haur Hezkuntzako titulazioa) edo baliokidea eta EGA edo honen baliokidea den euskara titulua ezinbertzekoak dira. Curriculumak maiatzaren 23a baino lehen helbide honetara bidali: *Tantirumairu ikastola, Arretxea 13, 31770 Lesaka (Nafarroa) edo tantirumairu@lesaka.ikastola.net.*

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(apirilaren 22tik 29ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 40,00 € (0,00)

Zerri gizena
1,265 € kiloa. (=)

Zerramak:
0,430€ Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,07 (-0,03)

1.koa 3,77 (-0,03)
2.koa 3,53 (-0,03)

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,15 (-0,03)

1.koa 3,87 (-0,03)
2.koa 3,73 (-0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 120,00 (=)
idixkoak 180,00 (=)

Aretze nabarrak:

urruxak 110,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,85/2,95

Zaldi-behorrak: 1,75/1,95

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,50/6,20

8-10 kilokoak: 4,60/4,90

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK



AVIA **DONEZTEBEKO GASOLINDEGIA**
www.clubavia.es
Malaitzan Gasolindegiko bezeroen artean
ZOKKETA
Asteburu bateko ateraldia
Hotela
Bodega batera bisita, degustazioa barne
Leiza E., 49 • DONEZTEBE | 948 451 679 | www.doneztebe.com

LANA
eskariak

LEITZA ETA INGURUKO HERRIETAN. Neska euskaldun batek haurrak eta adinekoak zainduko lituzke. ☎695 716894.

diko diferentziala eta atzeko diferentziala blokeagarriak... Interesatuak deitu lasai eta probatzeko geldi gaitzake. Mekanikari baten aurrean ikusteko ez dago batere arazorik. ☎647 705834.

Oilagorretarako zakurkumeak salgai. Atta setter eta hispanielen gurtzaketa eta ama setterra. Biak arras ehiztari onak. Ar bakoitzak 160 euro eta eme bakarrak 180 euro. ☎686 730516

MOTORRA
salerosketak

Seat Leon 2.0 TDI Sport-UP salgai, 140 zaldikoa eta 2006koa. 85.000 kilometro. Beltza. Eguzki-sabaia eta kristal beltzak. Egoera onean. ☎636 030990.

ANIMALIAK
oparitzeko


Setter eta Euskal Herriko artzain zakurraren arteko nahasketaren **3 zakurkume** oparitzeko. Hilabete batekoak. ☎653 019599.



peg AP-15 amplia salgai. Flight case fundarekin biak. ☎685 633195.



Gitarra akustikoa salgai, CORT MR 100F NS markakoa. 250 euro. Ia berria, erabili gabe. ☎617 947865.



DENETARIK
salerosketak

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287 /699 461394.

90 zentimetroko **habiohea** salgai. Egurrezkoa, txuri kolorekoa eta koltxoiarekin. ☎948 451787.

Legmagic gimnasia aparatua salgai, 75 eurotan. ☎619 913375.

Yamaha bajua eta Am-

Masaje-siloia salgai. ☎633 045524.



HP 920 C inprimagailua salgai. Egoera onean. 30 eurotan. ☎619 913375.

Akazia piketeak salgai. ☎616 055371.

Toyota Land Cruiser 90 Vx 2000. urtekoa salgai, 142.000 kilometro egiazkoak. Pintura originala eta oso egoera onean. Trakzio permanentea, er-

ANIMALIAK
salgai

Border Collie arrazako lau zakurkume salgai. ☎667 505730.

hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa **www.ttipi.net** en


IRA-GAR-KIA 2 aldizkaritan interneten telebistan

8 EURO

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,35€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



ZAIRA RICO IGOA beratarak urteak bete ditu maiatzaren 9an. Zorionak politta! Muxu potolo bat zure izeba Rakelen partetik.



Leitza-Beteluko **ALAITZ OLANO** **SOTILEK** urteak bete ditu apirilaren 25ean. Zorionak Leitza eta Beteluko familia- ren partetik. Ongi pasa eta opari asko izan.



Lesakako Matxinpittiko **ZIHARA TABERNA** **URRAK** urtea bete du maiatzaren 3an. Zorionak familia guztiaren partetik.



Nire ahizpa **ZIHARAK** urtea bete du maiatzaren 3an. Zorionak bihurritxo atxa, ama eta Laidaren partetik. Hartu hiru muxu erraldoi.



Berako **MAIDER, EKAI** eta **AXULARREK** 8, 1 eta 3 urte bete dituzte maiatzaren 4an, 6an eta 9an. Zorionak familia guztiaren partetik.



Urdazubiko **OIHAN** eta **SAIOA** **MUGIKA GARNIKAK** 3 urte eta urtea beteko dituzte maiatzaren 10ean eta 17an. Zorionak gure txikitxoei gurasoen partetik. Muuuuaa.



Goizuetako **OIER MIRANDAK** apirilaren 12an 8 urte bete ditu. Zorionak Iker, atxa eta amaren partetik. Eta aupa Reala!




ANE TELLETXEA IRAOLAK maiatzaren 4an 5 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko printzesari!



AIMAR TELLETXEA IRAOLAK maiatzaren 15ean 11 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia- ren partetik.



Leitzako **IMANOL BURRARENA** **ORTIZEK** 6 urte beteko ditu maiatzaren 13an. Zorionak eta muxu haundi bat familia- ren partetik.



JAIONEK 27 urte beteko ditu maiatzaren 14-an. Auniz urtez gure dendarian! Muxuak kuadrillaren eta Oier, Enea, Ainere eta Alaitzen partetik.



Berako **NAROA TELLETXEA IRIARTEK** 5 urte beteko ditu maiatzaren 17an. Zorionak gure printzesari Berako familia- ren partetik.




Donostiako **ETXAHUN OLAETXEA ZATOK** urtea bete du maiatzaren 2an. Zorionak zure lehenbiziko urtebetetzean. Muxu pottolo bana amatxi Mikel eta Beko Errotako familia- ren partetik.



Zorionak Lesakako **MIGUEL UBIRIA ALZATERI** 6 urte beteko dituelako maiatzaren 19an. Muxu haundi bat zure familia guztiaren partetik.



JOSEFA ONDARROLA AROZENA goizuetarrak 94 urte bete ditu apirilaren 30ean. Zorionak! Etxeko eta Goizuetako zaharrena zara eta espero dut horrela segitzea urte askoan. Zorionak familia, senide eta inguruan daukazun lagun eta senitartekoen partetik.



OIER MARTIN FAGOAGAK maiatzaren 6an 2 urte egin ditu. Zorionak pottoko! Txokolatzeko tartaren zain egonen gara. Familia eta bereziki amatxo eta aitaxo.



NIKO GARCIA ARANZADIK maiatzaren 20an 7 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu bat ama, Juampa, Daniela eta Mugerdiko guzien partetik.



Urdazubiko **PABLO OLAIZOLAK** urteak bete ditu apirilaren 18an. Zorionak auniz aitaxi, Sunbilla Pablo bihurriren partetik eta zure izeba Asunzionen partetik.



Zorionak Etxalarko **IRATI MENDIBURU GALARREGIRI** maiatzaren 28an beteko duen lehenbiziko urtebetetzean. Mila muxu morroxka familia- ren partetik eta bereziki Urtziren partetik.



Arantzako **BIHOTZ ALUSTIZA IPARRAGIRREK** 5 urte beteko ditu maiatzaren 12an. Zorionak familia osoaren partetik eta ongi pasa zure eguna kanpaldian!



HELENE RAMIREZ MADERA beratarak 2 urte beteko ditu maiatzaren 13an. Zorionak Leire, Iratxe eta Enararen partetik. Muxu haundi bat Montxito!

hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa www.ttipi.net

argazki soila 4€
bikoitza 8€

ttipi txartela harpidetza baino merkeagoa da

+ ttipi-ttapa aldizkaria doan
39 dendetan deskontuak
hamabostero zozketa izugarriak

40euro
10euro (25eko desarmadura errentaren atzerapena)

30euro

TTIPI-TTAPAren urteko kuotak 31euro balio du.
TTIPI TXARTELA dutenek, 30euro pagatuko dute urtearen azkenean.
Errentaren Atzerapenarekin 10euro itzuliko baitzaie

AUTO eta **BIZIKLETA** salerak: Bercito | Dabuzing | Kalesa Bika | Santofema | Zibon Motor. **AUTO ERROKAK**: Sempin. **ANIZKO-DENDAK**: Ayta | Gaitza | Mena | Zabalza. **ARROPA-DENDAK**: Buitak | Etxana | Pantelka | Ispagi | Juan J. Pineda. **Kalabogari** | Rukika. **BIXI-DENDAK**: Etxarri. **ESTETIKA ZENTRUAK**: Amara. **ETXETRESNAK**: Altun. **HAURREN GAUZEN DENDAK**: Pottoko. **KIDU-DENDAK**: Agora | Ispita | Zeta. **LENTZERIAK**: Kulturgarri | Marceus. **LIBURU-DENDAK**: Nafarroa | Oñate. **NUTRIZIOA** eta **DIETETIKA**: Oñate | Oñate | Oñate. **OPARI-DENDAK**: Amara. **OPTIKAK**: Ispita | Oñate. **PENTURAK**: Marceus. **TINDATEGARI**: Jaxxa. **ZAPATA-DENDAK**: Oñate | Tereku.

bildubaztandarrak

auzolanera goaz
batera goaz



eman botoa



bildu

TTIPI-TTAPAk ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

gure bezeroek
aukeratutako
proiektua
can
proiektu
zenbakia
15.996

Zure laguntza eskertzeko

DOKUMENTU-POLTSA

bat izanen duzu opari



Boligrafo, identifikazio txartela eta mugikorrerako konpartimentuak



ttipi-ttapa

Eska ezazu TTIPI-TTAPAren proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra abenduaren 30a baino lehen.

ttipi txartela

ttipi-txape

Amara Mindegia

40328741-Z

aportatze 2012/03

Zk. 21519

**DESKONTUAK | ZOZKETAK
ALDIZKARIA MUSUTRUK**

Eskatu zurea **948 63 54 58** telefonoan

TTIPI TXARTELArekin
BETI IRABAZTEN DA!

541. ALEKO IRABAZLEAK

* EREIN 4 LIBURU

Pedro FAGOAGA ETXEBERRIA | URDAZUBI

* ELKAR LIBURU1

Maite MARIEZKURRENA IBARRA | ELGORRIAGA

* ONDDO TA PUNTO KAMISETA

Jon ABRIL OLAETXEA | BERA

* PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS KAMISETA + CDa

Blanka SEIN ARGARATE | IGANTZI

* IBAIZABAL 4 LIBURU

Isidoro GOIA FAGOAGA | ARANTZA

* PUNPALAPLAN CD + DVDa

Eva MARTIN IBARRA | ELGORRIAGA

erein
ARGITALETXEA



3 LIBURUA
Erein argitaletxea
www.erein.com



AQUARIUM
MUSEO DE CIENCIAS
DONOSTIA

AQUARIUM 2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquariumss.com



elkar

XABI SANSEBASTIAN CDa
Elkar argitaletxea
www.elkar.com

Ludi toys



KOSMOJET JOKOA
Luditoys
www.luditoys.com



onddo
ta punto.

KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com



TTARTALO

PUNPALAPLAN CD + DVD
Urbinxka eskola
www.urbinxka.org

DESKONTUAK

CASA OSTIZ

%10 konponketetan

nafarpres

%10 liburu eta ikas materialen
testu liburuak eta bideoak ezik

JUAN J. PIKABEA

%10 galtza marka batzutan ezik

L

%10 matrakulan

SANSIÑENA

CITROËN

%10 olio aldaketetan